


Erresistentzia estrategiak eta irakaspenak Latinoamerikatik Europara

MUGARIK GABE



Argitaratzailea:



 www.mugarikgabe.org

 Mugarik Gabe

 @mugarikgabe

► ARABA

'Itziar' Elkarteen etxea Zalburu Plaza z/g
01003 Gasteiz
945 277 385 - araba@mugarikgabe.org

► BIZKAIA

Vicente Garamendi Taldea 5, lokala
48006. Bilbo
944 154 307 - bilbao@mugarikgabe.org

► GIPUZKOA

Katalina Eleizegi 46, behea
20009. Donostia
943 445 977 - gipuzkoa@mugarikgabe.org

Eragile, plataforma eta norbanako laguntzaile hauengatik

egina: Euskal Herriak TTIPari Ez Kanpaina, ATTAC Argentina, Instituto Equit, Médicus Mundi Gipuzkoa, Donostiako Zero Pobrezia Plataforma, EHNE Bizkaia, Ecuador Decide, ATTAC Euskadi, Edurne Epelde, Juan Hernández, Mari Ángeles Fernández eta Saioa Polo.

2017ko ekaina

Itzulpena: Komunika eta June díaz Bragado

Diseinu eta maketazioa: Alejo Moreno Sainz

Babeslea:



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Aitortu – Ez Komertziala – Lan Eratorririk Gabe
Nazioarteko 4.0 (CC BY NC ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edozein bitarteko edo formatutan, edukia libreki zabaltzea, kopia-tzea eta birbanatzea baimentzen da, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartutako sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Aurkibidea

Sarrera. <i>Mugarik Gabe</i>	7
---	---

Gipuzkoatik Euskal Herriak TTIPari Ez kanpainan lanean	9
---	---

- Martxoak 8: Nola eragingo digu TTIPak emakumeoi?
Campaña Euskal Herriak TTIPari Ez! 9
- Apirilak 7. Merkataritza Libreko Itunek osasun arloa pribatizatzekeo prozesuak bizkortzea ekarriko dute. *Medicus Mundi Gipuzkoa*..... 10
- Maiatzak 1. Nola eragingo du TTIPak lan eskubide eta eskubide sozialengan?. *Campaña Euskal Herriak TTIPari Ez!*..... 16
- Urriak 17. TTIP: bizi ala irentsi? *Euskadiko Zero Pobrezia Plataforma*..... 17

HERRITARRENGANDIK ERREALITATEA	20
---	----

- TTIParen aurrean ere, burujabetza feminista!
Edurne Epelde (Bilgune Feminista)..... 21
- Elikadura-burujabetzaren aldeko mugimendua eraikitzen.
Saioa Polo (Mugarik Gabe)..... 23
- TTIP eta CETA. Bizitzaren aurka kapitalak hasi duen azken gudua.
Mari Ángeles Fernández (Pikara Magazine)..... 26
- CETA eta osasunaren pribatizazioa.
Mario Fernández (OSALDE y Foro Social por la Salud)..... 29

ESPERIENTZIETATIK IKASKUNTZARA	32
---	----

- Merkataritza Askerako Itunen arkitektura eta gizarte-mugimenduak.
Adoración Guamán..... 33
- Hogei urtez merkataritza askearen aurkako borrokan: enbait hausnarketa Latinoamerikatik. *Luciana Chiotto*..... 42
- Nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa eta emakumeen gaineko inpaktuak. *Graciela Rodríguez*..... 52
- Merkataritza Askerako Ituna Europar Batasunarekin Ekuadorren.
Paulina Muñoz 71
- MMA eta MAI, NPB-n izan duten eragina eta nekazaritza-sektorean eragin dituzten ondorioak. *Andoni García*..... 83
- Herrien ituna, Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoaren (TTIP) alternatiba gisa. *Juan Hernández* 94

Pertsonen, herrien eta naturaren eskubideak kapitalaren aurrean

LOREA UNDAGOITIA

Mugarik Gabe

Hamarkadetan zehar, botere kolonialaren hegemonia atzean utziz, nazioarteko negoziazioetako ardatz gisa, merkataritza askea gailendu da, eta, hegemonia berri bat ezarri du: pertsonen aurrean kapitala. Salbuespenak salbuespen, herrien subiranotasunaren eta pertsonen eskubideen kaltetan, nazioarteko merkataritzaren liberalizaziorantz daramaten tresna berriek merkataritza-egituren zeruertzak, nazioarteko merkataritzaren liberalizaziora eta merkataritzaren zein inbertsioen muga-zergen eta hesien deuseztapenera bideratuz, diseinatu dituzte.

Munduko Ekonomi ordena denboran zehar sasi-erakundetu ondoren; doikuntza planak, aldehiko eta aldeaniztuneko negoziaketak edota eskualdeetako ekonomi blokeen eta hauen garapenerako bide berrien mesederako tresnen sorrerak, kolonizazio eta merkatu era berriak ekarri ditu. Pertsonen bizitzetan, lagunduriko oligopolioa eta esku gutxi batzuetan kapitala kontzentratu egotea, zigorgabetasun osoz iragazkortu dira, maiz, sistematikoki pertsonen eskubideen, baita bizitzen eta naturaren urraketa eraginez.

Enpresen eta atzerriko inbertsioen hegemoniak herrialdeen, pertsonen eta ingurumenaren eskubide ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak erabat zapaldu ditu. Pertsonen igarotze askea mugatuz, emakumeak eta haurrak esklabo bihurtuz, ondasun komunengatik esplotatuz eta sarraskituz, sektoreak pribatizatuz, demokraziaren arau berriak ezarriz eta inposatutako merkatu arauen haustea edota desakordioak zigortuz. Guzti hau, pertsonen, naturaren zein ondasun komunen bizia eta heriotza zigorgabetasun osoz erabakitzen duten enpresari handien eta multinazionalen; hala nola, kapitalaren mesedetan.

Badirudi merkatua eta merkataritza askea herrien eta pertsonen subiranotasunari gailendu eta irabazi egin diotela, baina, merkataritza askeak, negoziazio komertzial komunen oinarri izateko muga sakonak ditu. Aldeaniztuneko nazioarteko itunen negoziazioetan parte hartzeko herrialdeen ekitate gabeko baldintzak indartzen dituen lanaren nazioarteko banaketa ezberdina nabarmentzen da. Hala nola, potentzia nagusien botere negoziatzaileak

garapen ekonomiko txikiagoa duten herrialdeen espoliazio eta estortsiora eramaten duten alde biko negoziari bide eman die.

Alabaina, garapen ekonomiko txikiagoa duten herrialdeek eta MMAren iriziz suspertzen ari diren herrialdeek pil-pilean dituzten borrokak, merkataritza askearen kontraesanak eta bidegabekeriak oholtzaratu dituzte.

Aldi berean, Via Campesina, Emakumeen Mundu Martxa eta globalizazioaren kontrako nazioarteko mugimendu sozialek, tokiko zein nazioarteko merkataritzako edota inbertsio askerako itunen aurkako plataformek, gobernu kanpoko erakundeek eta tokiko hainbat erakunde baita, giza eskubideen urraketa sistematikoa geldiarazteko, ondasun komunak espoliaziotik babesteko, subiranotasuna, kapitalarena baino, lan eta bizi diren herri eta pertsona dela aldarrikatzeko kaleetan ekintzak egiten jarraitu dituzte, gertakizunen informazioa zabaldu dute, mozioak aurkeztu dituzte, babesa eskatu dute ...

Dokumentu honek duen proposamenetako bat da, mugimendu eta plataforma hauei hitza ematea da. Ondorengo orrialdeetan barrena, hasierako atalean, EEBA eta Europaren arteko Merkataritza eta Inbertsio Askerako Itunak –TTIP-, Kanada eta Europaren arteko Merkataritza Askerako Itunak –CETA- eta merkataritza askerako itunek orokorrean sortu ditzaketen emakumeen eskubideen, osasunaren eta lanaren eskubideen urraketa eta pertsonen artean, pertsona eta herrialdeen artean eta herrialdeen artean sorrarazten duten pobrezia azalarazten duten zenbait artikulua labor eta elkarrizketa bat agertzen dira.

Bigarren atalean, iritzi pertsonalen bitartez, ondasun komunen egoera eta osasunaren pribatizazioari heltzen zaie. Aldi berean, merkataritza askerako itunei –MAI- aurre egiteko eta geldiarazteko, aukera posibleak eta erresistentziarako estrategiak elkarbanatzen dira; hala nola proposamen feminista eta elikadura subiranotasuna.

Azkenik, hirugarren atalean, MAI sektoreka erradiografiatuko dira eta hauek geldiarazteko esperientzia arrakastatsuek ezagutzen eta aukerak proposatzen dira. MAIen aurrean Latinoamerikako adituen eta aktibisten zein honelako itunek Euskal Herrian eta Europan sortu ditzaketen eraginaren jakintun diren europarren eskutik datoz hauek.

Lerro hauetatik, argitalpen hau posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Beste behin ere, elkartasuna herrien samurtasuna da.

Nola eragingo digu TTIPak emakumeoi?

AEB eta Europar Batasunaren arteko araudien parekatzeak, emakumeon bizitzan eta gorputzetan konpondu ezinezko ondorioak izango ditu.

Lan eskubideen murrizketak eta zerbitzu publikoen pribatizazioak, emakumeon **enpleguen eskastasuna (prekarizazioa), pobrezia feminizazioa areagotzea** eta “generoen” arteko zein norbanako eta kulturen arteko ezberdintasunak handitzea eragingo du; zaintzan eta etxeko lanetan denbora gehiago eskaini behar izatearekin batera. Rol patriarkalen erreproduzioa behin betikotuz.

Ardura familiarrak dituzten langileen zein etxeko langileek duten sostengua, prestazioak, amatasunerako eskubidea, edota bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko kontziliazioa desagertzeko arriskuan leudeke. Eta enplegu beragatik soldata bera jaso beharrean, egun pairatzen dugun desberdintasuna areagotuko litzateke (gaur egun emakumeok, Hego Euskal Herrian gizonezkoek baino % 35,6 gutxiago irabazten dugu).

Osasunaren pribatizazioarekin, sexu eta ugalketa eskubideak **publikoak eta doakoak izatearen bermea galduko dugu**, askapen sexualarekin eta gure gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko gaitasunarekin batera.

Emakumeon osasunean eragin bortitzak izango ditu: **gorputzean zein bizitza eta ongizatean jasaten dugun higadura areagotuz** edota elikadura osasuntsua izateko aukera galduz (kalitatezko produktuen desagertzea, etiketatatu gabeko produktu transgenikoen salmenta ...).

Aisialdia, formazioa, pertsonen arteko harremanak, bizitza sozial, politiko, kultural eta ekonomikorako parte hartzea eta gure gorputzaren gaineko zaintzarako denbora gutxituko da eta horrek, emakumeon bizitzetan, izugarriko eragin kaltegarria izango du.

Emakumeon babes eza emateaz gain, indarkeriaren aurrean gure bizitza bermatzen duten neurriak ere desarautu egingo dituzte, AEBk ez baitu oraindik emakumeonganako indarkeria oro desagerrarazteko Nazioarteko CEDAW hitzarmena sinatu.

JUAN ANTONIO GÓMEZ LIÉBANAREKIN ELKARRIZKETA

“Merkataritza Libreko Itunek osasun arloa pribatizatzeko prozesuak bizkortzea ekarriko dute”

MÓNICA MÍGUEZ

Medicus Mundi Gipuzkoa

Liburu horren koordinatzaile aritu zara, eta liburuaren azpititua parafraseatuz, zer jakin beharko genuke eta zer ez digute kontatu nahi osasun publikoaren pribatizazioari buruz?

CASen (Osasun Publikoa Pribatizatzearen aurkako koordinakundea) uste dugu garrantzitsua dela osasun arloari buruz hitz egitea, zerbitzu hori herritar guztiak eskura izan beharko lukete eta. Baina, era berean, osasunari buruz ere hitz egin beharko genuke. Bi gauza ezberdin dira. Guk Madrilgen ekin genion borrokari 2004. urtean, Madrilgo osasun sistema desegingo zutela zuzenean jakin genuenean; eta halaxe gertatu zen bost urteren buruan. Borroka gogorrena 2004tik 2012ra bitartekoa izan zen. Osasun Sistema Nazionala kudeatzeko modu berriak gaitzeari buruzko 15.97 Legea indargabetzeko milioi erdi sinadura biltzea lortu genuen, eta, ondoren, Legebiltzarrerara eraman genituen, baina alderdi batek ere ez zuen ezer jakin nahi izan, ezta komunikabideek ere, legea indargabetzeko hiru hiletik behin antolatzen genituen manifestaldietan 40.000 pertsona biltzen genituen arren. Denbora horretan, funtsean, osasun sektoreko zenbait pertsonak eta profesionalak lagundu digute. Ondoren, 2012an, dagoeneko 12 ospitale pribatu irekita genituenean, eta ospitale publikoetako milaka ohe kendu zituztenean, Madrilgo eskualdeko gobernuak hainbat neurri hartu zituen. Neurri horiek, modu batean edo bestean, plantilletako baldintza ekonomikoetan eta lan baldintzetan izan zuen eragina. Orduan sortu ziren marea zuriak, eta komunikabideetan garrantzia eman zitzaizen, pribatizazio prozesuak dagoeneko urteak zeramatzanean martxan. Ildo horretan eta beste batzuetan, oso kritikoak gara marea zuriarekin eta norberaren ospitalearen aurrean beste ospitale batzuk eraikitzen zituztela ikusten zuten bitartean ezer esan ez zuten guztiekin. CASen iritziz, ez dute gaiaren mamia aztertu nahi izan.

Ildo horretan, beste arrisku bat dago, eta, zuen ustez, pribatizatzea bezain arriskutsua edo arriskutsuagoa izan daiteke...

Andaluzian, kontratu zaborrak dituzten mediku batzuek liburuaren zati batzuk sinatu dituzte; esaterako, “Gestión clínica, ese oscuro objeto de deseo” (Kudeaketa kliniko, desira-objektu ilun hori). Bertan, sistema hori zertan datzan azaltzen da: helburua ez da pribatizazioa sartzea, esparru klinikoaren merkantilismoa baizik. Ez dago enpresa pribaturik, baina pazientearekiko harremanetan, irizpide ekonomikoak eta merkatu-irizpideak sartu dira. Hala, urte batean pazienteekin osasun gastua murrizten dutenek (espezialistengana gutxiago bideratzearen ondorioz edo farmazian gutxiago gastatzearen ondorioz), urtean 7.000-14.000 euroko pizgarri ekonomikoak jasotzen dituzte. Eredu hori ezarriko dute Andaluzian, eta, Asturiasen, neurri txikiagoan. “Ezkerrak” sartu du pixkanaka, eta PPK ere bai gobernua duen autonomietan, adibidez, Gaztela eta Leonen. PSOEk iragarri du Gaztela-Mantxan ere sartuko duela. Mekanismo hori banku bati ospitale baten ustiaketa lagatzea baino arriskutsuagoa izan daiteke; izan ere, helburua langile klinikoaren eguneroko funtzionamenduan helburu ekonomizista sartzea da, eta ez sendatzea edo osasuna sustatzea. Gastua murriztea da helburu bakarra, ez dago besterik.

Halako eredu batek pertsonen osasunean dakartzan ondorioak pribatizazioak eragiten dituenak baino okerragoak dira?

Momentuz, datuak eskuan ditugula, ez dira sistema pribatuak baino okerragoak; izan ere, argi dago ospitale bat ixten denean, nazioarteko ikerketa guztiek agerian uzten dutela heriotza-tasak gora egiten duela: % 2 helduen artean, % 8 gaixo kronikoen artean, eta % 9,5 haur jaio berrien artean. Urtearen amaieran, dirua dago banatzeko, eta hori osasun gastua edo plantillaren gastua murriztearen ondorioa baino ez da. Baina eredu hori ere ez dugu gustuko.

Liburuan, pribatizazioaren aurrean ondo funtzionatzen duten esperientziak ageri dira.

Sistema publikoa defendatzeko borroken hainbat esperientzia jaso ditugu, baina baita norberak kudeatutako egiturak sortzeko beste esperientzia batzuk ere. Tesalonikan (Grezian), esaterako, osasun sistema auzoko hainbat batzarren artean eta osasun arloko hainbat langileren artean antolatuta dute Estatuak kudeatzen ez dituen lehen mailako arretarako egiturak mantentzeko. Kasu batzuetan, sei urte daramatzate martxan, eta legea onetsi zenean sistema publikotik kanpo geratu ziren hiru milioi pertsona ingururi osasun arreta ematea lortu zuen. Lege horren ondorioz, langabezian urtebete baino

gehiago zeramatenek osasun arreta integrala galdu zuten, eta larrialdietarako sarbidea besterik ez zuten.

Kudeaketa-eredua zalantzan jartzeaz gain, ezarritako medikuntza ereduare kritikatzen duzue.

Bai, medikuntza ereduaren norabideaz ari gara. Uste dugu osasun arreta garrantzitsua dela, baina Lalonderen 1974ko txostenak dagoeneko agerian uzten zuen Mendebaldeko herrialdeetan osasun arreta horrek % 11 besterik ez duela murriztu heriotza-tasa. Benetan kopuru hori murriztu zezaketen faktoreak hauek dira: ingurumenak % 18 eta bizimoduak % 43. Ehuneko horiek gora egin dute, eta, 2010ean, EBk onartu zuen heriotza-tasaren hiru laurdenak faktore horien mende daudela. Hala ere, osasun sistema mugatzen duten faktore horiek ez dira ukitzen; izan ere, benetan prebentzioa bultzatuko balitz, gaixotasun sortzaile deritzegunen aurka jokatuko genuke.

Zein dira gaixotasunen sortzaile horiek?

Gaur egun, adibidez, minbiziak eragindako milaka heriotza ditugu industria toxikoen ondorioz, baina heriotza horiek ez lirateke sortu beharko. Beste faktore asko daude tartean, eta asko bizimodu kontsumistarekin eta bizimodu oso garatuarekin lotuta daude. Bada, horien ondorioz sortzen ari dira pertsona gaixoak, baina ez lukete gaixo egon beharko, horiexek dira, ordea, osasun eredu ekonomikoa elikatzen dutenak. Gero eta gehiago gaude farmazeutikoen esku, medikuntza- eta industria-egituraren esku...

Liburuan proposatzen den eredu aldaketan, herritarrei eta osasun arloko langileei eskatzen zaie aldaketa horretan zuzenean parte har dezaten. Eta, aldaketa horretan, Administrazioak badirudi ez duela interes gehiegirik.

Ez dute interesik mugarik gabeko hazkundearen eredu kapitalistaren aurkako borrokan sartuko ginatkeelako. Euskadin oso gertu duzuen adibide bat emango dizuet: Zubietako erraustegiarena. Ikerketa zientifiko askotan onartzen da hiri hondakinen erraustegiak hurbil daudenean, minbiziak eragiten dituen heriotzen tasa gehiegizkoa dela, malformazio genetikokoak egoten direla, eta gaixotasun kardiobaskularren kopuruak nahiz arnasketa-gaixotasunen kopuruak gora egiten dutela. Hala ere, Osakidetzan ez dago erraustegia herritarren osasunerako kaltegarria dela ohartarazten duen dokumenturik. Eta, Konstituzioaren 43. artikuluan ezartzen da erakundeek osasun kolek-

tiboa bermatzeko betebeharra dutela. Beraz, herritarrek eurek defendatu behar dituzten beren eskubideak. Graciakoaren moduko esperientziek agerian uzten dute dena ez dela “Estatu aitaren” esku utzi behar. Greziako osasun arloko langileak gai izan dira herritarrei arreta emateko osasun egitura txikiak sortzeko, eta zentro horiek ez dira inola ere Espainiakoak baino okerragoak.

Zer ekintza jarri beharko litzukete martxan herritarrek eta osasun arloko profesionalak egungo eredu hobetzeko?

Lehenik eta behin, politikariek zentroen funtzionamenduaren kontrol demokratikorako mekanismoak ezarri beharko litzukete. Horretarako, lehenik eta behin, gardentasuna behar da. Espainian, ez dago osasun sistemaren funtzionamenduari eta emaitzei buruzko datu pertsonaletarako sarbiderik. Datu orokorrak besterik ezin ditugu eskuratu, eta oso ondo kontrolatzen dute datu xehatueterako sarbiderik ez izatea. Datu horiek izanez gero, sistemaren funtzionamendua gardena izango litzateke, eta ondo funtzionatzen ez duen arloetan sakondu ahalko genuke. Ondoren, kudeaketa demokratikorako mekanismoak sortu beharko lirateke zentroetako langileen eta zentro horiek kokalekuan bizi diren herritarren artean. Elkarrekin lan egin beharko genuke, asistentzia sanitarioa kudeatzeko ez ezik, osasunaren diagnostikoe-tan ere lan egiteko, 86ko Osasunaren Lege Orokorrak ezartzen duen moduan, inoiz ezarri ez bada ere. Diagnostiko horiek eginez gero, zer arazoren inguruan lan egin beharko litzatekeen jakingo genuke. Lehen esaten nizun moduan, industria jakin batek pertsonen osasunean eragiten badu, neurriren bat hartu behar da horren inguruan; izan ere, ezer baino lehen, pertsonen osasuna dago, eta ez enpresaren interesak. Baina une hauetan, sistema ez dirudi hori gauzatzeko prest dagoenik, eta herritarrak ere dirudi oso prest daudenik, beste gauza batzuetan ari dira eta. Ezin dugu gure burua engainatu, herritarren gehiengoa kontsumo eredu jakin batean murgilduta baitago, eta gutxiengoa besterik ez baitago gai hauekin kezkatuta.

Jendearen aldetik, mobilizazio falta al dago? Lehen esaten nuen bezala, ohitu egin gara “aita Estatuak” guztia konpontzera?

Errazagoa da herritarrak mugiaraztea osasun zentro jakin batean pediatria- ren lanpostua betetzen ez denean, bere seme-alabak hiltzen ari den erraus- tegiaren aurka egiteko baino. Zoritxarrez, hala da, eta ez dago arazo horiek konponduko dituen makila magikorik. Eta seguruenik, arazo horietako askok egungo kontsumo-ereduak ekarritako mobilizazio falta horrekin lotura

izango dute. Horrek guztiak indibidualismoa eta hedonismoa ekarri du, non jendeak bere arazo txikiak konpondu nahi dituen, aurrerapen historiko handiak beti taldeko mobilizazio handiei esker lortu diren ideia alde batera utzita. Hala gertatu zen, adibidez, zortzi orduko lanaldiarekin edo emakumeen boto eskubidearekin, denbora eta ahalegin handia behar izan zen eta.

Tratamenduekin zerikusia duten kontuetan ere etsi egin al dugu? Medikalizatzeko joera da gailentzen da norberaren osasunaren gainean erantzukizuna hartzearen gainetik?

Hori kontsumo ereduaren ondorioa da. Merkataritza-gune handietan kontsumitzen dugun bezalaxe, jendeak farmakoak kontsumitzen ditu pentsatuz osasuna kontsumitzen ari dela, baina egiazki botika horiek dakartzaten albo-ondorioak Europan heriotza eragiten duten hirugarren arrazoi nagusiak dira. Lehenengo arrazoa bihotzeko gaixotasunak dira, bigarrena, minbizia, eta hirugarrena, botiken kontsumoa. Horrek asko esaten du gure egungo eredu sozialaren inguruan. Ez gara egunez egun gaixotasunak sortzen dizkiguten erabakigarri batzuen aurka borrokatzen ari, eta gure osasun arazo guztiak diagnostiko proba batzuk egitearekin edo botika asko hartzearekin konpondu nahi ditugu. Baina osasun baliabideak gero eta gehiago kontsumitzea edo herrialde baten errenta areagotzea ez da osasun handiagoaren seinale, kontrakoa baizik. Osasunaren baldintzatzaileak, sarritan, ez daude diruarekin lotuta, besteak beste, ezarritako ereduarekin baizik. Lehen etxean kudeatzen genituen gaixotasun prozesu txikiak, baina hori guztia galdu egin da. Nik larrialdi zerbitzu batean lan egin dut, eta ezin duzu imajinatu gaixotasunak edo larrialdiak ez diren zenbat kasu iristen zaizkigun. Gure buruaren eta seme-alaben zaintzan, autonomia handia galdu dugu.

Egoera hori Espainiako estatuko beste edozein lekura eramán daiteke. Euskadira ere bai?

Argi eta garbi ikusten dugu osasun kontsumoa zenbat eta handiagoa izan, herritarren artean orduan eta okerragoa dela osasun egoera edo osasunaren sentzazioa. Beraz, aldaketa orokorrik ez badago, osasunean ez da aldaketa orokorrik egongo. Honako hau pentsatu beharko genuke: baliabideen kontsumo mugagabearen eredu industrial desarrollistaren estertoreak aurrean ditugula, eta gure seme-alabek oso bestelako egoera aurkituko dutela. Ildo horretan, osasun kolektiborako konponbide askoz ere merkeagoak bilatu beharko genituzke; izan ere, merkeagoa da erabakigarrien aurka egitea, jen-

deari diagnostikoa egiten eta tratamendua ematen ahalegintzea baino. Eta jakin beharko genuke bizimodu askoz ere errazagoa izan beharko genukeela, estres kronikoa erabat ezarrita egon ez dadin. Gaur egun, gauza jakina da gaixotasun asko (minbizia edo gaixotasun kardiobaskularrak, esaterako), konurbazio handietan eta lan estresagarrietan bizi dugun estres kronikoarekin lotuta daude, pixkanaka organo guztiak hondatzen dira eta. Azken batean, askotan jendea alkandora hertsagarri kimikoak jartzen ari gara, baina, gure egungo sistema da alde guztietatik gaixotasunak sortzen dituen. Aldaketa orokorra behar dugu. Utopia dela esango digute, baina uste dugu aldaketak egongo direla, nahiz eta kasu batzuetan hain baikorra ez izan, hori ere kalterako.

Aldaketez ari garela, onartuko diren Merkataritza Libreko Itunek (MLI) zer eragin izango dute osasun sistema publikoetan? CETA dagoeneko European eta Espainian onartuta dago, eta Senatuak onartzea besterik ez da falta...

Eragiteko modua dela eta, dagoeneko nolabait pribatizazio prozesuetan ikus dezakegu. Ipar Amerikako multinazionalak TLCekin etortzearen helburua hau da: European irekitzen ari den osasun negozioan sartzea eta dagoeneko hemen zeuden enprekin lehiatzea osasun sistema publikoaren alde errentagarriekin geratzeko. Izan ere, ez dute pribatizatuko errentagarria ez dena. Beti geratuko da gaixotasun jakin batzuk (gaixotasun infekziosoak, esaterako) estaliko dituen ongintzazko sistema bat, horiek ez dutelako klasearekin loturiko mugarik. Ez dute nahi tuberkulosirik egotea, jende guztia kutsatu dezakete eta. Horrek, azken batean, bi abiaduratako osasun sistemara hurbiltzen gaitu. Sistema horretan, batetik, tratamendu jakin batzuk ordaindu ditzakeen jendea egongo da, eta, bestetik, zentzu praktikoan tratamendu horietarako sarbiderik izango ez duen jendea ere bai. Sistema publikoan ebakuntza bat egiteko itzarote-zerrendan egon zaitezke, baina sistema hori oso hondatuta badago, baliteke ebakuntzarako garaiz ez iristea. TLCek pribatizazio prozesuak bizkortzea ekarriko dute, eta multinazionalak beherapentara etorriko dira, errentagarria den guztiarekin geratzeko.

Nola eragingo du TTIPak lan eskubide eta eskubide sozialengan?

TTIPa EB eta AEB sekretupean negoziatzen ari diren merkataritza askerako akordioa da. Europako Batzordeak TTIPk 2027arte BPGaren %0,5-1eko igoe-
ra bermatuko duela eta, prezioak jaistearekin batera, 1.300.000 lanpostu
sortuko dituela saltzen digu. Horretarako, edozein motako merkataritzarako
oztopo diren aduana-zergak eta beharrezkoak ez diren araudiak deuseztatu
nahi ditu.

Zenbaki hauek iragarriak dira EB dauden 26 milioi baino gehiago langabe-
tuen aurrean. Izan ere, ikerketa independente batzuen arabera, TTIPa sinatu
ezkero **milioi bat lanpostu galduko dira**. Antzeko beste tratatu batzuetan,
NAFTA (Mexiko, Kanada eta AEB) kasu, 20 milioi lanpostu agindu ziren, bai-
na emaitza netoa milioi bat lanpostuen galera izan zen.

TTIParekin langileon lan eskubideak erasotuak izango dira, EB eta AEBko lan
legeriak maila berdinean ipiniko dituelako hemengoaren kaltetan. AEBetan,
mundu mailan desberdintasun maila altuena duen herrialdean, ez dago ne-
goziaketa kolektiborik ezta sindikatzeko askatasunik, ez dago greba eskubi-
derik eta, kasu askotan, amatasun baimenak ez daude ordainduta. AEBetan,
lan istripu baten ondorioz egon daitezken salaketak saihesteko, lan kontra-
tuetan klausula bereziak daude. Langabezian eta pobrezian oinarritutako tes-
tuinguru sozioekonomikoan baino, langabetuen gain ezartzen dira hauek bizi
duten egoeraren ardura, edozein balditzetan lanpostuak hartzera behartuz.

TTIPak konpainia transnazional handien pribilegioak areagotu eta blindatu-
ko ditu, **klase herritarren interesen gaintik kapitala pilatzen jarraitzeko**.
Lan eskubideak, zerbitzu publikoak, araudi sozial zein ingurumenekoak era-
soko ditu. Finean, demokrazia jakean jarriko du.

TTIParen onarpenak dagoeneko Europara iristen ari diren politika neoliberal
basatiak areagotuko ditu. Politika hauek ezagunak egiten zaizkigu: **langa-
bezia, pobrezia eta desberdintasunak** sortzen dituen bizi irauneko soldatak.

TTIP: bizi ala irentsi?

LOREA UNDAGOITIA

Zero Pobrezia plataforma

Urriaren 17an, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Egunean, euskal erakunde eta kolektibo sozial askok salatu genuen, Pobreziaren aurkako Astean egin-dako hainbat jarduera eta ekintzen bidez, pobrezia eta desberdintasunak, desagerrarazi ordez, areagotu egin direla.

Mahai gainean jarri nahi dugu merkataritza askeko itunen, hala nola TTIP edo CETA, eta pobretze-prozesuen artean lotura estua dagoela. Era berean, azpimarratu nahi dugu itun horiei aurre egin behar diegula pertsona guztiak gizarteratzeko eta pobrezia zein desberdintasunak errotik kentzeko bidean aurrera egiteko. Salatu nahi dugu itun horiek ondorioak eragiten dituztela mundu mailan; izan ere, hainbat testuingurueta errealtateak larriagotzen dituzte eta haien efektuak gurera ere iristen dira.

Eusko Jaurlaritzak 2014an egin zuen Behar Sozialei buruzko Inkestaren arabera, Euskadin, 2004an pobrezia-arriskua %5,6 bazen, 2014an %8,2ra igo zen. Gizonen kasuan, 2014an, benetako pobrezia-egoera %5,6an kokatu zen eta, emakumeen kasuan, %6,1era iritsi zen. 2012 eta 2014 bitartean, Euskadin, pertsona pobreen kopuruak %11,1 egin zuen gora, eta 127.399 izatera iritsi ziren. Hortaz, hautematen dugu, Euskadin, pobretze- eta bazterketa-egoerak larriagotzen ari direla, Espainiako estatuan bezalaxe.

2012 inguruan, Laura Carlsenek adierazi zuen Mexikon duela ia hogeitun urte AEBekin eta Kanadarekin abiarazitako Merkataritza Askeko Itunaren (TLCAN) ondorioz, emakume eta gizonen pobrezia ekonomikoa betikitzen ari zela eta, horrez gain, Mexikoko biztanle gehienak gosez hiltzen ari zirela eta horietako askok elikadura-arazo larriak zituztela. 2012 eta 2014 bitartean, 2 milioi pertsona pobre gehiago erregistratu ziren, kopurua 53,3 milioitik 55,3 milioira pasa zelarik; eta, 2014an, horietatik 28,5 milioi emakumeak ziren eta 26,8 gizonak. Urte berean, 28 milioitik gora pertsonak elikadura-urritasuna jasan zuten.

TLCANaren eraginez, Mexikon janari asko inportatu behar izan zen (herrialde osoan kontsumitzen denaren ia %42), prezioek behera egin zuten eta

soldata oso txarrak ordaindu ziren. Halaber, elikadura-ohiturak eta nekazari-tza-elikagaien sistema aldatu eta Gobernuaren laguntzak ia desagertu egin ziren. Ondorioz, 2 milioi baserritar baino gehiagok migratu behar izan zuten, milioika mexikar gosez joaten dira ohera, eta herrialdeak elikagaiekiko duen menpekotasuna urtero handitzen doa. Ezin dugu ahaztu soroa elikagaiak eskuratzeke iturri izan dela beti, eta mexikar familientzako biziraupen modu nagusietako bat dela.

TLCANarekin Mexikon sartu ziren multinazional handiek giza baliabideen suntsipen eta baliabide naturalen hondamendi ikaragarria eragin dute. Besteak beste, oparaldi ekonomikoa, finantzarioa, politikoa, soziala eta elikadurarena agindu zituzten, baina, egia esan, mexikar emakume eta gizonen bizi-baldintzek okerrera besterik ez dute egin, eta are okerragoak izan dira ondorioak landa-eremuko pertsonentzat.

Euskadin hori gertatzea nahi al dugu? Gure eskubide sozial, ekonomiko, politiko, finantzario eta ingurumenekoak urratzen dituen itun bat abiarazi nahi al dugu Europan? Kanpokoek gure animaliak, landaredia, mendiak, ibaiak hondatzea eta suntsitu arte kutsatzea, edota gure lurretan haustura hidraulikoa eragitea nahi al dugu? Gure gastronomia aldatu eta ongizatea bermatzen ez duten produktueta oinarritutako elikadura betikotu nahi al dugu? Produktu transgenikoak abisurik gabe jan nahi al ditugu, edo merkatuan beste aukerarik ez dagoelako? Inportazioen menpe dagoen ekonomia bihurtu nahi al dugu?

Galdera asko etortzen zaizkigu burura TIIPak eta CETAk edota antzeko itunek ekarriko zizkiguten balizko onuretan pentsatzean; eta ez dugu inolako onurarik aurkitzen Euskadiko emakume eta gizonentzat. Une batez enpresa edo gizon gutxi batzuri mesede egiten dieten itun hutsak izateaz gain, gaur egun pertsona askok bizi dituzten pobrezia-egoera larrietatik edo gizarte-bazterketatik, bai Estatu Batuetan bai Europan (horietatik asko Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bizi direlarik), irteteko aukerak murrizten dituzte. Baina merkataritza-itun hauek ez dituzte hobekuntzak ekartzen ezta ere egun pobretze-egoera horietan ez gaudenontzat. Aitzitik, ongizateak eta gizarte-baldintzek oro har okerrera egitea aurreikusten da, aipatutako Mexikoko esperientziak eta Latinoamerika, Afrika edota Asiako adibide askok erakutsi duten legez.

Pobreziaren eta desberdintasunen iraunkortasuna ez da ez justifikagarria ez saihestezina, borondate sozial eta politikoa, gure borondatea eta jarduteko erabakia bakarrik behar dira. Pertsona guztiek aldarrikatu dezakegu pobreziaren amaiera, salaketen, mobilizazioen, parte-hartzearen edota gure eguneroko ohituren bidez. Zure esku dago bizitza aukeratzea edo enpresa handiek, kapitala metatzeko helburu bakarrarekin eta gure kontura aberastuz, saltzen dizkiguten gezurrak sinestea. TTIP: bizi ala irentsi.

HERRITARRENGANDIK ERREALITATEA



TTIParen aurrean ere, burujabetza feminista!

EDURNE EPELDE PAGOLA

Bilgune Feminista · 2016/02/29

Lorea, Mugarik Gabeko lagunaren bisita jaso genuen larunbatean, bilgune nazionalean. 2013tik aurrera, batean eta bestean entzun izan dut itun beldurgarri honen berri, baina onartu behar dut orain arte, iskin egin diodala, frustrazioa eragiten zidanez, ez niola arretarik eskaini nahi izan. Goxo baina gordin azaldu zizkigun itunaren aldeak. Europar Batasuna eta Ameriketako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsionarako Hitzarmena, ezkutuari ari dira sukaldatzen. 2016an sinatu nahi dute.

Egun, itunaren edukien %20a bakarrik ezagutzen dugu. Baina badakigu “merkatuak ireki” eta “oztopo ez arantzelarioak” gainditu nahi dituztela. Azken batean, ekonomiaren globalizazioaren bidean, merkatu bat eta bakarra sortu nahi dute bi herrialdeen artean. Alderdi ekonomikoaz gain, eremu soziala, kulturala eta osasun arloan eragina izango duen ituna izango dela argi geratu zitzaigun. Eragina izango du, zergapetzean, elikaduraren eta ingurumenaren inguruko desarautzean, finantza sistemetan eta lan harremanetan bereziki, orain arteko negoziazio kolektiboak arriskuan jarritz. Gure bizitzako eremu eta txirrikitu guztietara iritsi nahi dutela alegia. Guzti hau lortzeko, estatu eta multinazionalen arteko auziak sortzekotan dira, ISDS (Inbertitzaile eta estatuen arteko arazoaren erresoluziorako disposizioa) delakoa sortuz. Zer ekarriko du honek? Estatu batek demokratikoki hartutako erabaki batek, ustez nazioarteko korporazio bat ekonomikoki kaltetuko balu, aipatu multinazionala, nahi izanez gero, herrialde horretako justizia administrazio guztiaren gaintik, nazioarteko arbitrajearako epaitegietara jo ahalko duela erabaki baten zain.

Estatuen botere subiranoa galtzear da eta korporazio transnazionalen hartutako lukete indarra. Ondorioz, burujabetza ekonomiko, politiko eta soziala amets dugun herrialdeok ere multinazional eta korporazioen aurrean bilutsik geratuko ginateke.

Itun honen arrisku eta mehatxuez oharturik, beldurra sentitu nuen. Gure ametsak, helburu politikoak eta milaka nahi eta desio desagertzeko arriskuan jarri zituen sentitutako beldurrak. Jabetu nintzen, bilgune feministako

beste kideen gorputzak ere zurrunago bihurtu zirela, defentsa egoeran kokatu ginen. Orain zer, nola segi, norantz jo. Gure aldaketarako nahia gure kontradorrena baino handiagoa, indartsuagoa eta boteretsuagoa ote zen kezkatu geratu nintzen.

Orain boteretzeaz, burujabetzaz edota osatze feministaz ari garen honetan, ez zaigu gure arteko babes eta elkartasunean sinestea baino geratzen. Erabaki indibidualak, konponbide pertsonalak, aldaketa kolektiboekin bat etortzea ezinbestekoa bihurtu da. Elkarren beharra dugu. Eta eskubideen urraketen mehatxuak sortutako izuak, elkarren beroa inoiz baino sutsuago sentitzera narama.

Gogoan dut larunbat honetan bilguneko bileran elkartu ginenon arteko konplizitatea. Larunbat goiza elkarrekin igarotzeak sortzen digun poza. Beste behin ere oso gustura sentitu nintzen, bilgune txikiko lagunek maitasunez dinamizatutako bileran. Hiru ordu (edo gehiago!) irauten duten hileroko topaketatxo hauetan, plazerez sentitzen ditut bertan gaudenon arteko keinuak, begiradak, ezkutuan, nahigabe gertatzen direnak batzuetan, kontzienteki bestetan. Etxean sentitzen naiz feministekin, familia txikian, handitzen, osatzen eta indartzen egunero. Ia hamabost urte bai, hilero hilero titulu ofizialik jasotzen ez den eskola eder honetan parte hartzen. Gure artean ikas-irakatsi dinamika etengabea. Esker ona eta maitasuna (zer den eta nola definitu argi ez izan arren) sentitzen ditut bilgune feministako eta bertatik ezagutu ditudan lagun feminista guztienganako.

Gu ere ari gara sukaldatzen, sentitu nuen. Errezeta¹ ugari ari gara asmatzen, sortzen eta zergatik ez TTIP-a irentsi eta euskal herri burujabea bizi?

Mila esker Lorea larunbat goiz hau gurekin konpartitzeagatik. Hemen Mugarik Gabekoek 2035a irudikatuz egindako “Emakumeentzako Odisea” bideoa: <https://vimeo.com/124936678>

¹ <https://www.youtube.com/watch?v=YDafHsyyTNk>

Elikadura-burujabetzaren aldeko mugimendua eraikitzen

SAIOA POLO

Mugarik Gabe · 2016/05/22

Apirilaren amaieran ospatu zen “Elikadura 21 Nazioarteko Hizketaldia” Gasteizen, XXI. menderako elikaduraren etorkizunaren eta nekazaritzaren erronken inguruko hitzordua. Biziak izan ziren hiru egunak, eta mundu osoko unibertsitate eta gizarte antolakundetako 450 pertsona baino gehiago bildu ginen, 52 herrialdetatik etorritakoak. Arlo honetan pairatzen ditugun arazo global larrienei buruz eztabaidatu genuen; horretarako erreferentzia izan genituen analisi akademiko zorrotzak, askotan behar beste zabaltzen ez direnak.

Eredu zapaltzailea kritikatzeko duten diskurtsoak ikusezin bihurtzea eta zilegitasuna kentzea —bai akademian eta baita handik kanpo ere—, botere ekonomikoak erabiltzen dituen estrategiak dira, haren alternatiba izan daitekeen edozein eraldaketa prozesu isilarazteko. Horrela, ekonomia fakultateetan merkatu-teokrazia da aukera bakarra, eta agronomia eskoletan elikagai-ekoizpena etekin ekonomikoa handitzera zuzentzen da soilik. Dena den, elite ekonomikoentzat ez da erraza izango gero eta babes sozial handiagoa duten hainbat ahots isilaraztea, honelako hitzorduek frogatzen duten moduan.

Elikadurak kezkatzen gaitu, asko kezkatu ere. Zaila da hain arrotza izatea gure egunerokotasunarekin hain lotuta dagoen zerbait. Elikadurak oso zuzen eragiten die eskubide hori bermatuta ez duten pertsonari, enplegu bat izan arren erosketarako gastuak ondo kalkulatu behar dituzten horiei, beste oinarrizko beharrianak sakrifikatu ez ditzaten. Eta, jakina, pertsona txiroek edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskua dutenek elikagai-bankuetara jo behar dute; halako ekimenek, zalantzarik gabe, erakunde publikoek bere gain hartzen ez duten funtsezko lana gauzatzen dute, baina, bestalde, hein handi batean, elikadurarekin espekulatzen duten enpresa handiekin egindako akordioetan oinarritzen dira.

Elikadurak ere kezkatzen ditu dieta osasungarria eduki nahi duten pertsonak, kontuan hartuta ohartu gabe hartzen ditugun elikagai-gehigarriak, gure osasunarentzako kaltegarriak direnak. Adibidez, palma-olioa edo azukre erantsiak elikagai prozesatu askotan erabiltzeak alarma soziala eragin du azken hilabeteotan, bere garaian pangak edo hegazti-gripeak eragin zuten moduan.

Guraso elkarteek eskola-jantokien kudeaketa eredia salatzen dute; izan ere, eskolei autonomia kentzen die, eta zerbitzua catering-enpresa gutxi batzuen esku uzten du, zeintzuek zalantzazko kalitatezko menuak eskaintzen dituzten². Merkatarari elkarteek ikusten dute aspaldiko dendak ixtera behar-tuta daudela, eta, bien bitartean, kate handiek supermerkatu berriak ireki-tzen dituzte “produktu lokalen” ideia bereganatuta. Mugimendu ekologistak agerian utzi du elikagaien ekoizpen industriala ez dela bateragarria sistema naturalekin. Ohartarazten dute muga biofisikoak gainditu ditugun planeta honetan, datozen hamarkadetan garatzen ditugun elikadura-sistemak era-bakigarriki izango direla espezie gisa bizirauteko dugun ahalmenean.

Diru-laguntzetan oinarritutako nekazaritza-politikaren ondorioz, esplotazio txikiak desagertzen ari dira —nahiz eta politika horiek kontrakoa promesten zuten, hain zuzen—, eta nekazari sindikatuak horren aurka mobilizatzen ari dira. Erakunde publikoek familia-nekazaritza babesten dutela diote, eta, aldi berean, Noviercaskoa bezalako megaproiektuak sustatzen dituzte; proiektu hori Valle de Odieta kooperatibak bultzatutako 20.000 behiko abeltzain-tza-ustiategi industriala da, Europako handiena izango da eta arriskuan jar-tzen ditu Nafarroako 168 familia-ustiategi, EAEko 360 eta Kantauriko kostal-deko beste asko.

Nazioarteko elkartasun antolakundeek eskubide urraketak salatzen dituzte, baita lurra, ura eta haziak pribatizatzen dituzten enpresa transnazionalak de-fendatzaileak jazartzen dituztela ere. Halaber, merkataritza askerako itunen aurka daudela aldarrikatzen dute; adibidez, pasaden astean Kongresuan ez-tabaidatu zen CETA, saldu nahi izan ziguten TTIP edo heldu daitekeen TISA.

Esan bezala, erraza da edozein herritar xume —gizarte antolakunderen batean parte hartu ala ez— identifikatuta sentitzea aipatutako egoeretako batekin edo batzuekin. Izan ere, mugiarazten gaituen arrazoa gorabehera, ideia orokorra da honako hau: ezinezkoa da elikadura eskubidea dela pen-tsatzea, elikadura kontrolatzen duenaren asmo bakarra etekinak handitzea baldin bada.

Horregatik, gizarte kezka areagotzeaz gain, azken urteotan beste sistema bateranzko trantsizioa egiteko proposamenak biderkatu dira gure inguruan. Gero eta pertsona gehiagok hautatzen dute lurra, bere erritmoa eta ekoiz-

2 Informazio gehiagorako www.gureplateragureaukera.eus bisitatu

pen aukera osasungarriak errespetatzen dituzten produktu agroekologikoak kontsumitzea; gero eta jende gehiagok erabakitzen du auzoko dendetan erostea saltoki handietara jo beharrean, auzoei bizitza emanez; gero eta gehiagok sustatzen dituzte proiektu kooperatiboak, non elikagai ekozilek eta kontsumitzaileek bien beharrei egokitutako harreman zuzena ezartzen dute. Gero eta gehiago dira landa-eredu baten aldeko apustua eginda eta ikuspegi agroekologiko batetik, baldintza duinetan lanean jarraitzeko aukera topatzen duten nekazarien aukerak, baserriko ezagutza tradizionala berreskuratzen parte hartuz, baina prozesuari ikuspegi feminista gehituta. Halaber, badaude gobernu lokalek sustatutako apustuak: politika publikoak garatzen dituzte, proiektu agroekologikoen bidez bertako ekonomia berpizteko helburuarekin.

Nabarmena da gero eta pertsona gehiagori, lurra landu ez arren, landan gertatzen dena axola zaigula. Gero eta gehiago gara nekazariei rol soziala aitortzen diegunak eta haien arazoak gureak ere badirela uste dugunak. Erroman, 1996an, hegoaldeko eta iparraldeko nekazariak ados jarri ziren lehen aldiz eta, lehiatu ordez, beren ahaleginak aliantzak sortzeko eta desagerrarazi nahi zituen sistemaren aurkako mugimendua eraikitzeko baliatu zituzten. Orain ere borrokak gurutzatzeko beharra dago, pertsonen — bereziki emakumeen— esplotazioan oinarritzen den alferrikako ereduari erantzuteko. Elikadura-burujabetzaren bidean aurrera egiteak bi gauza eskatzen dizkigu: batetik, mugimendua eraikitzen jarraitzea, eta bestetik, sistema zapaltzaile neoliberalaren ondorioak pairatzen dituzten bestelako sektoreekin aliantzak ezartzea.

Datorren uztailan bide hau urratzen jarraitzeko aukera izango dugu Derion (Bizkaia), bertan ospatuko baita Via Campesinaren VII Nazioarteko Konferentzia. Oinarrizko aldarrikapenak egingo ditugu; besteak beste, elikadura eskubidea dela eta ez salgaia, edo eredu sozioekonomikoa pertsonen zerbitzura egon behar dela, eta ez alderantziz. Esango dugu gakoa dela elikadura-sistemen eta ekonomia osoaren birkokapena elikadura-eskubidea eta gainerako oinarrizko eskubideak bermatzeko. Orainaldiaz eta etorkizunaz kezkatuta gauden mundu osoko antolakundeek hausnartzen eta ekiten jarraituko dugu, guztiontzako elikadura-burujabetzaren izenean.

TTIP eta CETA: bizitzaren aurka kapitalak hasi duen azken gudua

M^a ÁNGELES FERNÁNDEZ

Pikara Magazine · 2016/10/18

Joan de larunbatean, milaka pertsona manifestatu ziren Estatuko hogeitik gora hiritan Europar Batasunak sustatzen dituen merkataritza askeko itun berrien aurka. Bai Estatu Batuekin negoziatzen ari den TTIPa, bai Kanadarekin dagoeneko itxita eta berresteko dagoen CETA azken belaunaldiko itunak dira, gizarte- zein lan-arloan eta, hortaz, bizitzan eragina izango duen erregulazio berri bat sortuko dutenak.

‘Erresistentzia udazkena’ izeneko protesta eta manifestazioak deitu dituzten erakundeek diotenez, “pobreziaren eta desberdintasunaren eragileak errotik kentzeko erabakiak politikoak dira, eta negoziatzen ari diren merkataritza-itunek gutxi batzuk aberasteko eta desberdintasunak handitzeko soilik balioko dute”. Eta genero-desberdintasuna, desagerrarazi ordez, sakondu egingo da.

Nahiz eta politika ekonomikoetan adituak ez izan, ohartzen gara, itun hauen helburua irabazi ekonomikoen trabak mugatzea izaki, zaintzak³, ekonomia feministaren gakoetako bat, are ikusezinagoak izango direla; eta emakumeen bitzta zein sorbaldak lotsarik gabe zapalduko dituztela. Menpeko izaki garen heinean bizi nahi badugu, zainduko gaituen norbait beharko dugu. Eta, bihotz-kontuak! ama, arreba, amona, alaba, neska-laguna, emaztea edo biloba izan ohi da zaintzailea; baita lehengusina ere!

Muga-zergak nekez aurki daitezkeen egoera ekonomiko honetan, gizarte-eskubideak, lan-eskubideak eta ingurumenaren zein osasunaren babesak dira irabazi-asmo neurrigabea lortzearekin tematuta dauden printzipiorik gabeko konpainia handiak geldiaraz ditzaketen bakarrak.

Kapitalaren estrategia berria dira belaunaldi berriko itun konplexu, opaku eta suntsitzailer hauek, araudiak lehertzeko eta haien interesetara moldatzeko asmoa dutenak. Adoración Guamán Unibersitat de Valènciako Zuzenbide irakasleak hainbatetan azaldu duen bezala, TTIP eta CETAREN bihotza kooperazio arautzailea da, egungo arau demokratikoak alde batera utzita araudi

3 <http://www.pikaramagazine.com/2015/01/las-que-ayudan-a-vivir/>

berria ezarriko duena. “Merkataritza askearekin baino, zerikusi gehiago dute inbertsioarekin eta, batik bat, erregulazioarekin. Herritarren erabaki-ahalmena ahalik eta gehien murrizteko estrategia bat da”.

Erregulazioaren homogeneizazio horren ondorioz, adibidez, lan-arauak berdinduko dira, enpresen mozkinak mugatzen dituzte-eta. Datu beldur-garri bakar bat: Estatu Batuek Lanaren Nazioarteko Erakundearen hamabi hitzarmen soilik berretsi dituzte, bakar bat ere ez askatasun sindikalari edo negoziazio kolektiboari buruzkoa. Lan-harremanen desregulazioak gora egiten jarraitzen badu, gertatu ohi den legez, emakumeak modu bortitzagoan kaltetuko ditu. Eta, horren harira, beste galdera bat: zer gertatuko da lana eta familia bateragarri egiteko ahalegin mediatikoekin? edo amatasun- eta aitasun-bajekin?

Zerbitzu publikoak, halaber, arriskuan daude, geroz eta urriagoak eta kalitate okerragoak diren arren. Yolanda Jubeto ekonomialariak azaldu du zerbitzu publikoak⁴ “emakumeentzat funtsezkoak direla, emakume asko enplegatzeaz gain, tradizionalki emakumeei egokitutako zerbitzuak ematen dituztelako. Horren guztiaren ondorioz, emakumeen lan-karga handitu egiten da, zama osoa familien gain uzten den krisi-garai honetan; izan ere, familia da murrizketa gehienak eusten dituen euskarrietako bat”.

Gizarte-zerbitzuak desagertzen edo ahultzen direnean, emakumeek hartzen dituzte beren gain ordaindu gabeko zaintza-lan ikusezin eta gutxietsi horiek. Bestetik, Lina Gálvez ekonomialariak gogorarazten digu emakumeek ordaindu gabeko lanaren %70 egiten dutela; ahaztu gabe sektore publikoko enplegatu⁵ gehienak emakumeak direla.

Hortaz, mehatxu anitz ditugu inguruan. Eta ezin dugu urratze demokratikoa ahaztu. Izan ere, oraingoz, Europako biztanleria TTIPa negoziatzeko prozesutik kanpo gelditu da; Europako Batzordea prozesuaren buru da eta Batzordeko parlamentua alde batera utzi du. Gardentasun eta informaziorik eza dira itun hauek utzi dituzten lehen ondorioak, oraindik berretsi edo indarrean sartu ez badira ere. Zalantzarik gabe, atzerapauso bat dira demokraziari eta herritarren parte-hartzeari dagokionez, eta horixe da azken urteotan europar gizarte-mugimenduek sutsuki aldarrikatu dutena.

4 <http://www.pikaramagazine.com/2012/12/la-economia-feminista-desnuda-al-capitalismo/>

5 http://www.eldiario.es/sociedad/claves-situacion-laboral-mujeres_o_235877254.html

Analisia egiterakoan ezin dugu ahaztu genero-berdintasunaren arloan lortutako aurrerapausoak aurrerapen demokratikoen eskutik iritsi direla. Zer gertatuko da orduan atzera egiten badugu? Eta are lazarriagoa dena: Estatu Batuek ez dute berretsi⁶ Emakumeen aurkako Diskriminazio Era guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW, ingelesezko sigletan). Benetan sinesten al dugu herri hau dela Europaren kide onena?

CETA eta TTIPa onartuko balira, bizitzaren jasangarritasuna gorputzak eta arimak altxatzen, mimatzen eta zaintzen dituzten esku lagunen mende geldituko litzateke, finantza-ekonomia ez baita gai horiek zenbakitan emateko ere. Nolanahi ere, harentzat hutsaren hurrengo dira.

Orain inoiz baino premiazkoagoa da ekonomia feministak europar protesta-ren ahotsa, milioika emakumeren sorbaldak zapalduz eraikiko diren merkataritza libreko itun hauen aurkako oposizioaren ahotsa, berreskuratzea. Oihu egiteko ordua iritsi da: produkzioak ezin du erreprodukzioa menperatu! Gu-
dua irabazi dezakegu, argudioak soberan ditugu-eta.

6 <http://www.pikaramagazine.com/2015/01/el-ttip-contra-las-mujeres/>

TTIP ETA OSASUN ESKUBIDEAK. MEDICUS MUNDI

CETA eta osasunaren pribatizazioa

MARIO FERNÁNDEZOSALDEko kidea eta Osasunaren Aldeko Euskal Foroa · 2017/04/07

Donald Trumpek hauteskundeak irabazi eta gero, badirudi Amerikako Estatu Batuen eta Europar Batasunaren arteko TTIP akordioa (Merkataritza eta Inbertsiorako Akordio Transatlantikoa) izoztuta geratu dela. CETA (Kanadarekin Merkataritza eta Ekonomia Akordio Integrala), ordea, Europar Parlamentuan berretsi zen otsailaren 15ean, 2009. urtetik zortzi urtez sekretupean negoziatzen egon eta gero. Itun honen helburua Kanada eta Europar Batasunaren arteko muga-zergak ezabatzea eta zerbitzu eta produktu-inbertsioen salerosketa erraztea izango da. CETAREN alde 408 eurodiputatuk bozkatu zuten, eta 254 kontra agertu ziren. Espainiar Estatuko alderdiei dagokionez, PP, PSOE, Ciudadanos eta EAJ alde agertu dira, eta kontra Podemos, EH Bildu, IU, ICV, ERC eta Equok bozkatu dute. Hurrengo urratsa, Estatu bakoitzeko parlamentuek behin-betiko onarpena ematea izango da.

CETArekin, beraz, 500 milioi kontsumitzailearen merkatua irekiko da, eta horri gehitu behar diogu Kanadak AEB eta Mexikorekin akordioak dituela, NAFTAren bidez (Ipar Amerikako Merkataritza Askeko Akordioa). Izan ere, Estatu Batuek CETA erabiliko dute euren ekonomia Europako merkatuan sartzeko, jatorri estatubatuarra duten enpresa transnazional ugari egoitzak dituztelako Kanadan. Eta CETAREN bidez, enpresa estatubatuar horiek Europan negozioa egiteko aukera berbera izango dute. Estatu Batuetako enpresa handien %80ak nolabaiteko parte-hartzea du Kanadako enpresetan.

TTIP akordioarekin salatu dugunez, CETA ere mehatxu handia izango da Espainiar Estatuko eta Euskadiko osasun-sistema publikoentzat. Itun bietan arlo guztietako arauak parekatu nahi dituzte, beti ere, behetik joz: osasunean, ingurumenean, lan esparruan, arlo sozialean, zergetan eta abar. Akordio bien helburu bakarra enpresa handien inbertsio, komertzio eta botere-harremanak indartzea baino ez da, euren jarduerari ateak zabalduz, eta arau gutxiago ezarriz.

2016ko maiatzean, hots, orain dela urtebete, Europako Kontseiluak bere adierazpenetan onartu zuen akordio bien arteko antzekotasuna: “CETA erreferentzia akordioa da... Gure helmuga elkarrizketa bietan antzekoa da: nazioarteko akordio bat lortzea gure enpresek merkatu transatlantikoan erraztasun gehiago izan ditzaten, hazkundera eta enplegua sortuz”.

Europako Parlamentuan CETA bozkatzeko ari zirenean bitartean, “ATTAC España” elkarteak honakoaz ohartarazi zuen: “CETAk gobernuen gaitasuna mugatu du zerbitzu publikoak sortu, zabaldu eta erregulatzerako orduan. Gobernuak ezin izango du atzera egin liberalizazio-prozesuetan edo porrota egin duten pribatizazioetan. Sendagaien preskripzioa garestiagoa izan daiteke eta eragin kaltegarria izan dezake oinarriko eskubideak diren pribatutasun eta datuak babesteko eskubidean.

Halaber, Europar Batasunak eta Kanadak mugak izango dituzte gehiegizkoak diren patenten kontra aritzeko. EFPIAren (Farmazia-Industriaren Europako Federazioa) eta Farmaindustriaren (laborategien patronala eta Espainiako farmazia-industriaren lobby nagusia) arteko azken bilera oso argigarria izan da, batez ere ezagututa patenten alde eta generikoen kontra Espainiar Estatuan egiten duten borroka hertsia: “CETAri esker, besteak beste, farmazia-testuinguruan jabetza industrialari babesa handitu ahal izango diogu”.

OMC “Organización Médica Colegial” taldeak kaleratzen duen *Médicos y Pacientes* argitalpenaren arabera, *Osasun Aktan (16/02/2017)* jasotakoa, “CETAk sendagaien kostuak are gehiago handituko ditu, hainbat arrazoiengatik. Besteak beste, patentearen iraupena handitzeko sistema berri bat sortuko du, eta, horren eraginez, sendagai berrien kaleratzea gutxienez bi urtez atzeratuko da”. Horrez gain, kontuan hartu behar dugu “Estatu Batuen ostean, munduko sendagairik garestienak Kanadan daudela”.

Beste alde batetik, CETAREN erruz, zerbitzu publikoetan pribatizazio gehiago gerta daitezke, eta, gainera, zerbitzu bat pribatizatzen denean, ez du utziko berriro ere arlo publikora atzera bueltatzea, Madrileko Erkidegoan gertatu den bezala, hainbat mobilizazio eta epaitegien sententziak eta gero. Edo Alzirako Ospitalean gertatu den moduan, Valentziako Gobernuak pribatizazioari buelta ematen hasi dela.

Ezkutuan egin dituzten CETAren negoziazioan, Europar Batasuneko hamaika estatuk (tartean, Espainia) euren zaintza-zerbitzuak liberalizatzeko –hau da, pribatizatzeko- konpromisoa hartu dute, nagusien arreta erresidentziala kasu.

CETArri esker enpresa multinazional handiek inolako mugarik gabe kontratazio publikoetan parte hartu ahal izango dute. Gauzak horrela, gobernuek ez dute aukerarik izango tokiko hornitzaileak edo irabazi asmorik gabeko elkar-teak babesteko, arlo publikoaren lanpostuak enpresa pribatuen esku utziz, horrek dakarren lan baldintza prekarioekin.

TTIP akordioarekin gertatzen den moduan, CETAk ere bitartekaritza epai-mahaiak sortzea aurreikusten du, ISDS/ICS delakoak: justizia paralelo eta pribatizatua, Estatuetak sistema judizialeatik kanpo, enpresen eta Estatu-ten arteko gatazkak konpontzeko. Enpresa handiek eskubidea izango dute Estatuak salatzeke euren interesen kontra arauak onartzen direnean, eta Estatuek agian isun erraldoiak onartu beharko dizkiete enpresei.

Herritarrek jakin behar dute CETAk osasun-zerbitzu publikoen pribatizazioa ekarriko duela eta horrek hainbat arrisku dituela, herritarren osasunean eragina izango duelako. Era berean, gure ordezkari politikoei eskatu behar diegu jarrera demokratikoa izan dezatela eta herritarren osasuna eta ongizatea gu-txiengo baten interes ekonomikoen gainetik lehenetsi dezatela..

ESPERIENTZIETATIK IKASKUNTZARA



Merkataritza Askerako Itunen arkitektura eta gizarte-mugimenduak

ADORACIÓN GUAMÁN

Gizarte-Zientzietan eta Zuzenbide administratiboan doktorea eta Unibertsitat de València n Lan Zuzenbidean eta Gizarte Segurantzako irakaslea

Merkataritza- eta inbertsio-itunek oihartzuna izan dute hedabideetan, eta eztabaida politikoaren parte izaten hasi dira. Europar esparruan lehen aldiz, hizpide dira komunikabide anitzetan estatu-inbertitzaile desadostasunak ebazteko mekanismoek herritarren eskubideengan izan dezaketen eragina, belaunaldi berrietako itunek nekazaritzan edo enpleguan sor ditzaketen arazoak, edota sor-markentzako eragin dezaketen mehatxua. TTIP, CETA edo TISAren⁷ gisako siglak gizarte-mugimenduen, sindikatuen edo alderdi politiko-koen eztabaiden parte bihurtu dira.

Arreta honen guztiaren meritua, zalantzarik gabe, AEBen eta Europar Batasunaren arteko itunaren (TTIP) negoziazioak sortutako eztabaidak dauka. Horrelako itunak berrestek alderdi sinatzaileen sistema juridiko eta ekonomikoentzat —eta, bereziki, herritarren ongizatearentzat— ekarri ditzaketen ondorioei buruzko eztabaida hauspotu dute, hala nola, honako faktoreek: auzian inplikaturako agenteen ageriko garrantzia, sortu nahi duten merkataritza askeko eremuaren pisu ekonomiko eta komertziala, izaera arau-emaileko eduki berriak gehitzea eta atzerriko inbertitzaileen interesak babesteko mekanismo arbitrario sendoak sortzea.

Mobilizazioa hainbeste garatu da, non itunen onarpena arriskuan jarri den, eta, jakina, alderdi politikoaren eta gobernuen jarreraren ere izan du eragina; horrek aldaketak eragin ditu EBrekin itunak berresteko negoziatzaileek proposaturako prozedura eta epeetan.

Itun horien kritika sozialak izandako oihartzunaren lehenengo frogak zuzenean eragin zien itunen arbitraje-mekanismoei. 2013ko azaroan, Europako Batzordeak “informazio-fitxa” bat argitaratu zuen; bertan, inbertsioak babesteko eta eztabaidak konpontzeko bere jarrera azaltzen zuen. Halaber, fitxa

7 TTIP ituna AEBen eta Europar Batasunaren arteko Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoa da; CETA ituna Kanadaren eta Europar Batasunaren arteko Ekonomia eta Merkataritza Akordio Globala da; TISA beste 22 herrialderekin negoziatzen ari den Zerbitzuen Salerosteari buruzko Akordioa da.

horretan berriz ere borondatea agertzen zuen arbitraje-sistema “hobetzeko”, gardentasunari buruzko klausulekin, arbitroentzako jokabide-kode lotesle batekin eta bestelako aldaketekin. Hala ere, ez zuen asmorik ISDSen (*investor-state dispute settlement* edo inbertitzaile eta estatuaren arteko ezberdintasunen arbitrajea) eredu eta funts ohikoena eta tradizionalena aldatzeko: batetik, herrialde hartzailearen eredu juridiko-politikoarekiko mesfidantza; eta bestetik, inbertsioa jasoko duen Estatuan indarrez egindako «desjabetze dramatikoak», lizentzien baliogabetzeak, abusuak eta diskriminazioak gertatzeko aukerak. Europako Batzordeak bere proposamena mantendu zuen CETA itunean, baina ISDSari buruzko polemika areagotzeak kontsulta publiko bat egitera behartu zuen Batzordea, inbertsioen babesari eta TTIParen ISDSari buruzko kapituluaren inguruan. Kontsultaren emaitza 2015eko urtarrilaren 13an argitaratu zen⁸. Kontsultak 149.399 erantzun jaso zituen, bereziki ISDSaren aurkako jarrera argia islatzen zutenak⁹. Gainera, Europako Parlamentuak, 2014ko uztailaren 8an onartu zuen TTIPari buruzko Ebazpean, estatu-inbertitzaile desadostasunak ebazteko mekanismoak aldatzeko exijitu zuen. Kritika horiek saihesteko eta Parlamentuaren babesa lortzeko, Europako Batzordeak 2015ean desadostasunak ebazteko mekanismoak aldatzea proposatu zuen; proposamenari ICS (Investment Court System) deitu zion eta CETA sartu zen, nahiz eta bere testua 2014ko irailean bukatutzat eman zen. Proposamen berriak akademiko askoren kritika sendoa jaso du, eta azpimarratu dute aldaketa horiek ez dutela balio estatu-inbertitzaile desadostasunak ebazteko mekanismoek plazaratzen dituzten bi arazo handiak konpontzeko: batetik, bateraezina dela atzerriko inbertitzaileak horrela babestea EBko sistema juridikoarekin eta EBko herrialdeen tradizio konstituzionalekin, eta, bestetik, bi aldeetako gizarte-, ingurumen- eta lan-estandarrik arautzeko eskubidearen gaineko eragin negatiboak. Oraindik eztaba-dagai diren kontuak dira izozte-efektua, arautzeko eskubidetik “arautzeko beldurrera” pasatzea, eta pribatizazioak lehengoratzeko debekua edo herri-tarren eskubideen babes-estandarrik igotzeko debekua. Hortaz, gehiengo sozialen eskubideen aurkako mehatxuek bere horretan jarraitzen dute.

8 http://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2015/march/tradoc_153304.pdf

9 Dirudienez, Espainiako Ekonomia Ministerioko Merkataritza Idazkariak ez du irakurketa hori egiten. Idazkari honek informazio-orri bat argitaratu zuen TTIP-ari buruzko edukiaz, kontsultaz eta haren emaitzaz, non honakoa esaten zuen: «Alderdi konkretuei buruzko iritziei dagokienez, emaitza, modu inpartzialean begiratura, ez da bereziki eztaba daezina, inbertsio akordioen edukien inguruan aski ezaguna den iritzi aniztasuna dago». Gustu guztientzako iritzi «inpartzialak» egon badaude... Testua eskuragarri dago hemen: <http://www.comercio.gob.es/es-ES/comercio-exterior/politica-comercial/relaciones-bilaterales-union-europea/america/PDF/TTIP/150220%20DC%20ISDS%20oen%20CETA-TTIP.pdf>

Gainera, eta legezkotasun zurrunaren ikuspegitik egin daitezken kritikez harago, txosten askotan frogatu izan da ICSak ISDSarekiko dituen ezberdintasun txikiek ez dituztela konpontzen arbitraje pribatuari lotutako arrisku gehienak. Izan ere, ISDSaren arazo nagusiak honakoak dira:¹⁰ atzerriko inbertitzaile batek, definizioz, inbertitzaile nazional batek baino eskubide gehiago izatea, edo demokratikoki zilegi diren arauak ezartzeagatik estatuak salatu ahal izatea, eta salaketa horiek auzitegi normaletara ez bideratzea; horrek guztiak berdin dirau.

Kritikak izandako bigarren oihartzunak bete-betean eragin dio TTIPa negoziatzeko eta onartzeko uneari. Itun hori bi aldeentzako funtsezko helburu politikotzat jo zen. Europako Batzordeko presidentek bere agintaldiko hirugarren lehentasun gisa¹¹ kokatu du TTIPa sinatzea lortzea, eta, bien bitartean, Obama administrazioak TTIPa eta TPPa sustatzeari ekin dio modu nabarmenean. Akordioa laster lortzeko, eta 2013ko agintaldiko edukiari buruz, orain arte 15 negoziazio-bira egin izan dira; azkenengo negoziazioetan areagotu egin ziren gai eztabaidagarriak. Nabaria izan zen ezadostasun sakona zegoela, besteak beste kontratazio publikoari eta sor-markei buruzko gaitan, eta estatu batzuen mesfidantza biderkatzen hasi zen. Azkenik, Sygmar Gabriel kantzilerorde sozialdemokrata alemaniarrek eta Feck merkataritza ministro frantsesak, hasieran itunari adierazitako babesetik urrun, irailean komunikabide askotan adierazi zuten TTIPa ez aurrera ez atzera zegoela. Adierazpen horri buruzko analisi zabalduenaren arabera, posizio-aldaketa taktikoa zen, CETA ituna bizkor sinatu eta behin-behinean ezartzea helburu zuena.

Hain zuzen, Kanadarekin egindako Akordioa izan da gizarte-mobilizazioek itun horiengan izan duten eraginaren hirugarren froga. Datozen orrialdeek akordio horri eskaintzen diote arreta.

Ekonomia eta Merkataritza Akordio Globala (CETA) makro-akordio bat da, Europar Batasunaren eta Kanadaren artean negoziatu dena, eta, TTIPa bezala, belaunaldi berriko akordio komertzial gisa hartu izan da funtsezko bi arrazoirengatik. Lehenik, akordioaren helburu nagusia ez da muga-zergak murriztea merkataritza askerako itun konbentzionaletan bezala; aitzitik, helburu du bi aldean araudiak batzea, merkataritza eta inbertsioa sustatzeko

10 Besteak beste, ikus CEO (2016): The zombie ISDS. http://corporateeurope.org/sites/default/files/attachments/the_zombie_isds_0.pdf; BEUC (2015): From ISDS to ICS: Still a long way to go. <http://www.beuc.eu/blog/from-isds-to-ics-still-a-long-way-to-go/>

11 [http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/BRIE/2015/558346/EPRS_BRI\(2015\)558346_EN.pdf](http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/BRIE/2015/558346/EPRS_BRI(2015)558346_EN.pdf)

ezinbesteko baldintza gisa. Bigarrenik, atzerriko inbertsioen babesak garrantzi handia du itunean; horrek, ikusiko dugunez, eragin handia du bi alde kontratatzaileek legeak egiteko duten ahalmenean, eta, halaber, barne-mailako eragin juridiko asko ere baditu.

Merkataritza askeko eremu bat sortzeko lehenengo hizketaldiak 2002an Ot-tawan egindako Kanada-EB Konferentzian eman ziren; hala ere, 2009an hasi zen CETA formalki negoziatzen. Sei urtez ezkutuan negoziatu ostean, 2014ko irailaren 26an formalki iragarri zen negoziazioen bukaera, eta, azkenik, ordu-ra arte sekretupean gordetako akordioaren testua argitaratu zen. Ia bi urte geroago bukatu zen CETAREN testuaren berrikuspen juridikoa, eta 2016ko otsailaren 29an argitaratu zen behin-betiko bertsioa. 2016ko uztailean, Europako Batzordeak formalki proposatu zion EBko Kontseiluari Akordioa behin-behinean sinatzeko eta ezartzeko.¹² Gainera, aipagarria da CETAREKIN batera EB bigarren akordio bat negoziatzen ari dela Kanadarekin: Kanada eta Europar Batasuneko estatu kideen arteko Elkartze Akordio Estrategikoa (AAE)¹³.

Berresteko bide erraza izan nahi zuena oztopo-lasterketa bihurtuz joan da Europako Batzordearentzat. Hasiera batean arazorik gabeko erabakia proposatzen zen; bereziki, Sygmar Gabrieleke eta Chrystia Freelandek (Kanadako Merkataritza Ministroa) elkarrekin egindako adierazpenaren ostean, irailaren 18an sinatu zena. Adierazpen horretan —azpimarratuz CETAK bi aldeentzat izango zituen onurak eta etorkizunera begira izango zuen “erreferentziatzeko itun” izaera— bi ministroek bereziki nabarmendu zuten “CETAK jada ez duela arbitraje sistema bat, baizik eta legearen inperio-izaeran oinarritzen den ‘justizia’-sistema bat (...) eta akordioaren helburu den trabak ezabatzeak

12 Estrasburgo, 5.7.2016 COM(2016) 444 final 2016/0206 (NLE). KONTSEILUAREN ERABAKI proposamena, Europar Batasunaren izenean Ekonomia eta Merkataritza Akordio Globala (Kanada eta Europar Batasuneko estatu kideen arteko) sinatzeari buruzkoa.

13 2010eko abenduaren 8an Kontseiluak Erabaki bat hartu zuen, Europako Batzordeari eta Batasuneko atzerri-eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaritari baimena emanaz akordio marko bat negoziatzeko, Europar Batasuneko estatu kideen eta Kanadaren artean. Elkartze Akordio Estrategiko deitutakoari buruzko negoziazioak 2011ko irailean hasi ziren, Europako Parlamentuaren txostena 2013ko abenduaren 10ean bidali zen, eta 2014ko irailaren 8an berretsiz bukatu zen. 2015eko apirilaren 13an Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek eta Europako Batzordeak proposamen bat aurkeztu zuten elkarrekin, Kontseiluaren Erabakiarena, Akordioaren behin-behineko ezarpenari buruzkoa eta Europar Batasunaren izenean sinatzearen ingurukoa. Hala ere, AAE honen behin-behineko ezarpenari buruzko ezadostasunak direla eta, testua oraindik ez da berretsia. 2016ko urriaren 13an COREPERek (Ordezkaritza Iraunkorren Lantaldea) Kontseilua gonbidatu zuen Akordioa sinatu eta behin-behinean ezarri ala ez erabakitzea. Akordioari eranskinak gehitu zizkion COREPERek, CETAREKIN eta bere berrespen prozesuarekin lotura zuzena zutenak: 23. artikuluari buruzko deklarazio bat, bisei buruzko elkarrekikotasunaren ingurukoa, eta 13. artikuluari buruzko beste deklarazio bat, adierazpen geografikoen ingurukoa.

kontsumitzaileen, langileen eta ingurumenaren babes-maila altua ziurtatuko dute, eta Enpresa Txiki eta Ertainei onura ekarriko die”.

Hala ere, CETAr egindako kritikak biderkatu egin dira, eta zenbait estaturen mesfidantzak europar politikaren gai handietako bat bihurtu dute. Itunaren azken txanpak agerian utzi ditu ezadostasunak daudela estatu kideen eta Kontseilu zein Batzordearen artean, eta baita EBko familia politikoko handien barruan ere; Alemaniako Konstituzio Auzitegiaren mesfidantza ere lortu du.

Mesfidantza hauetatik hasita, aipatu beharra dago Die Linke-ren eta zenbait gizarte-mugimenduren ekimenaren ondorioz, Alemaniako Konstituzio Auzitegiak bere iritzia azaldu behar izan duela, Alemaniari CETA sinatzea galarrizko liokeen kautelazko eskaera baten harira. Auzitegiak deuseztatu duen arren halako kautelazko neurriak hartzea, era berean, esan du CETAk badituela xedapenak behin-behinean ezartzea galarazten dutenak (indarrean jartzea estatu kideek berretsi baino lehen), Alemaniako “konstituzio-nortasunari” eragiten dielako. Zentzu horretan, Auzitegiak bere ebazpenean Alemaniako gobernuari exijitzen dio beharrezkoak diren erreserbak finkatzea, horrela, behin-behinean aktibatu daitezkeen soilik estatu-eskumenei ez dagozkien akordioaren parteak (CETAREN 8. eta 13. kapituluak, inbertsioak; 14. kapituluak, itsas garraioa; 11. kapituluak, kalifikazioen elkar ezagutza; eta 23. kapituluak, lan-estandarrei dagokiena). Halaber, Auzitegiak zuhurtasuna adierazi du CETAREN Batzorde Mistoak dituen botere zabalei dagokienez; horren harira, esan du erakunde arteko akordio bat behar dela itunaren testuari gehitzeko, eta bertan jasota egon behar dela Batzorde Mistoak ezin dituela CETAREN eranskinak aldatu, Kontseiluak aho batez hala erabaki ezean. Hortaz, ulertu behar da Auzitegiak baldintza jakin batzuk ezarri dituela, eta Alemania, zalantzarik gabe, ezinean ari dela baldintza horiek Batzordearekin negoziatzen.

Alemaniaz harago, Valonia ezezko irmoagoan mantendu da CETAr dagokionez, Belgikaren baiezkoa eragotziz, Europako Batzordearen, Europako Parlamentuaren presidentearen eta beste herrialdeen —bereziki, Alemaniaren— presioak gorabehera. CETA bide korapilatsu batean sartu da: akordioarekin gertatzen dena gorabehera, Belgikaren beharrezko abstentzioa gaindituta behin-behinean indarrean jartzen bada ere, guztiz ezinezkoa dirudi EBko estatu kideen prozesuan berrestea.

Hiru egoera horiek frogatzen dute, zalantzarik gabe, mobilizazio soziala gai dela horrelako itunak geldiarazteko, eta alderdi politikoei eta estatuburu

nabarmen eragiten diela eta beren jarrerak aldatu ditzaketela. Hala ere, CETA ezartzeko prozesua eta TTIParen negoziazioa gelditu diren arren, nahiz eta horrek guztiak TISari eragin dakioken, beharrezkoa da adieraztea arazoa ez direla itun horiek, baizik eta Europar Batasunaren merkataritza politika bera.

Izan ere, makro-akordio horiek (TTIP, CETA, TISA) iceberg erraldoiaren tontorrik berriena baino ez dira; izan ere, inbertsiorako edo elkartzeko ekonomikorako merkataritza akordioz eta aldebiko itunez —indarrean edo negoziazio bidean— osatutako sare gero eta zabalago eta konplexuago batek osatzen du. Itun asko dira, eta hamarkadak daramate Iparraldeko herrialdeetatik sareten Hegoalde Globalaren kontura; jada ez dira soilik merkataritza arautzeko tresnak, baizik eta Europar Batasunaren kanpo-politikarako ezinbesteko elementuak. Zentzu horretan, garrantzitsua da gogoratzea EBk biziki negoziatu dituela eta negoziatzen jarraitzen duela merkataritza itun ezberdinak mundu osoarekin, baina EBko herritarrek ez dituzte itun gehienak eza-gutzen¹⁴. Merkataritza harreman guzti-guztiak aipatu gabe, interesgarria da honakoak azpimarratea:

- Asiako herrialdeekin: hala nola, Singapur, Malaysia, Vietnam, Thailandia, Filipinak, Myanmar, India edo Japoniarekin. Hego Korearekin behin-betiko ituna 2015eko urrian hartu zen.
- Latinoamerikarekin: Andeen eskualdean, Kolonia eta Perurekin egindako negoziazioak 2010ean bukatu ziren, eta akordioak 2013tik ezartzen dira; Ekuadorrek akordio hori eskuratzea berrespen prozesuan dago. Mercosur-ekin negoziazioak berrabiarazi ziren 2010ean, eta dagoeneko Txilen, Mexikon eta Erdialdeko Amerikan badaude indarrean dauden itunak.
- Mediterraneoko eskualdearekin. Bertan, EBk Akordio Euro-Mediterraneanaren sarea sortu du 9 herrialderekin, eta Marokorekin DCFTA (Deep and Comprehensive Free Trade Agreement edo Merkataritza Askerako Akordio sakona eta zabala) negoziatzen ari da¹⁵.
- Afrika, Karibe edo Pazifikoko herrialdeekin edo herrialde multzoekin, El-

¹⁴ kuspegi global baterako ikus. http://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2012/june/tradoc_149622.pdf; oraingo negoziazioen laburpen baterako ikus. http://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2006/december/tradoc_118238.pdf

¹⁵ Testu horiek lotura dute EBrekin inplikaturako herrialdeen Elkartze Akordioekin. Testu horietan, liberalizazio maila altuago bat ezartzen da, eta baita integrazio sakonago bat kooperazio legegile arautuaren arloan. Marokorekin egindako akordioaz ikus. AAVV (2015): Accords de libre échange, des accords coloniaux contre les peuples: analyse des accords de libre échange liant l'Union européenne et le Maroc. ATTAC-CADTM, Maroc.

- kartzte Akordio Ekonomikoen bidez (EPA, ingelesezko siglen arabera)¹⁶;
- Ekialdeko herrialdeekin, hala nola Georgia, Moldavia edo Ukrainarekin, DCFTAen bidez.

Sare zabala da, urte askoan eraiki dena helburu komun batekin: merkataritza askea edo inbertsioa zentzu zabalean oztopatu dezakeen hori ezabatzea, hala nola, hesi zuzenak edo zeharkakoak, edo ondorio berdina daukaten neurriak, arau zein eskubide forma dutenak. Horrela, ezin dugu ahaztu, neurri handiago edo txikiago batean, aurreikusitako integrazio-mailaren eta itunaren edukiaren arabera, nazioz gaindiko integrazio ekonomikoaren esperientzia guztiek dakartela, berez, laissez faire absolutuaren ondorio negatiboengatik artikulatutako babes-mekanismoak murriztea, bereziki nazio-estatuaren arloan eta estatu sozialaren forma juridikoan. Gainera, maila ezberdinetan, itun horiek munduko merkataritza arautzea eta inbertsio transnazionala kontrol publikotik emantzipatzea uzten dute. Horrela, herriarrek gai askoren inguruan erabakitzeke duten ahalmena mugatzen da, eta beren eskumenak nazioz gaindiko instantziei ematen zaizkie —kontrol demokratikoaren menpe daudenak, edo harengandik guztiz aske direnak— enpresa multinazionalen interesekiko iragazkortasun handia dutenak.

Errealitate horren adibiderik argiena *lex mercatoria* kontzeptuaren erabilera bidez lortu da; egungo eztabaidan, kontzeptu hori erabiltzen dute Juan Hernándezek eta Pedro Ramirok¹⁷. Egungo merkatuaren lege hori, egiaz, ordena global ekonomiko eta juridiko berri bat da; lege horrek “berriz interpretatzen eta formalizatzen du enpresa multinazionalen boterea. Horretarako, honakoak erabiltzen ditu: nazioarteko ohitura eta erabilerak; estatu nazionalen arauak; eta merkataritza eta inbertsio kontratu, hitzarmen, itun eta arauak, izaera multilateral, eskualdekoa edo bilateral dutenak; arbitraje auzitegien erabakiak; eta Munduko Merkataritza Antolakundearen Ezberdintasunen Arbitrajerako Sistema (ISDS)”¹⁸. Babes juridiko horrek enpresek eskubideak inpunitatez urratu ditzaten utzi du, Hegoalde Globaleko herrial-

16 Akordio hauek aldaketa eragin dute EBren eta herrialde horien merkataritza harremanetan, Afrika, Karibe eta Pazifikoko herrialdeen alde bakarreko merkataritza lehentasunetan oinarritzen zen harremana eteteen. Bere historia eta edukien inguruko hurbilpen tekniko baterako, ikus. Figuerola, B. (2013): “La agenda comercial bilateral de la UE”. ICE, 2013ko azaroa-abendua. N. 875. Ondorioen analisi kritiko baterako, ikus. Berthelot, J., (2016): “L’Accord de partenariat économique UE-Afrique de l’Ouest est absurde et criminel”, en <http://www.sol-asso.fr/analyses-politiques-agricoles-jacques-b/>

17 HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J., RAMIRO, P., (2015) Contra la lex mercatoria, Icaria.

18 HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. (2012) “Lex mercatoria”; OMAL 2012, hemenik jasota: http://omal.info/IMG/article_PDF/Lex-mercatoria_a4803.pdf

deetan bereziki. CETA, TTIP eta TISA urrats bat gehiago dira; izan ere, Iparaldeko herrialdeen ingurumen-legeria eta lan-estandarrak edo osasun publikoarenak korporazio transnazionalen nagusitasunaren logikari irekitzean datza itun horien ezarpena. Horrela, itun multzo hau zuzenduta dago *lex mercatoria* berria ezartzeko eragin politikoa erabili duten korporazio transnazionalen interesei mesede egitera. Korporazio horien interesak geldiarazteko moduen eta alternatibien inguruko hausnarketa zabaldu egin behar da, eta maila globalean enpresa transnazionalen inpunitatea mugatzeko moduen inguruko hausnarketa bihurtu behar da.

Zentzu horretan, ezinbestekoa da gogoratzea 2012an Botere Korporatiboa Suntsitzeko Mundu Kanpaina sortu zela Rio+20 bitartean antolatutako Herrien Goi Bileran; horrek ehunka kanpaina, sare eta gizarte-mugimenduren indarra metatzen du. Berrogeita hamar antolakunde baino gehiagoren ekarpenen bidez, 2014ko abenduan Herrien Nazioarteko Itunaren lehenengo zirrriborroa aurkeztu zen, enpresa transnazionalak kontrolatzeko. Beranduago, 2014ko ekainaren 26ko Erabakian, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak 26/9 Erabakia hartu zuen, eta horrela, "gobernu arteko lantalde bat sortu zen, osaera irekia zuena, enpresa transnazional eta bestelako enpresei buruz giza eskubideei zegokienez. Lantalde horren agindua da tresna juridikoki lotesle bat sortzea enpresa transnazionalen eta bestelako enpresen jarduna Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera arautzeko"¹⁹.

Inoiz baino nabarmenagoa da beharrezkoak direla enpresa multinazionalak kontrolatzeko tresna lotesleak, eta enpresek giza eskubideengan dituzten jarrerek oihartzuna izatea. Halaber, ezinbestekoa da erresistentziak eta alternatibak eraikitzeke eremua mantentzea, erakunde eta nazioarteko itunetatik harago. Horretarako, memoria berreskuratu behar dugu, eta maila transnazionalean estrategia, analisi eta alternatibak partekatu behar ditugu; horretarako, arreta berezia eskaini behar diegu itun horiek Hegoalde Globalean dituzten ondorioei, eta erresistentzia egoera guztiak lotu behar ditugu. NAFTAk (Estatu Batuak, Kanada eta Mexikoren arteko Ipar Amerikako Ituna) edo DR-CAFTAk (Dominikar Errepublikak, Erdialdeko Amerika eta AEBren arteko Merkataritza Askerako Ituna) eskubide sozialetan dituzten ondorioei buruzko ehunka azterlanetan arreta jarri behar da. TTIP eta CETA aztertzeke eta kritikatzeko erreferentzia izan behar dira, batetik, AEB eta Latinoameri-

19 NBERen 26/9 Erabakia, hemendik jasota: <<https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/LTD/G14/O64/48/PDF/G14O6448.pdf?OpenElement>>

kako beste herrialde batzuen arteko merkataritza askerako itunek nekazaritzan edo emakumeen eskubideengan dituzten ondorioen analisiak, eta, bestetik, Latinoamerikako konstituzionalismo berrian itun horien aurrean jarritako oztopoen inguruko konstituzio-doktrina.

Gaur egun jada ezinezkoa da iparralde-iparralde itunen zentsura argudiatzen jarraitzea, Europar Batasunak Latinoamerikako, Afrikako edo Asiako herrialdeekin negoziatu dituen edo sustatzen ari den itunak irmotasunez baztertu gabe. Argentinatik Ghiottok esaten zuen bezala, bai akademiak eta baita gizarte-antolakundeek ere, testuinguru berri baterako alternatibak pentsatzeko betebeharra daukagu, gehiegizko merkataritza-politika honek pertsonen bizitzarako eta ingurumenerako dituen arriskuak azpimarratuz. Edozein borroka alternatibok jada globala izan behar du; izan ere, “gaur, inoiz baino argiago baitago guztiok salbatuko garela, edo dela inor ere ez salbatuko”²⁰.

20 Ghiotto, op. cit.

Hogei urtez merkataritza askearen aurkako borrokan: zenbait hausnarketa Latinoamerikatik

LUCIANA GHIOTTO²¹

Gizarte-Zientzietan doktorea eta ATTAC Argentinako kidea

Merkataritza askearen proposamena ez da berria. Izan ere, liberalismo ekonomikoaren zutabeetako bat da; haren arabera, mundua oparagoa izango litzateke truke askearekin, ondasunei eta zerbitzuei trabarik jarri gabe. Ideia hori oinarri hartu zuen merkataritzaren liberalizazioak, zeina modu progresiboan gertatu zen 60ko urteetatik aurrera, eta bat-bateko gorakada izan zuen 90eko urteetatik aurrera. Gaur egun 250 merkataritza itun baino gehiago existitzen dira munduan; horren arabera, batez beste, munduko herrialde guztiek merkataritza askerako itun (MAI) bat sinatu dute. Halaber, 3.000 aldebiko inbertsio-itun (AII) baino gehiago sinatu izan dira.

Estatuek onartu egin zuten itun mota horiek sinatzea, 90eko urteetan batez ere. Garai hartan, bi gauza hitzematen zituzten nazioarteko erakundeek, korporazio handiek eta haien *think tanke* zein estatu aberatsenek: 1) itunek garapena sortuko zuten, oinarri baitute merkataritzaren hazkundeak estatuaren ekonomia hazkundea ekarriko duelako ideia, eta horrek ongizate orokorra; 2) itunek berme juridikoak emango zizkieten kapitalei, eta, hortaz, itunak sinatzeak atzerriko inbertsioak ekarriko zituen. Hala ere, MAIak eta AIIak masiboki sinatu eta hogei urtera, promesa horiek ez dira bete. *Merkataritzaren liberalizazioak aurrera egin du etengabe, baina ez du ekarri herrirentzako ongizatea haztea*; ez gehiengoarentzat, gutxienez. Ez dugu soilik hori ikasi. Berrikus ditzagun zenbait elementu jada ezagutzen dugunaz, gaur egun merkataritza askearen aurka mobilizatzen diren kanpainez hausnartzen lagundu ahal digute eta.

Lehenengo eta behin, gaur egun badakigu *“merkataritza askeak” ondasunen merkataritza baino askoz gehiago hartzen duela barne*. Aitzitik, merkataritza askeak gutxi du merkatarizatik, eta asko enpresa-negoziotik. Jada ez dago modurik ezkutatzeko MAIak, errealitatean, merkatuak monopolizatu nahi dituzten enpresa kontzentratuenen agendak direla. Horregatik, MAIek libe-

21 Luciana Ghiotto, horretaz gain, FLACSO/RRII-ko ikertzailea da. ATTAC Argentina-ko kidea da, baita “Argentina mejor sin TLC” asanbladakoa ere. Aktiboki parte hartu du ALCaren (Ameriketako Merkataritza Askerako Eremua) aurkako kanpainan.

ralizazio kapituluak dituzte zenbait ataletan: jabetza intelektuala (sendagai, hazi, software eta abarren patenteak), zerbitzuen merkataritza (osasuna eta hezkuntza barne), erosketa publikoak (kontratuak, lehiaketak, etab.), telekomunikazioak, nekazaritza eta inbertsioak. Eta, amaiera gisa, Inbertsio Desorekak Ebazteko Nazioarteko Zentroa (ICSID, ingelesez) bezalako klausulak daude. Haien bidez, atzerriko inbertitzaileek aukera daukate atzerriko auzitegi arbitraletan estatuak salatzen. Gai horiek guztiak, hasteko, ondasunen merkataritza soilaz harago doaz; gaiok, 80ko urteetatik aurrera, “merkataritza gai berriak” izenez hasi ziren deitzen, eta herrialdeentzako negoziazio-agenda gisa sartu ziren Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA).

Egin dezagun parentesi analitiko bat. Merkataritza askeaz ari gara, liberalizazioaz. Baina, zer esan nahi du “aske” terminoak testuinguru honetan? Merkataritza-askatasun progresiboa estatuen funtzio arautzailearen krisia azkartzea da. Funtzio hori ongizate-estatuaren ezinbesteko atala zen bigarren gerraostean; garai hartan, estatuen esku hartzeak inportaziorako muga-zer-ga altuak ezartzen zituen. Horri esker, enplegu beterako joera egon zen, eta “erosketa nazionala” garatu zen, baita “burgesia nazionala” existitzen zelako ideia ere. Dena den, 60ko urteetan desobedientzia lehertzearekin batera, funtzio horren atal bat krisian sartu zen, eta kapitalisten irabazien tasak behera egin zuen (Holloway, 2003). Ondorioz, ekonomia nazioartekotu egin zen, eta enpresa-sareak sortu ziren (transnazionalak), zeintzuek beren ekoizpen-sistemaren zati handi bat berrantolatzen eta azpikontratatzan duten. Horrela, gaur egun liberalizazioaz aritzea, errealitatean, enpresek mugetan zehar egiten dituzten mugimenduei erreferentzia egitea da; horrela, beren irabaziak handitzen dituzte, eta, aldi berean, berrantolaketaren bidez langileen kostua aurrezten dute (Echaide eta Ghiotto, 2007). Gaur egun, “merkataritza askea” akordio-agenda zabal baten sinonimo da, non botere guztia korporazioei ematen zaien kapitala esportatzeko, estatuen funtzioak berrantolatzen diren bitartean.

Bigarrenik, liberalizazioaren hogeituro urteko esperientziak agerian utzi du *MALen garapenerako promesa ez dela bete*. 90eko urteetan esaten zen merkataritza liberalizatzeak —inbertsioen sektorean, bereziki—, garapen bidean dauden herrialdeetan atzerriko kapitalak sartzea bermatuko zuela, eta kapital horiek garapena sortuko zutela. Datu askok, ordea, hipotesi hori gezurtatzen dute. Lehenengo, ikerketa akademiko asko aritu dira frogatzen inbertsio-akordioek eta MALak sinatzeak inbertsio-fluxurik ez diela ekarri herrialde sinatzaileei (Yackee, 2010; UNCTAD, 2012). Izan ere, ikerketek frogatzen dute, ha-

laber, ez direla bete proposatutako garapen-helburuak; esaterako, alde biko inbertsio-itunen sarrerak. Horrek herrialdeek sinatutako tresnak zalantzan jartzea eragiten du, burujabetza eman zelako inoiz heldu ez zen etekin baten truke. Halaber, MAlek ere ez zuten eragin positiborik izan enpleguan eta balioen ekoizpen-kate nazionaletan. Horren adibide da Ipar Amerikako Merkataritza Askerako Itunaren (NAFTA, ingelesez) kasua, ABEen, Mexikoren eta Kanadaren artekoa. Datu gogorrek erakusten dute 1993 eta 2001 artean Mexikok AEBetara egindako esportazioak %229 hazi zirela; aldiz, AEBek Mexikora egindako inportazioak soilik %144 hazi ziren denbora tarte horretan. Dena den, zenbakiak engainagarriak dira. AEBek Mexikora bideratzen dituzten esportazioen proportzio handi bat Mexikora bidaltzen da muntaketarako, eta ez da inoiz Mexikoko etxeko ekonomian sartzen (enplegu gutxi eta kalitate txarrekoa sortuz), baina AEBetara itzultzen da produktu bukatu gisa saltzeko, eta beren prezioa ekoizpen-kostua baino hamar aldiz handiagoa da, gutxienez (Ghio, 2005). *Turista industrialen* esportazio horiek, 1999an AEBetatik Mexikora zihoan “merkataritza” guztiaren %60 ziren.

Merkataritzaren liberalizazioa enpresentzako mesedegarria dela erakusten duen beste adibide bat da estatu-inbertitzaile desadostasunak ebazteko mekanismoak (ISDS, ingelesez) masiboki erabiltzea. Mekanismo hori merkataritza askerako eta alde biko inbertsio-itun guztietan sartzeak frogatzen du kapitalarentzat segurtasun juridikoa lotuta dagoela justizia pribatuaren baliabideekin, lurralde nazionaletatik kanpo. Hain zuzen, nazioarteko auzitegi arbitraletan —aipatutako Inbertsio Desorekak Ebazteko Nazioarteko Zentroan, esaterako— aztertzen den kasu kopurua esponentzialki hazi da azken 20 urteotan, eta ez da gelditu jasotako kritika zaparrada gorabehera²². Korporazioek argudiatu ohi dute itunetako klausulak urratzen direla, hala nola, Tratu Nazionala (atzerriko kapitalarentzat, kapital nazionalaren gainetik) Tratu Justua eta Bidezkoa (bereizketarik gabe, inbertsioak arautuko ez dituen) eta Zeharkako Desjabetzea (enpresek oraindik burutu ez dituzten baina espero dituzten etekinak desjabetzea). Argentina da, oraindik ere, Inbertsio Desorekak Ebazteko Nazioarteko Zentroan salaketa gehien dituen herrialdea (53 salaketa). Salaketa gehienak Argentinako pesoa devaluatzearen ondorio dira, hori egin baitzuten herrialdeak 2001eko krisi ekonomiko eta sozialean, eta 90eko urteetan pribatizatu ziren zerbitzu publikoen tarifak izoztean. Bestalde, 2015ean, Espainia izan zen salaketa gehien jaso zituen herrialdea, 10 salaketa

22 CEO-TNI txostena: “Cuando la injusticia es negocio” (2012), hemendik jasota: https://www.tni.org/files/download/cuando_la_injusticia_es_negocio-web.pdf

izan baitzituen, gehienbat Europako enpresek jarriak²³. Adibide horiek nabarmen erakusten dute estatu-inbertitzaile desadostasunak ebazteko mekanismoak mesedegarriak izan daitezkeela enpresen etekinentzako, giza eskubi-deen edo ingurumenaren aldeko politika publikoak sortzeko aukera mugatuz.

Gaur egun, Europar Batasunak proposatutako Inbertsioen Auzitegi Sistema bat (ICS, ingelesez) sortzea ISDS mekanismo zahar erreformatua baino ez da. Hala ere, ISDSak bere horretan jarraitzen du: azterketa askok erakusten dute ICSak, ISDSaren aurrean, aldaketa kosmetikoa baino ez duela irudikatzen²⁴. Mekanismoa, oraindik ere, salaketekin negozioa egiten duten arbitro pribatu-entuen esku dago, zeintzuek ez dituzten bere gain hartzen arbitraje-sistemari egindako kritikak. Europar Batasunak hori proposatzen du, eta, bitartean, herrialde askok akusatuen aulkian eseri dute ISDS mekanismoa; hala nola, Italiak, Poloniak, Norvegiak, Hegoafrikak, Indiak, Australiak edo Indonesiak. Zenbait herrialdek eskumenak luzatzea debekatzeko legeria berria sortu dute (Hegoafrika), eta beste batzuek Inbertsio Desorekak Ebazteko Nazioarteko Zentrotik alde egin dute, eta aldebiko inbertsio-itun asko salatu dituzte (Bolivia, Venezuela eta Ekuador).

Hirugarrenik, nabarmen geratu da *merkataritza-negoiazio aldeaniztuna ez dela halabeharrez aldebikoa baino hobea*. MMA-ak, merkataritza askerako itunekin eta aldebiko inbertsio-itunekin batera, helburu izan dute korporazioen agenda jarraitzea. Ezberdintasuna da MMA-ak alderdi aldeaniztunetik egin duela, hau da, herrialde kide guztien artean. MMA-ak berak esan zuen negoziatzeko abantaila zela hori, batez ere herrialde txikientzat, herrialde guztiak boto bana dutenez, erabakiak demokratikoki hartzen direlako. Aldi berean, agendan posizio antzekoak dituzten herrialdeak elkartu daitezke, eta eztabaida irabazten saiatzeko taldeak sortu. Argudio horiek gorabehera, badakigu MMA-ak ez zuela proposatutako demokrazia-estandarren arabera funtzionatu. Izan ere, herrialdeen pisuen desoreka modu askotan ikus daitezke. Adibidez, inbertsioak eta kapitalaren ondasunak esportatzen dituzten herrialde handiak elkartzen direnean —esaterako, AEBek, Europar Batasunak, Kanadak eta Japoniak osatzen duten *Quad* edo *ring* delako taldea— gainerakoek aliantza masiboak eratu behar dituzte liberalizazio agenda geldiarazten saiatzeko. Gainera, erabakiak ez dira asanbladan hartzen; han, hitzaldi

23 2016ko maiatzean Espainiak 26 salaketa zituen, soilik Inbertsio Desorekak Ebazteko Nazioarteko Zentroaren auzitegian.

24 CEO-TNI txostena: "El ISDS zombi: Renombrado como ICS, el derecho de las multinacionales para demandar a los Estados se niega a morir" (2016), hemendik jasota: <https://www.tni.org/es/publicacion/el-isds-zombi>

handiak baino ez dira egiten. Benetako erabakiak *green room* (gela berdeak) delakoetan hartzen dira, hau da, MMA-aren zuzendariaren bulegoaren kolo-rea dela-eta, izen hori hartzen duten bilera ezkutuetan²⁵.

MMA-aren sistemak, gaur egun geldirik dagoenak, kritikak eragin ditu mundu osoan. Erresistentzia globalerako sareak sortzeko mugarrietako bat izan ziren 1999ko ministro-bileraren inguruan sortutako mobilizazioak, MMA-a Milurteko Bira prestatzen ari zenean, Seattlen. Geroago, 2001ean egindako Dohako txanda birtualki etenda geratu zen 10 urtez, harik eta, berriki, Baliko ministro-bileran negoziatzaileek baieztatu zuten arte akordio famatua lortu zutel²⁶. Eredu aldeaniztunaren krisiaren aurrean, azken hamabi urteetan izugarri igo dira estatuen arteko aldebiko negoziazioak. Gaur egun nagusi dira *megaeskualdeko akordio* deitutakoak: gorago aipatutako itunen loraldia- ren ondorioz aldebiko mekanismoa agortuta dagoen honetan, itun handiak egiten dira potentzien artean, TTIPa eta TTPa adibidez. AEBentzat, negoziazio horiek Txinaren botere ekonomikoa hesitzeko saiakerak dira; EBrentzat, beren barne-krisia konpontzeko eta AEB zein Txinaren aurrean merkatuak bermatzeko saiakerak dira. Bere aldetik, Txinak inbertsio akordioak negoziatzen ditu ezkutuan, bai AEBekin eta baita EBekin ere. Egoera honetan sortzen den galdera honakoa da: MMAra itzuli beharko ginatete orduan? Arlo aldeaniztuna hobea al da aldebikoa edo eskualdekoa baino?

Egoera berri bat sortzen ari da gure aurrean, baina bidean ikasitakoa erabili dezakegu orain. Jakin badakigu MMA-ak gaitzespen zabala jaso duela gizarte-antolakundeen aldetik, baina ez da izan arlo aldeaniztunak modu abstraktuan ez funtzionatzeagatik, baizik eta MMA-ak, esan bezala, korporazioek —eta ez herriek— eskatzen duten liberalizazio agenda adierazi duelako. MMA-aren arauak, agendak eta baita negoziatzeko moduek ere ez diete erantzuten gehingoaren beharrei; aitzitik, herrialde boteretsuenen eta haien enpresen beharrentzako eginda daude. Gaur egun badakigu merkataritza negoziatioetarako arlo aldeaniztuna berpiztu nahi badugu, MMA osoa eztabaidagai izan beharko dugula.

25 Bilera formalak izan ez arren, bertan ematen dira negoziatioetan pisu handiena duten ordezkartzen arteko elkarrizketak, eta bertan gauzatzen dira akordioak lortzeko presio handienak. Ez dago bilera horien agiri edo erregistrorik. Orokorrean, bilera horietan soilik herrialde garatuak hartzen dute parte, eta garapen bidean dauden herrialde batzuk gonbidatzen dituzte, baina herrialde gehienak bilera horietatik kanpo geratzen dira (Echaide eta Ghiotto, 2007).

26 Barreto Menini, Viviana: "El Paquete de Bali, ¿un éxito para América Latina?", Nueva Sociedad, 2014. Hemendik jasota: http://nuso.org/media/documents/El_Paquete_de_Bali_un_%C3%A9xito_para_Am%C3%A9rica_Latina_Abril_2014.pdf

Laugarrenik, bereziki Latinoamerikan, eztabaidaezina da merkataritza askearen aurrerakada ez dela “inperialismo yankiaren” kontu soila. ALCaren aurkako kanpaina kontinentalak, 2001 eta 2005 artean garatuak, erdian jarritzen zuen AEBen ofentsibari erresistentzia egitea: ALCA = AEB²⁷. Baina MAIa sinatzeko estrategia ez da soilik AEBena. Aitzitik, Europar Batasunaren, Txinaren, Japoniaren eta potentzia handi zein ertainen estrategia ere bada. Izan ere, eskualdeko herrialde batzuek (Peru, Txile, Mexiko, Kolonbia) badute jada MAIrik herrialde horiekin. Egiaz, MAIen bultzada erantzun bat da, kapitalaren nazioartekotzearen aurrean eta enpresa-sareetatik—korporazioetatik—abiatuta egituratu den lanaren nazioarteko zatiketaren aurrean. Gehien industrializatutako herrialdeetako enpresa guztiak haien artean lehiatzen dira, eta ekoizpen- zein merkatu-kostu baxuak bermatu behar dituzte beren produktuak kontsumitu daitezten. Kontua da merke ekoiztu eta saltzea, edo, bestela, hiltzea, kapitalista indibidual gisa. AEBek itunak sustatzen dituzte “beren” enpresen lehiarako baldintza onenak bermatzeko, beste estatuek egiten duten bezala. Estatu guztiek, izan handiak, ertainak edo baita ekonomiak txikiek ere, etekina lortzen dute baldin eta beren enpresak bide onetik badoaz; izan ere, horrela, zergen ordainketaren bidez, diru-sarrerak eta enpleguaren sorrera bermatzen dituzte, eta horrekin, barne-gobernagarritasuna. Horregatik, azken 40 urteetako esperientziari esker, merkataritza askeko “gaiztoak” banderen atzean identifikatzeari utzi ahal diogu: merkataritza askearekin, enpresa boteretsuenak haien artean lehiatzen dira, eta horrela etekinak bermatzen dituzte.

Agerikoa da AEB, oraindik ere, subjektu hegemoniko globala dela (Ceceña, 2004), eta bere pisu propioa duela ekonomia-egitura globalean²⁸. Baina ekonomia arloan Txinarekin lehiatzen da batez ere. Hori argi adierazten du Donald Trump errepublikanoaren lehendakaritzarako kanpainak, “*make America great again*”²⁹ leloa oinarri baitu. AEB saiatzen da munduko merkataritzaren erritmoa markatzen, baina gaur egun Txina da haren lehiakide nagusia. AEBen kezka nagusia Txinak Asiako hego-ekialdean aurrera egitea

27 Argentinan 2003an egin zen ALCaren, kanpo-zorren eta militarizazioaren aurkako Herri Galdeketa, batzuetan nahikoa zen azaltzea “ALCA AEBen eraso” zela, segituan solaskidearen babesa izateko. Garai hartan kalkulatzen zen eskualdeko AEBen aurkako sentimendu gehiena Argentina bezalako herrialdeek zutela. Herri galdeketa gizarte-erakundeek egin zuten, ez zuen gobernuaren inolako babesik izan, eta ALCaren aurkako 2.300.000 boto jaso zituen.

28 Adibidez, 2006an, munduko 500 enpresa handien artean, 162 AEBetakoak dira, eta 178 Europako gainetako herrialdeetakoak (Sánchez, 2008).

29 Itzulpena: “Ior dezagun berriz ere AEB herrialde handia izatea”.

da, batez ere eskualde horrek jasotzen dituelako AEBen inbertsioak (berrantolaketa eta azpikontratazioaren bidez). Bereziki kezagarria da eskualde erraldoi honen zabalkundea ASEAN³⁰ blokearekin egindako merkataritza akordioaren bidez, gehi India, Japonia, Australia, Zeelanda Berria eta Hego Korea (*Regional Comprehensive Economic Partnership* akordioa, RCEP). Obama presidentek hala adierazi zuen *Washington Post* egunkarian argitaratutako artikulu batean, 2016ko maiatzean: AEBek, eta ez Txinak, inposatu behar dute munduko merkataritzaren erritmoa³¹. Zentzu horretan, AEBentzako oinarrizkoa da kongresu nazionalak Pazifikoko arrokako Akordioa (TPP) berres-tea, bloke horren buru baitira.

Bosgarren, ikusi dugu *azken hamar urteetan merkataritza askerako alde biko itunak masiboki sinatzeak Latinoamerikan integrazio prozesu "alternatiboak" suntsitzea eragin duela*. Proposamenen kalitateak izan duen karakterizazio politikoez harago, edo Ameriketarako Bolibartar Alternatibaren (ALBA) prozesuek, Latinoamerika eta Karibeko Estatu Komunitateak (CELAC), edo baita Hegoaldeko Merkatu Komunak (MERCOSUR) izandako arrakasta gorabehera, estatuetatik abiatzen diren eskualdeko bide autonomoak urratzeko saiakerak dira horiek guztiak. Baina azken urteotan eskualdeko hainbat estatutan sinatutako MAlek, itunak sinatzeko joera globalarekin batera, esperientzia horiek sortu dituzte, estatuen arteko lehia okerragotzea izan delako joera. ALBAren esanahia truke solidarioa merkataritzaren gaineratik jartzea da, hau da, "abantaila kooperatiboak" azpimarratzea herrialdeen arteko desorekak murrizteko. Horren adibide izan zen Kubako medikuak Venezuelako petrolioagatik trukatzeko.

Adibidez, gaur egun Argentina beste herrialde batzuekin —AEB eta Brasil— lehiatzen da soja babarrunen esportazioan. Izan ere, Txinak igo egin du Brasileko produktu horren erosketa, eta jaitsi egin du Argentinako produktua-rena. Egoera horrek islatzen du herrialdeen artean dagoen lehia ekoizpenak nazioarteko merkatuetan kokatzeko; batez ere, lehengaiak eta salgaiak. Latinoamerikako herrialdeak munduko merkatuan ekoizle primario gisa sartu dira bereziki, eta joera hori da MAlek gauzatzen dutena: lehia azpimarratzea, osagarritasunaren gaineratik³². Horrek "hondorainoko lasterketa" (*race-to-the-*

30 Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Elkarte (Itzultzailearen Oharra).

31 https://www.washingtonpost.com/opinions/president-obama-the-tpp-would-let-america-not-china-lead-the-way-on-global-trade/2016/05/02/680540e4-0fdo-11e6-93ae-50921721165d_story.html

32 Adibidez, Txile, Peru, Mexiko eta Kolonbiak dagoeneko sinatu dituzte merkataritza askerako alde biko-itunak, ekonomikoki anitzak diren herrialdeekin; esaterako, Txina, Hego Korea, Japonia, AEB eta EB.

bottom) dakar, eta, bertan, herrialdeek banan-banan negoziatzen dute potentzia erosleekin, lehenago aliatu politiko eta ekonomikotzat zituztenei bizkarra emanda. Merkatu erosleenganaino iristeko, herrialdeek beren salgaiak inportatzeko muga-zergak murrizten dituzte, eta barne-legeriak malgutzen; aldi berean, erosle nagusiekin itunak sinatzen dituzte, helburu izanik beren merkatuetara lehentasunezko sarbidea izan dezaten.

Lehenago kide ziren herrialdeen arteko lehia nabarmendu egin zen Ekuador batu zenean Europar Batasunarekin egindako Elkartze Akordiora, Kolonbia eta Peruk jada sinatutako berdina, haiek guztiak izanik Andeetako Nazioen Komunitatearen kide. Ekuadorrek, merkataritza askearen politika gogor kritikatu zuen ALCA negoziatu bitartean, baina akordioarekin bat egitea erabaki zuen Europako merkatuan sartzeko lehentasuna ez galtzearen truke, bere produktu izarrarengatik bereziki: bananondoa³³, zeinaren ekoizpenarengatik beste bi herrialdeekin lehiatzen den. 2014an, Lehentasunen Sistema Orokorrean (LSO) ezarri bezala Europako merkatuan sartzeko lehentasuna bukatu zen, eta orduan sinatu zuen akordioa Ekuadorrek.

Horrek agerian uzten du herrialde batzuek nazioarteko merkataritzaren tresnei ematen dioten erabilera politikoa; baita LSO bezalako tresna zaharrek ere³⁴. Behinola erakunde hori gutxien garatutako herrialdeak iparraldeko merkatuetan sartzea bermatzeko pentsatu zen, baina gaur egun munduko merkataritza-egituran hoberen kokatutako herrialdeek xantaia egiteko baliatzen dute. Berriz ere, Ekuadorren kasuak ematen digu praktika horren adibidea. 2009an Ekuadorrek alde egin zuen Inbertsio Desorekak Ebazteko Nazioarteko Zentrotik, eta 2013tik aurrera atzerriko inbertsioak babesteko egitura guztia berrikusten hasi zen. Horrek Europako Batzordeak azkar erantzutea eragin zuen, Ekuador LSOtik botatzearekin mehatxatuz, Europako herrialdeekin adostutako aldebiko inbertsio-itunak salatzen jarraitzen bazuen³⁵; izan ere, Europako enpresek —Perenco eta Burlington petrolio-konpainiek, esaterako— aldebiko inbertsio-itunak erabili zituzten Ekuador na-

33 Urte gutxitan, bananondoaren Europako merkatuaren %33 izatetik %27 izatera pasatu zen Ekuador. Merkataritza-akordioak adostu zituzten herrialdeetako (Kolonbia, Costa Rica eta Peru) fruten aurrean zituen mugazergen desabantailak eragin zuten hori.

34 Lehentasunen Sistema Orokorra (LSO) 60ko urteetan sortu zen, munduko merkataritzaren hazkundera eta irekiera jada egitatea zirela. Garai hartan, MMA-aren aitzindari izandako GATTek (Muga Zergei eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorrak) utzi zien herrialde batzuei lehentasun sistema hori ezartzen. Sistema horrek Gehien Mesedetutako Nazio Tratua ezabatzen zuen sistema aldeaniztunetik, batez ere garapen bidean dauden herrialdeei on egiteko, betiere tratu hori hirugarrenen aurrean modu ez-diskriminatzailean ezartzen bazen.

35 <https://www.iisd.org/itn/2016/02/29/ecuadors-audit-on-investment-treaties-caitisa-reports-leaked/>

zioarteko auzitegi arbitraletan salatzeko. Erantzun horrek lezioa eman zion Ekuadorri, kanpo-merkataritza kontuekin desobeditzailea zen gobernu batek norabidez aldatzea lortu baitzuen.

Gaur egun, Latinoamerikako egoera politikoa aldatzen ari da. Argentinan eskuineko gobernuak hauteskundeak irabazi zituen (2015); Brasilen estatu-kolpe instituzionala eman zen (2016); lehenago, beste estatu-kolpe bat, instituzionala ere, Paraguain (2012); Venezuelako barne-krisia; eskualdean eskuineko alderdi politikoen jarrera aldaketak... Horrek guztiak urduritu egingen ditu gobernu “aurrerakoia” eta *goitik egindako aldaketa* erakundetzearen mugak erakusten ditu. Dena den, olatu berri honek erakusten duen arazorik sakonena da politika-adierazpen modu jakin bat krisi terminalean sartu dela, zeinak adierazten zuen 90eko urteen amaieran eta mende hasieran emandako neoliberalismoaren aurkako borroken zikloa, Latinoamerikako aurrerakoitasunak sortu zituen ziklo bera, alegia. Horrek esan nahi du 90eko urteetakoa baino egoera larriago baten aurrean gaudela: argi eta garbi eskuinekoak diren alderdien berreraikuntza, beste integrazio baten aukera hil-hurrenaren, alternatibean, ALBA proiektuan islatutako aukeren eta amerikanismo autonomo baten gainean.

Latinoamerikan, gaur egun, jada ezagun dugun erresistentzia dugu erronkatzat; onartezina den horren aurrean “ez” esatea dakar horrek, baina baita analisi sakonagoak egitea ere, pentsatzeko eta nahi dugun hori artikulatzeko zerumuga berriak sortzen utz diezaguten. Azken 40 urteotan kapitala kontzentratzeko eta nazioartekotzeko joerak eta horren ondorioek tentsioan jarri dute eraikuntza-politiko alternatibo baten ideia, estatuan zentratutako ikuspuntu batetik abiatuta. Halaber, tentsioan jartzen dute ongizate estatu berrituak eratzeko helburua; estatu horiek burgesia nazional baten gainean eraikiko lirateke, eta “erosketa nazionala” lortu nahian merkataritza-mugak itxiko lituzkete. Garai neoliberallean, kapitala eta lanaren arteko harremana kapitalaren alde nabarmen berrezarri da, arlo ekonomiko eta politikoa ez ezik, baita gizarte-arlo guztietan ere. Eta pentsamendu horien oinarri zen burgesia nazionala jada ez da subjektu gisa existitzen. *Globalizazioak zerbait eman badigu, kapitala bere gordintasun osoan ezagutzeko aukera izan da: esplotazio eta mendekotasunezko harreman sozial globala da.* Antolakunde sozialetan, eta baita akademian ere, munduko testuinguru berriarentzako alternatibak pentsatzea geratzen zaigu, horretarako analisiaren erdian jarritzat merkataritza askeak pertsonen bizitzarentzako eta ingurumenerako dakartzan arriskuak, baina ideia horri kontrajarri gabe merkataritza-mugak itxita estatu-nazio

individual gisa salbatu gaitezkeela dioen ideiarekin. Eztabaidak ezin ditu itsu-itsuan errepikatu gobernagarritasun-hitzarmenei (edo, gordinago esanda, klase-bakeari) lotutako formula zaharrak. Testuinguru berriak, agenda berriek, estatuen optikatik pentsatu ordez, existitzen den horren kritikatik pentsatzeko premia proposatzen digute.

Bibliografía

- CAITISA (2015) *Informe final de actividades de la Comisión de Auditoría Integral de los Tratados de Inversión y del Sistema de Arbitraje del Ecuador*, Quito, informe ejecutivo.
- Ceceña, Ana Esther 2004 “Estrategias de construcción de una hegemonía sin límites” en Ceceña (komp.) *Hegemonías y emancipaciones en el siglo XXI* (Buenos Aires: CLACSO).
- Echaide, Javier y Ghiotto, Luciana (2007) *¿Qué es el libre comercio? Mitos y realidades* (Buenos Aires: Capital Intelectual).
- Ghiotto, Luciana: “El ALCA, un fruto de la relación capital-trabajo” en Estay y Sánchez (comps.), *El ALCA y sus peligros para América Latina*, CLACSO, Buenos Aires, 2005.
- Holloway, John (2003) “Zapata en Wall Street” en *Keynesianismo, una peligrosa ilusión* (Buenos Aires: Ediciones Herramienta).
- UNCTAD (2012) *Investment Policy Framework for a Sustainable Development* (Nazio Batuak: New York eta Geneva).
- Yackee, Jason (2010) “Do Bilateral Investment Treaties Promote Foreign Direct Investment? Some Hints from Alternative Evidence”, Wisconsin-eko Unibertsitatea, Legal Studies Research Paper Series Paper 1114. artikulua.

Nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa eta emakumeen gaineko inpaktuak

GRACIELA RODRÍGUEZ

Eqüit-genero, ekonomia eta hiritartasun- Institutuko eta ICTN mundu-mailako sareko- Genero eta Merkataritzaren Nazioarteko Sareko- koordinatzailea

Merkataritza askeak emakumeen gainean eragiten dituen inpaktuak

AEBk proposatu zuenean Ameriketako herrialde guztiekin, Kuba kenduta, Ameriketako merkataritza askeko eremu bat eratzeko (ALCA), proposamen hari aurre egiteko borroketan, hain zuzen, akordio hori izenpetzearen aurkako erresistentziak sortzeko prozesuaren zati bat gauzatu genuen. Proposamenari salaketa zabala eta sutsua egin zioten Ameriketako mugimendu sozialek; izan ere, AEBk eskualdean hegemonia berriz osatzeko asmoa igartzen zioten proposamenari, eta, horrekin batera, hain garatuak ez dauden kontinenteko beste ekonomiak estatubatuar “lokomotorren” mende jartzeko asmoa ere bai.

ALCAren aurkako urteetan, eskualdeko emakume eta feministok geure buruari sarritan galdetu genion ea zer argudio zehatz erabili behar genituen proposamen inperial horri aurre egiteko. Eta ildo horretan ekin genien azterlanei jakiteko zer inpaktu izango zituen emakumeen enpleguen gainean, hasiera batean, eta emakumeen bizitza osoaren gainean, geroagokoaldi batean.

Azterlan –teoriko zein praktiko– horien emaitzak bide eman zigun hasieran sumatzen genituen argudioak sendotzeko, baina, batez ere, esplotazio kapitalistak emakumeentzat dituen izaera eta dentsitatea sakon ulertarazi zizkigun. Eta, orobat, emakumeen mugimenduak eta jardun feminista sendotzeko balio zigun horrek, erresistentziako borroketarako artikulatzean eta koalizioak eratzean, bai esparru nazionaletan, bai Ameriketako kontinentearen esparruan.

Globalizazioaren testuingurua

Merkataritza eta inbertsioak liberalizatzeko prozesuak emakumeen gainean eragingo zituen inpaktuak azaldu zizkiguten arrazoiak agerian uzteko elementu garrantzitsuenetako bat izan zen azken hiru hamarkadetako ekoiz-

pen-aldaketa sakonek izandako oinarri nagusiak aurkitzea. Ekoizpen globalaren inoiz ez bezalako hedapenarekin, zenbait egilek aditzera eman dute oinarri ekonomiko horiek ondorengoak izan zirela, funtsean: 1 - baliabide naturalen eta bioaniztasunaren aprobetxamendua eta 2 – herrialde periferikoetako eskulanaren esplotazioa; biak merkeak, ingurumena edo langileak babesteko legedi-faltagatik.

Eskulan merkearen bilaketa 80ko hamarkadaren bukaerako eta 90ekoaren hasieran lan-baldintzak malgutzeko legediarekin batera iritsi zen, eta herrialde zein eskualde askotan desparekotasun sozialak pizgarritzat aurkitu zituen, generokoak bereziki, zuzeneko inbertsioak erakartzeko. Horrela, desparekotasunen funtzionaltasuna gero eta nabariagoa gertatu zen, generokoena bereziki, kapitalak ekoizpen globalizaturako erakartzeko garaian.

Globalizazioaren testuinguruan eta Bretton Woodseko erakundeek garapen-bideko herrialdeentzat bereziki bultzaturiko politiken barruan, merkataritzaren eta inbertsioen liberalizazioa garrantzizko atala izan zen egiturazko doikuntzarako politiken barruan eskatu ziren “baldintza” deiturikoen artean. Politika horien haritik, merkataritza askeko eskualde-akordioek eta, 90eko hamarkadaren erdialdean bereziki, Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) barruko negoziazio aldeaniztunek nabarmen areagotu zuten garrantzia nazioartean. Antolakunde horretan eta, orobat, Merkataritza Askeko Tratatueta (MAT) –nazioarteko merkataritza pixkanaka liberalizatzeo ideia oinarritzat, merkataritzako hesiak eta babes-neurriak kentzea barne– negoziaturiko akordioek merkatuetarako sarbidea handitzeko xedea zuten, bereziki Iparraldeko herrialdeentzat, azken horiek berek murriztapen eta subsidioak aplikatu arren.

Hegemonikoa izaten jarraitzen duen ekonomia-eredu horren barruan, eta Munduko Bankuaren (MB), Nazioarteko Diru Funtsearen (NDF) eta Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) arteko koherentzia-politikak deiturikoetan, tinko sustatu zen nazioarteko merkataritzaren rola garapenaren eragile gisa, nahiz eta, aldi berean, hasieratik onartu zen merkataritzaren liberalizazioak “galtzaileak” ere sortuko zituela, “irabazleak” sortzeaz gain. Hala ere, hainbat urtean errezeta liberalizatzaileak aplikatu ondoren espero ziren emaitzak eman gabe, pobrezia gainditzeari eta munduko periferia garatzeari dagokionez, oraindik ere jarraitzen da temaz ikuspegi hori sakon dadila proposatzen. Areago, G-20 finantzarioan eginiko bileretan (ekonomia handienek osatutako lehenagoko G-8 zabalduz, hura legitimatze aldera, era-

tu zen herrialde-taldea), merkataritzaren eta inbertsioen liberalizazioa bada oraindik ere proposamen nagusietako bat ekonomia-krisi globaletik irteteko, nahiz eta, azken urteetan akordioa bilatzeko saioek huts egin dutenez, Doha-ko Itzuliko negoziazioak ixteko modurik ere ez den egon MMAn. Eta lehenago esan dugunez, MMAn akordio-falta hori egonda, liberalizazioaren emaitza negatiboak aitortu beharrean, aldebiko eta eskualdeko negoziazioen uholde erasokor bat gertatu da, TPP eta TTIP haien artean, edo negoziazio sektorialena, TISA kasu.

Ikuspegi horien barruan, gizarteetan desberdintasunezko egoeran egoteagatik, hain zuzen, emakumeek –pobreek, bereziki– zailtasun handiagoz aurre egiten diegu globalizazioko eta ekonomiaren liberalizazioko prozesuei, eta, horrexegatik, herrialde askotan “galtzaile” handien artean daude. Azken urteetan, hainbat azterlanek ahalegin nabarmenak egin dituzte analisiak garatzeko, merkataritza-politikak, pobreziaren aurkako borroka eta genero-ekitatea lotuz, eta emaitza guztiek aditzera ematen dute aldagai horien arteko lotura negatiboa dela.

Emakumeen eskulana esportaziorako produktuen fabrikazioarekin gero eta lotuagoa egotea egiaztatutako zerbait da ekoizpen globalizatuan. Elsonek eta Pearsonek 1981erako jada aipatzen zuten emakumeen lanaren gorakada “mundu-merkatuko fabriketan”³⁶, oso soldata txikiekien eta baldintza prekarioetan kontrataturiko emakumeen lanean oinarritua.

Orduz geroztik, zenbait azterlanek emakumeen enplegua jorratu dute esportazioko sektoreetan, industria-sektorean batik bat, baina nekazaritzan eta zerbitzuetan ere bai. Azterlan horietako asko herrialde-mailakoak dira, eta beste batzuk, urriagoak, nazioarteko datuak erabilitakoak. Oro har, azterlan horiek aldeztutako tesia izan da “garapen-bideko herrialdeetan, esportaziorako ekoizpena lan ordainduaren feminizazioarekin batera gertatu dela”³⁷.

Areago, egile batzuek, Joekesek besteak beste, oso tinko adierazi dute ondorengoa: “gaur egungo garaietan, garapen-bideko herrialdeetan ez da esportazio-jardun handirik gertatu, emakumeen lanarekin loturik egon ez denik”³⁸.

36 Elson, D eta R. Pearson—“The subordination of Women and the Internationalization of Factory Production”. 1981.

37 Cagatay, N. “Género, Pobreza y Comercio”. *Ekonomia Saila*. Utahko Unibertsitatea. 2001. Mimeo.

38 Joekes, S. “Trade Related Employment for Women in Industry and services in Developing Countries”. UNSRID. 1995.

Bestalde, liberalizazio-politika horiek onuragarriak izan ahalko balira, emakumeentzat enplegu-aukerak sortuz, galde genezake ea “emakumeen berrekoizpen-rolak eta genero-desparekotasunek onura horiek bereganatzea eragotzen dieten, hau da, ea zenbateraino balia ditzaketen merkataritza-akordio batek eskaintzen dituen aukerak edo aurre egin gero eta lehia handiagoari, aldi berean etxeko ardura beren gain baldin badute”³⁹. Sortzen diren enpleguen kalitatea ere aztertu behar da; izan ere, ez da beti lagungarria izaten generoko zein lan-segregazioko harremanak, emakumeen eta gizonen arteko soldata-desparekotasunak edo emakumeen bizi-kalitatea bera hobetzeko.

Eginiko ikerketaren aurkikuntzetako batzuk aintzat hartuta, eta are azterlanen hutsuneak eta zailtasunak aitortuta, analisi sakonagoa egiteko beharra dutelarik, zenbait gogoetatan aurrera egin dezakegu, liberalizazio progresiboko politika ekonomiko eta komertzialek genero-desparekotasunen aldetik jokatu duten moduari buruz eta askotan desparekotasunok nabarmenago, baita sakonago ere, bihurtzea eragin duten moduari buruz. Badi-rudi funtsezkoa dela, orduan, gogoeta egitea ea nolako interakzioa dagoen politika makroekonomikoen (orain analizatuko ditugu) eta emakumeak lan ordainduaren merkatuan txertatzearen artean, eta geroago, bigarren une batean, etxeetan pertsonak zaintzeko lanak aztertzea. Hala bada, “zaintzen ekonomia” gaitzat izango duen atal bat gehituko dugu, emakumeek bizitza eta lan-indarra mantentzeko gauzatzen duten ordaindu gabeko berrekoizpen-lana ikusgai bihurtzeko eta, batez ere, balioesteko beharra ere aintzat harturik. Horretarako, erakutsiko dugu nolako pisu eskerga hartzen ari diren etxeko ekonomia-esparrua zein haren barruan egiten den lana zainketa-kateen hedapenarekin, migrazioen bidez batik bat.

Ahalegin honen zentzua izan da, hain zuzen ere, politika ekonomikoek—merkataritzaren eta inbertsioen liberalizazioak bereziki— emakumeen ekoizpen-lanaren gainean izaniko inpaktu artikulatuak ikusgai jartzea, baina, orobat, haien berrekoizpen-lanen gainekoak, hau da, historian zein gizartean zati ikusezin bat duen emakumeen lan-multzoaren gainekoak.

Merkataritzaren eta inbertsioen liberalizazioa eskualdean: edo nola erakartzen dituen inbertsioak lan-merkatuan genero-desparekotasunak egoteak.

39 Sanchis, N; Baracat, V. eta Jimenez, MC “El comercio Internacional en la agenda de las mujeres. La incidencia política en los acuerdos comerciales en América Latina”. IGTN. Buenos Aires. 2004.

Hasiera batean, eta emakumeek lan-merkatuan duten parte-hartzea kon-tuan hartuz, inbertsioek ekonomia nazionalen gainean eragiten dituzten inpaktuez egin dezakegu gogoeta, gizonen eta emakumeen arteko desber-dintasunen gainen bereziki.

Merkataritzaren liberalizazio progresiboarekin batera –hori izanik eredu neoliberalak sustatzen duen mundu merkataritza-sistemaren funtsezko premisa–, inbertsioen liberalizazioa ere etorri zen, zenbait erregulazio-me-kanismoen bidez, herrialdeen arteko kapital-zirkulazioa errazago bihurtze aldera. Izan ere, kapitalen zirkulazio askerako eta inbertsioen segurtasunera-ko neurriak izan ziren, eta badira oraindik, politika makroekonomiko hege-monikoen ardatz nagusia.

Inbertsioak liberalizatzeko akordioek instalatzeko erraztasun handiak eman dizkiete enpresa transnationalei, “jarduteko betekizunak” direlakoan ordai-na eman behar izan gabe, halakoak eskatu ohi baitzitzaizkien inbertsio-ka-pitalei. Atzerriko inbertsioak erakartzeko helburuz, lan-arloko legeak eta estandarrak malgutu izanak eskulanaren kostuak murriztea ahalbidetu du, eta bide eman du ekonomia globalizatuan prekaritateak eta lan-baldintza okerrek aurrera egiteko. Aldi berean, estatuek lan-baldintzak kontrolatzeko zuten ahalmena gutxitu egin da, hainbat urtean estatuen rola minimizatze-ko joera zuten egiturazko doikuntzarako politikak aplikatzearen ondorioz, bai eta, askotan, gobernuek berek herrialde periferikoetan instalaturiko en-presekin izan duten konplizitatearen ondorioz ere.

“Testuinguru horretan, garapen-bideko herrialdeetako hainbat gobernuak atzerriko inbertitzaileei eskaini dizkieten konparaziozko abantailetakoa bat izan da eskulan merkea erruz izatea baliagarri, emakumeena batik bat, gehienetan prestakuntza gutxiko lanpostuen bidez ondasun intentsiboak ekoizten dituzten enpresa batzuentzat. Esportazioak prozesatzeko “zona frankoetan” edo produktuak muntatzeko fabriketan kapitalak instalatzeko eskainitako erraztasunak izan dira aurkitutako modua gobernu askoren eta korporazio transnazional ugariaren interesak bateratzeko. Halaber, *maquila* deritzeneko ekoizpen-mota ere oso zabalduta dago. Produktu baten piezak muntatzeko fabrika batzuk dira; pieza horiek eginak iristen dira, eta ekoiz-pena esportaziora bidaltzen da oso-osorik. Ekoizpen-modu horrek batez ere emakumeen eskulana baliatzen du, berealdiko prekaritatea duten lan-bal-dintza batzuetan, eta oso inpaktu handiak eragin ditu gizarte- eta familia-bi-zitzaren gainean, instalatu den eskualdeetan; horrela, argi eta garbi utzi du

agerian merkataritzara eta inbertsioetara irekitzeko prozesu horiek emakumeen gainean duten inpaktu gure herrialdeetan. Halako espazioetan, hain zuzen, aurkitzen dira emakumeak, eskulanaren osagai nagusia diren aldetik, segurtasunik gabeko lanak, soldata txikiak, osasun-baldintza ezin okerragoak, eta beste zailtasun batzuk jasan beharreko egoera batean⁴⁰. Eta hori beste prozesu bortitz batzuk sakon aztertzeari lotu gabe, hala nola gizarte-desintegrazioa, balio berrien inposaketa, eta tokiko kulturen indargabetzea; izan ere, ekoizpen-instalazio globalizatuek halakoak inposatzen dituzte, eta, askotan, komunitate osoei identitate kulturala galarazten diete, arazo sozial larriak eraginik ondorioz. Mexikoko *maquilak* eta emakumeen gainean nahiz feminizidioaren fenomenoaren eztandan eragindako inpaktuak neurri handiagoan aztertu eta salatu dira 2000ko hamarkadaren hasieratik; hala, bada, kasu hori adibide adierazgarriena eta tragikoena bilakatu da, merkataritzaren liberalizazioak emakume langileen gainean eraginiko inpaktuen ondorio sozialen alorrean.

Era berean, aztertu ahal izan da nolako inpaktuak eragin dituen soldaten balioetan emakumeak eskualde batzuetako lan-merkatuetan masiboki sartzeak, eskualde edo herrialdeko soldata-tasa beheratzeraino, horrela gizonen nahiz, oro har, langile guztien soldatak ere okerragotuta.

Hala, modalitate horiek ekoizpen-antolamenduaren modu nagusiak bilakatu dira emakumeen eskulana erabiltzeko hainbat sektore eta herrialdetan, hala Hego Amerikan (Kolonbian, loregintzan; Txilen, esportatzeko fruten agroindustrian eta arrainetan; Manaoseko zona frankoan –Brasil–, aparatu elektro-elektronikoen ekoizpenean, etab.), nola Erdialdeko Amerikan (Mexiko, Honduras, El Salvador, besteak beste, *maquila* ezagunetan –ehunkien piezak josteko fabrikak, gehien bat–), bai eta Kariben ere. Lan-modalitate horiek oraindik ere sustatzen dira Latinoamerikako hainbat herrialdetan, edo mantendu egiten dira, bederen. Hala, soldaten egoera okerragotzea eragin dute, eta genero-desparekotasunak betiketzea.

Horrenbestez, emakumeen eskulana kontratatzeko modu horien iraupenak eta hedapenak bide ematen dute esateko genero-desparekotasunak funtzionalak direla inbertsioak egiteko garaian. Hain zuzen ere, “askotan ikusi dugunaren arabera, inbertsioek lehendik dauden genero-desparekotasunak

40 Rodríguez, Graciela – “Género, comercio internacional y desarrollo: una relación conflictiva”. Nueva Sociedad. Buenos Aires. 2009.

baliatu bakarrik ez, baizik eta badirudi halako desparekotasunek inbertsioak erakarri egiten dituztela⁴¹.

Hala, enpresa transnazional handiek eginiko inbertsioek, manufakturen sektoreetan bereziki, genero-desparekotasunak sakondu egin dituzte hainbat herrialde eta eskualdetan, beren irabazien zati handi bat haietan oinarrituz. Mercosur-eko herrialdeen kasuan, modalitateak eta inpaktuak apur bat desberdinak izan dira, ondasun primarioetan edo balio erantsi gutxiko ondasunetan oinarrituriko esportazioek (nekazaritza eta abeltzaintza estentsiboak eta meatzaritza) eskulan gutxi erabiltzen baitute, eta gehienbat gizonena. Horrenbestez, ikusi dugunaren arabera, liberalizazioak oso lanpostu gutxi sortzen ditu emakumeentzat, eta sortzen dituenean, kalitate gutxikoak dira⁴².

Negoiazio komertzialetan industriako produktuen liberalizazioa ere barne hartzen denez, NAMAko negoziazioen bidez (nekazaritza kanpoko produktuen merkatuetarako sarbidea), Munduko Merkataritza Antolakundearen barruan⁴³, halakoek ere eragin handia dute emakumeen gainean, haiek proportzio handiagoan parte hartzen dutelako lehiakortasun txikiena daukaten industria-sektoreetan. Izan ere, sektore horiek kaltetuenak izango dira, eta, aldi berean, industriaren gizonen eta emakumeen artean soldata-desparekotasunak egon arren, industriaren sektoreak bultzatu du, hain zuzen, emakumeen soldaten igoera, maila apalean eta kontraesanekin igo badira ere. Horrenbestez, ondoriozta dezakegu, Hegoaldeko herrialde horien kasuan, liberalizazioak eskolatzeko-maila handieneko emakumeen enpleguari eragingo diola, hau da, emakumeen enplegu onenei, hain zuzen, mehatxu egiten diela.

ALCAren aurkako borroketan eta, gero, MMARI aurre eginez bildu genituen ebidentzia horiengatik guztiengatik, orduz geroztik esaten dugu merkataritza-akordioen bidez –eta, bereziki, garapen-bideko herrialdeetan atzerriko zuzeneko inbertsioa erraztu eta areagotzeko xedea duten akordioen bidez– gauzatutako liberalizazio-prozesuek inpaktu negatiboak, askotarikoak eta nabarmenak eragin dituztela eta oraindik eragin ditzaketela emakumeen lan-baldintzen gainean.

41 Rodríguez, G. "Estrategias de las Mujeres para la OMC". Inst. Equit / IGTN – International Gender and Trade Network. Brasil. 2003.

42 Bidegain Ponte, Nicole. "Comercio y Desarrollo en América Latina: El orden de los factores altera el producto" CIEDUR – IGTN. Montevideo – Uruguay. 2009.

43 Negociações de NAMA na OMC, Emprego Industrial e os impactos sobre as desigualdades de gênero. Instituto EQUIT. 2008.

Ekonomia feminista, “zainketa” eta haren ekarpenak

Orain, ikuspegi laster bat zirriborratuko dugu merkataritzaren eta inbertsioen liberalizazioak emakumeen eguneroko bizitzaren gainean zein bizitzako berrekoizpen-arloan duten rola gainean eragindako inpaktuei buruz. Lehenago, kontzeptu batzuk berrikusi behar ditugu, makroekonomiak eta, bereziki, nazioarteko merkataritzak emakumeen gainean eragindako inpaktuez ikasi dugunaren aurretikoak.

Lanaren kontzeptua kontzeptu historikoa da, eta eztabaida asko egin da lana gizartearen antolamenduaren oinarrian kokatzen den moduen inguruan; areago, gehien zabaldutako teoria ekonomiko modernoetan, salgaien prezioaren zein gizon-emakumeen garapenaren beraren atzetik jartzen da lana. Hala ere, lanaren eginkizunaren inguruan nahiz pertsonak bizirik irauteko eta existitzeko –denboran eta espazioan zehar izaten dituzten askotariko beharrianak estaliz– baldintzak sortzeko dituen ahalmenen inguruan egini-ko gogoeta ekonomiko, soziologiko, antropologiko eta are filosofiko guztiek ez zuten aintzat hartu etxeko lanaren balio nabaria, bizitzako egunerokoan dauden beharrianak eta gabeziak betetzeko balioa, hain zuzen ere.

Berriki sortutako ekonomia feministak ekarri zuen lanaren dimentsio hori politikaren nahiz arlo akademikoaren argipera, analisiaren gunea bizitzaren zainketarako eta haren berrekoizpen fisiko eta sozialerako lan horietan jarriz.

Horretarako, lana bere ekoizpeneko eta berrekoizpeneko esparruetan aztertzea eta sailkatzea azpimarratu da, hori izanik lehen mailako lan-banaketa deritzona, sexuaren araberako lan-banaketan oinarritua.

Ekoizpen-lana da salgaiak eta diru-sarrerak sortzen dituena, hau da, helburutzat merkatuko trukeak dauzkana; lan hori, merkatu horretan legitimatuta eta balioetsita dagoenez, bai gizonei, bai emakumei ordaintzen zaie. Berrekoizpen-lana, bestalde, pertsonak zaintzeko eta pertsona horiek garatzeko egiten diren jardueren multzoa da, “ekoizleen ekoizpena” barne⁴⁴, hau da, lan-indarra berritzea. Lan horiek gehienak emakumeek egiten dituzte doan, eta haiek ere giza beharrianak betetzeko beharrezkoak izan arren, merkatuan balioesten ez direnez, lanok ez dira ordaintzen.

44 Meillassoux, Claude. “Mujeres, Graneros y capitales”. Siglo XXI Editores. Mexiko. 1977.

Hala, zainketa-lanak etxeko esparruan egiten dira batik bat, halakoetan emakumeak nagusi direlarik, eta gizonak, bestalde, “ekoizpeneko” jarduerak deiturikoetan espezializatu dira, lan-merkatuan haien truke soldata bat jasotzen dutelarik.

Lana horrela sailkatuta, ordainsaria aintzat hartuz baina doakotasuna ere bai (ekonomia tradizionalak kontuan hartzen ez zuen elementu bat), begirada berri bat egin daiteke lanak har ditzakeen izaeraren eta formaren gainean. Lana egiten den lekuneak ere (locus) hartzen du garrantzia (arlotu pribatuan), menderakuntzako eta mendekotasuneko mekanismo sozialen zati delako. Mekanismo horiek eraginkortasun handiz funtzionatu izan dute, eta lagun-garriak izan dira kapitalak bere burua mantentzeko eta irauteko behar duen eskulan merkea lortu dezan.

Hala, ekoizpeneko lana zein berrekoizpeneko lana ondasun eta aberastasunen ekoizpenaren zati beharrezkotzat jotzeak bide ematen du, arestiz geroz, ekonomia gidatu duten printzipioetako batzuk berriz aztertzeko, lanari balio berriak egotztearen ikuspuntutik. Horren arabera, sistema kapitalistak emakumeak kontuan ditu bere funtzionamendurako, oinarrizkoak horni dezaten, familia zaintzeko eta mantentzeko nahiz berrekoizpen sozialaren kalitaterako. Fredericik zabal aipatu duenez⁴⁵, metaketa kapitalistaren prozesu historikoa Erdi Aroaren bukaeraz geroztik hasi zen gauzatzen, emakumeek herri-ondasunak hesitzeko (desjabetzeko) prozesuan egin zuten ekarpen berezi eta garrantzitsuekin. Alabaina, politika makroekonomikoek ez dituzte jo prozesu eta alderdi horiek sistemaren funtzionamenduaren berezkitzat, baina bai, ordea, politika sozialen bidez zaindu beharreko alderdien artekotzat.

Eta emakumeek beren gain harturiko ordaindu gabeko berrekoizpen-lan horrexek familiarren ardurarekin gainzamatzen ditu, askotan lan formalaren merkatuan parte har dezaten ere galarazita edo “lanaldi bikoitza” eginarazita. Cagatayk zuzen dioenez, “emakumeek berrekoizpen sozialean hartzen duten ardurak lan-merkatuan, soldatapeko langile gisa, daukaten lekuan eragina izatera ere iristen da. Emakumeek parte-hartze txikiagoa dute lan-indarrean, gizonen baino [...] Askotan, orobat, emakumeek segurtasun gutxiagoko enpleguak izaten dituzte, gizonen aldean, hala nola lanaldi partzialeko lanak edo sektore informalekoak, etxean dituzten ordaindu gabeko ardurak direla kausa”⁴⁶.

45 Federici, Silvia. *El Calibán y la bruja: mujeres, Cuerpos y acumulación originaria. Traficantes de Sueños*. Espainia. 2010.

46 Cagatay Nilufer. *Género, Pobreza y Desarrollo. Utahko Unibertsitatea*. 2002. Mimeo.

Gehienek bereizketa hori onartzen badute ere, ekoizpen-lanaren eta ordaindutako lanaren arteko eta berrekoizpen-lanaren eta doako lanaren arteko korrelazioa ezin da hertsiki egin, hainbat modalitatetan –hezkuntzako eta osasuneko zerbitzuetarako, bereziki– Estatuak eta sektore pribatuak, biek ala biek merkatuaren bidez, halakoak egiteko ardura hartzen baitute, lan ordaindua erabiliz.

Horregatik, eta bizitzaren zainketako eta langileen berrekoizpeneko lanak askotarikoak izanik, feministak “zainketen ekonomia” deritzonaren inguruko debatea definitzen eta sakontzen saiatu dira. Ekonomia horrek, hain zuzen, etxeko lanari zein Estatuak eta sektore pribatuek emaniko zerbitzuei loturiko aberastasun-ekoizpena biltzen du, familien zein komunitateen eguneroko beharrianak betetzeari dagokionez.

Ekonomia feministak ekarpen ugari egin die debate horiei; izan ere argipean jarri zuen, ekonomia-zientziarentzat nahiz giza eta gizarte-zientzientzat, gizarteko bizitza mantentzeko eta berrekoizteko behar den lana balioesteko beharra.

Hain zuzen ere, historian zehar, ekonomia tradizionalak merkatura bideraturiko ekoizpenean jarri izan du arreta, eta ahaztu egin du familiaren auto-kontsumorako etxeko ekoizpena. Ondorioz, ikuspegi hori azken mendeetan orokortutako ekoizpen-modu kapitalistan sendotu da. Horrenbestez, ez ekonomia askotariko korranteetan, ez eta ekonomia politikoa ere, ez zen egin ahalegin arrakastatsurik arlo pribatuetan gauzatutako merkataritzaz kanpoko jarduerak arlo publikoetan gauzatutako ekoizpen kapitalistarekin uztartzeko; hala, bada, sendotu egin zen sexuen arabera lan-banaketari ez ikusi egiten dion ikusmoldea, gehienbat emakumeek egiten duten etxeko familia-lan horrek sorturiko aberastasuna ikusezin bihurtuta. “Horrela hasi zen hainbat dikotomiaren arteko bereizketa hertsia atxikitzen duen analisi-ikuspegi bat: publikoa eta pribatua; arrazoia eta sentimenduak; merkataritzako lana eta etxeko lana; enpresa eta familia. Gaur egun ere badirau hurbilketa epistemologiko horrek, eta mundu publikoarekin zerikusia duena baino ez du jotzen ekonomiaren aztergaitzat”⁴⁷, eta horri gehituko nioke: eta gainera merkatutik igarotzen dena, horrek haren balioa legitimatzen baitu, nonbait.

Horrela sendotu da emakumeek etxeko esparruan eginiko lanaren “naturalizazioa”, merkatutik kanpo egiten baita, eta ondorioa izan da emakumeen

47 Carrasco, Cristina – “La economía feminista: una apuesta por otra economía”. 2002. Espainia. Mimeo.

lanaren ikusezintasun ekonomikoa; hortik, bada, emakumeen “autonomiaz” hitz egitearen paradoxa. Hori bakarrik gerta liteke merkatuan zentraturiko ikusmolde batetik, eta, horixe dela eta, azkenean ikusmolde estu bat gertatzen da, eta merkataritza kanpoko jarduerak –hots, ekonomia feministen arreta jasotzen dutenek– sorturiko aberastasuna aintzat hartzen duten ikuspegiak baztertzen dituen ikusmolde bat.

Ikerlari askok ildo horretako argudioak eman dituzte, eta XIX. mendean bertan, Sheppard “etxeko lana aitortzearen eta balioestearen alde agertu zen”⁴⁸, enplegurik gabeko emakumeak “mendekotzat” jotzea ere zalantza jarri-ta, berak maila berean jartzen baitzituen emakume horiek –fami-liakideen beharrianak estaltzeko– beren etxeetan egiten zituzten jarduerak eta gizo-nek esparru publikoetan eginiko jarduerak.

Hemen nabarmendu behar da emakumeek beren etxe eta komunitateetan eginiko lanaren balioan arreta jartzen duen ikuspegi horrek ez duela ahale-ginik egin lan hori balioetsi eta salgai bat gehiago bihurtzeko, ikusgai jartzea bilatu badu ere eta, horren ondorioz, kontzeptuak nahiz mundu ekonomikoaren ikusmolde paradigmaticoa ere berrikustea lortu. Xedea ez da, halabeharrez, etxeko lana merkantilizatzea, baina bai, ikuspegi feministatik, haren banaketa gizonen eta emakumeen arteko berdintasun handiagoz egin dadin.

Ekonomia feministaren ekarpenei buruz jarraituz, baina azterketa zehatz-zehatza egiteko asmorik gabe, garrantzitsua da aipatzea, bederen, ekonomia-ren ikusmolde feministaren bilakaera historikoa eratu zuten azterlan batzuen garrantzia: familiaren denboraren erabilerari buruzko azterlanak; gizonen eta emakumeen arteko soldata-desparekotasunaren arrazoiei eta hura gainditzeko moduei buruzko analisiak; eta bereziki zainketa (ingelesezko care hitzetik) gizakiekin eta haien berrekoizpen fisiko eta sozialarekin “zainketa ekonomia” izendaturikoan elkartu duten ikuspegi berri eta askotarikoak.

Kontzeptu eta argudio horietan oinarriturik, saiatuko gara azaltzen merka-taritzaren inpaktuak non eta nola eragiten diren etxeko lanaren –hain zuzen, oraindik emakumeek gehienbat egiten duten lan horren– egunerokoan.

48 Carrasco, Cristina – Op. cit.

Politika makroekonomikoak, zerbitzu publikoak eta etxeen barruko lan ikusezina

Hegoalde globalean 90eko hamarkadaz geroztik eta, berrikiago, Europako herrialdeetan abian diren egiturazko doikuntzarako programek ere –MMAN eta, berrikiago, TISAn edo aldebiko merkataritza-tratatuetan zerbitzuak liberalizatu izanarekin batera– zerbitzu publikoen murrizketa-prozesu bat sustatu dute hainbat herrialdetan, murrizketa gogorra eraginez askotan, zerbitzu horietako batzuk oinarrizkoak izanik. Estatu “minimoen” herentzia oraindik sentitzen da Latinoamerikako herrialdeetan, gobernu-egiturak desegin izanaren ondorioz; izan ere, beharrezko zerbitzu publikoak emateko ahalmena galdu zuten neurri handi batean. Horrek azken urteetan ekarri du emakumeek halako zerbitzu publikoen bidez izango luketen laguntza galtzea, etxe-ko eta komunitateko esparruetan zainketa-zerbitzuak emateari dagokionez.

Hain zuzen ere, oinarrizko zerbitzuen pribatizazioa eta onura sozialen murrizketa oraindik ere izaten ari dira eragin gogorra etxeko lanaren gehikuntzan, sektore publikotik emaniko zerbitzu eta laguntza horietako batzuek zainketa-lanak ordezkatzeko edo haietan laguntzen duten neurrian, premia handieneko etxeetan bereziki. Bestalde, luze eta zabal frogatuta dago halako zerbitzuak erabiltzeko aukeraren eta bizi-baldintzak hobetzearen zein ahultasun-egoerak eta pobrezia gainditzearen arteko lotura. Zerbitzuak eraginkortasunez ematea faktore nagusi bat da pobrezia murrizteko ahaleginei dagokienez, Amartya Senen gaitasunen ikuspegiaren arabera. Senek berrietasunez garatu zuen pobrezia-kontzeptuaren birformulazioarekin, pobrezia ikuspegi zabal, multidimentsional eta dinamikoago batetik analiza daiteke, definizio tradizionalaren ikuspegiarekin erkatuz gero; izan ere, azken hori etxe pobreen sarrera-maila txikietan zentratzen zen ia bakarrik. Senen analisiak era enfatikoa ahalbidetu du orain bai Estatuak zerbitzuak doan ematea, bai zerbitzuok erabiltzeko aukera sartzeko pobrezia ikusmolde multidimentsional horren dimentsio garrantzitsuenen artean.

Familien bizi-kalitateari eragiten dioten zerbitzuak emateko bermeak –hezkuntzako, osasuneko, ur-hornikuntza eta saneamenduko, edo argindarreko zerbitzuak, besteak beste– funtsezko garrantzia du pobrezia arintzeko, eta bada, era berean, emakumeen aliatu ahaltsu bat, halakoak faltatuz gero edo behar bezala ez emanez gero, beren lanaldia luzatu egin beharko baitute, zerbitzuok ordezkatzeko. Zenbait kasutan, lanaldi bikoitzak ardura handiagoekin zabalduko dituzte, zerbitzu publikoen gabeziak lanaren bidez

konpentsatzeko; edo beste kasu batzuetan, areago, lan-merkatuan sartzea oztopatu edo galarazirik ikusiko dute, etxeko zainketa-lanetan erabili behar duten denbora dela eta. Baliteke enplegua bilatzeari ere uko egitea, eta horrela langabezia-estatistikak desitxuratzen laguntzea.

Horrenbestez, esan dezakegu zerbitzuen pribatizazioa, zerbitzuak –publikoak eta oinarrizkoak direnak, besteak beste– pixkanaka liberalizatzea lortu nahi duten merkataritza-akordioetan negoziatua, badela politika makroekonomikoen elementu bat, genero desparekotasunak sendotzen lagundu duena, herritarren arteko maila pobreenetan batik bat⁴⁹.

Ildo horretan, ur edangarria banatzeko zerbitzuen pribatizazioa enblematikoa izan daiteke. “Pribatizazio hori aztertu dugun egoeretan, zerbitzuaren hobekuntzaren bidez justifikatuta beti, aurkitu dugu emakume gehienentzat emaitza badela oraindik ere ura etxe barrura garraiatzeko lana, eta egunero eskasia kudeatu beharra, azkenean etxeko lana handitu egiten duten baldintza penagarri batzuetan”⁵⁰. Azterturiko kasuetako batean, Manaos hirian, Brasilgo Amazonia betean, ikusi genuen Suez frantziar enpresaren hedapen-estrategiek, hark pribatizatu baitzituen ur-banaketako eta saneamenduko zerbitzuak, hainbat inpaktu negatibo eragin dituztela hiri-aldirietako biztanleriaren gainean, eta efektu oker horiek emakumeei bereziki egokitu zaizkiela. Nabaria da emaitza negatibo horien arrazoietakoa bat dela zerbitzu-emakume publikoek eta pribatuek beren gain hartzen dituzten arduren arteko aldea, lehenek bakarrik baitaukate, hots, publikoek, zerbitzuak herritar guztiengana iristen direla ziurtatzeko betebeharra. Nabarmentzekoa da, berrikiago, doikuntza neoliberalen politikak Europan (goraka kontinentean eta gizarte-ongizatearen estatuen gaineko inpaktuak eragiten dutelarik) zer eta pribatizazioa handitzen ari direla, bai eta, horrekin batera, etxeek oinarrizko zerbitzuak erabiltzeko zailtasunak ere. Horren bidez, politikok Europako gizarteetako genero-berdintasuna higitzen ari dira, orain arte zainketa-politiken laguntza handiagoa hartu duten gizarte batzuk izan ondoren, haurrei eta zaharrei dagokienez batik bat. Hala, funtsezkoa da nabarmentzea eta balioestea politika publikoen eta, bereziki, zerbitzu publiko kalitadedunak ematearen ekarpena, hala pobrezari eta desberdintasunei aurre egiteko, nola emakumeen bizi-kalitatea zein genero-berdintasunaren aurrerapena hobetzeko.

49 Bidegain Ponte, Nicole. “Comercio y Desarrollo en América Latina: El orden de los factores altera el producto” CIEDUR – IGTN. Montevideo – Uruguay. 2009.

50 Rodríguez, G. et al. “La privatización del agua en la ciudad de Manaos y su impacto sobre las mujeres”. 2006. Rio de Janeiro.

Azkenik, zerbitzuen liberalizazioari lotutako beste alderdi bat nabarmendu behar da, finantza-krisi globalarekin gaurkotasan handiagokoa bilakatu-takoa eta “finantza zerbitzuen liberalizazioaren” ingurukoa, emakumeek finantza-baliabideak erabiltzeko aukerari dagokionez; izan ere, daitekeena da halako zailtasunak, azkenean, genero-desparekotasunak sakonagotzea merkatu globalizatuetan. Badakigu bankuek ez dutela errazten, ustez neutralak izan arren generoaren aldetik, emakumeek finantza-merkatuetan sarbidea izan dezaten, kredituaren bidez batik bat, jabetzaren bidezko bermeak beharrezkoak izaten direlako eta emakume askok jabetza eskuratzeko aukerarik ez dutelako, eta sarbide hori funtsezkoa da ekoizpena iraunkorra izan dadin merkatuan. Hala, ziurrenik, hori beste elementu bat izango da, egungo krisiak emakumeen gainean izan ditzakeen inpaktu negatiboak areagotuko dituena.

Ondoriozta dezakegu, beraz, zerbitzuen pribatizazioak eta liberalizazioak gure gizarteetan generoko efektu asimetrikoak sendotzeko balio izan dutela eta balitekeela aldi berean pobrezia aurre egiteko edo errenta banatzeko programen inpaktuak moteltzen parte hartu izana.

Politika ekonomikoen eta zaindu gabeko zainketen arteko lotura

Eredu hegemonikoaren politika makroekonomikoen eta ekonomiaren aldetik ikusezin bihurturiko etxeko lanen artean dagoen interakzio handia ikusgai jartzeko, bi ikuspegi bereizi hartu ditugu aintzat: lan ordainduaren merkatua, baina zerbitzu publikoak ere bai, politika ekonomikoek genero-desparekotasunak indartzearekin duten lotura zein haien gaineko efektuak nabarmentze aldera.

Jakina, ondorio hori sendotuko lituzketen beste adibide edo elementu batzuk har litezke, hala nola merkataritza-politikek familia-nekazaritzan duten zerikusia, hori berebiziko garrantzia duen arlo bat izanik irauteko eta elikagaiak ekoizteko, non emakumeek funtsezko rol bat jokatu ohi duten, bai merkaturako ekoizpenean, bai, batez ere, familia elikagaiz hornitzeko.

Alabaina, modu tradizionalaren arabera ulertutako ekonomiaren eta zainketaren ekonomia barne hartzen duen ikuspegi feministaren arteko interrelazio horretan, garrantzia duena da bide ematen digula modu zehatzagoan uler-

tzeko, ez bakarrik aberastasun nazionalen ekoizpena bera eta Barne Produktu Gordinarekin (BPGd) daukan lotura, baizik eta ekonomia-sistemaren beraren funtzionamendua, mendeetan zehar onura atera baitio bizitzarako funtsezkoa den doako lan horri, oraindik ere hura baliatzen jarraitzen duelarik.

Baina, korrelazio hori eta hark ekonomia-sistema hegemonikoarentzat dauzkan abantailak agerian uzteaz gain, politika ekonomikoak emakumeen rol ekonomiko bikoitzarekin lotzeak, ekoizpen-lanerako nahiz berrekoizpen-lanerako ekarpenak egiten dituzten neurrian, bide ematen digu hobeki ikusgai jartzeko eta ulertzeko Estatuak garapenaren eragile gisa zein pertsonen eta populazioen ongizatearen eragile gisa duen rola.

Halaber, zainketa-zerbitzuak eta emakumeek lan-merkatuan parte hartzea lotuz, emakumeen eta feministen mugimenduek dituzten erronkak nabarmen ditzakegu, Estatuak desparekotasunak, genero-desparekotasunak bereziki, eraldatzeko moduko politika publikoak abian jartzeko duten rolari dagokionez.

Estatuak bere ardura, hortaz, lan-merkatura bideratzeaz gain (lan-bazterkeria eta egitura-mailan tinko atxikitzen diren joerak gainditzeko helburuz), ardura are handiago bat hartu behar du zainketa-zerbitzuak emateko, eguneroko lanak errazte aldera, etxeko esparruetan sexuaren araberako lan-banaketa gainditzeko ikuspegia barne. Herrialde gehienetan egiaztatu dugu zainketek politika publikoetatik eta gizarte-segurantzatik kanpo jarraitzen dutela, eta horrek berekin dakar emakumeak kanpoko zein barruko lanarekin gainzamatzea.

Bukatzeko nabarmendu behar dugu, orobat, eremu batzuetan zein besteetan (aldebikoak, eskualdekoak eta are aldeaniztunak) negoziatzen ari diren merkataritza-akordioek ez dutela merkataritza zabaltzea eginkizun bakartzat eta haien xede nagusia, ordea, inbertsiorako arau-esparruak sortzea dela.

Arauketa horiek ekoizpen-egiturak mundu-mailan handitzea ahalbidetzen dute, eta horrekin batera, transnazionalen boterea ere handitzea, haiek izanik globalizazio ekonomikoko prozesutik onura gehien ateratakoak.

Aldi berean, nazioarteko merkataritza zabaltzeko proposamena NDFk—batez ere—bultzaturiko neurri ekonomikoen artean dago, herrialdeen garapena sustatzeko bide gisa, inbertsioen eta zor nazionalen ordainketaren arteko finan-

tza-zirkuitua bermaturik horrela. Munduko Bankuak eta NDFk herrialde periferikoentzat sustaturiko politikek egiten ari diren negoziazio komertzialekin dauzkaten loturak gero eta nabariagoak dira, eta elkarrekin zeharo bat datoz. Politika finantzario eta komertzialen arteko “koherentzia” pixkanaka geratu da agerian, Nazioarteko Finantza Erakundeek (NFE) ekonomia nazionalei inposatu dizkieten “baldintza” deiturikoen bidez. (Caliari eta Williams, 2004).

Latinoamerikako ia herrialde guztietan zabaldu den esportazio-merkatari-tzak kanpo-zorra ordaintzeko baliabideak bermatzen ditu, eta azken horrek, era berean, zikloari eusten dio, esportaziorako behar den azpiegitura sortzeko edo zerbitzuak pribatizatzeke –oinarrizko zerbitzu publikoak bereziki-proiektu berrien beharrian.

Areago, Latinoamerikako zenbait herrialdetan Kongresuek onartzeko dituzte edo dagoeneko onartu dituzte PPPei buruzko lege-proiektuak deiturikoak (*Private-Public Partnerships* ingelesezkoaren siglak). Halakoek beharrezko azpiegiturarako inbertsioa handitzea ahalbidetuko dute, kapital pribatu eta publikoen elkarketan oinarrituz, nazioarteko merkataritza-akordioetan eskatzen den segurtasun-esparrua bermatuta horrela. Hala, errezeta berri bat aipatzen da, ondasun eta zerbitzuak pribatizatzeke formula ezaguna bere egiten duena, errepideak, kabotaje-nabigazioa eta energia pribatizatuz, besteak beste.

Horrek guztiak baditu ondorio batzuk, hobeki esplizitatu behar direnak herriarren eta, bereziki, emakumeen bizitzaren gainean dituzten inpaktuei dagokienez, zerbitzuek normalean berrekoizpen-lan sozialaren zenbait alderdi errazten baitituzte.

Ondorio gisa

Bukatzeko, esan dezakegu munduko nazio gehienak muturreko pobreziake egoerekin batera bizi direla, funtsezko giza eskubideak praktikan bermatu gabe.

Zehazki, emakumeek bizi duten desberdintasunetako egoerak ez du lortu hobekuntza nabarmenik merkataritzaren liberalizazioaren areagotzearekin, eta oso kontrara, ikusi dugu asko eta askotan inbertsioek lehendik dauden genero-desparekotasunak baliatu bakarrik ez, baizik eta badirudi halako desparekotasunak inbertsioak erakarri egiten dituztela.

Testuinguru horrek merkataritzaren eta garapenaren arteko loturei buruzko debate publikoaren beharra inposatzen digu, konpromiso etiko bat ezarrita giza eskubideekin eta nazioarteko justizia sozialarekin.

Gutzizko botere-desoreka dagoen eremu global batean, merkataritza ezin egon daiteke bereizirik nazioarteko mailan baliabideak birbanatzeko konpromisotik.

Premiazko bilakatu da haustea eta errefusatzea garapenerako politika ekonomiko nazionalak, nazioarteko merkataritzaren arau hertsia, eta herrialdeen maileguez eta kanpo-zorrek dakartzaten betebeharrak elkarrekin ka-teatzen dituzten loturak.

Premiazkoa da arrakala gutxitzea ezagueraren nahiz teknologiak erabiltzeko aukeraren aldetik. Egungo kontsumo-ereduak sostengaezinak dira, garapen jasangarriaren ikuspegitik.

Beharrezkoa da, halaber, uneko garapen-ereduak sakon eraldatzea, gaur egun kapital handiaren interesei baino ez baitizkiete erantzuten, bai eta liberalizazio progresiboaren ikuspegia bideraezin bihurtu eta aldatzea ere, negoziatzen ari diren nazioarteko merkataritza-arauetan.

Azkenik, zeharo ezinbestekoa da sistema aldeaniztuna zein haren oinarriak berriz pentsatzeko beharra, MMAn ez ezik, ondorioak direla eta, munduko gobernagarritasunaren beste gune batzuetan ere bai. Premisa horiek guztiak aurrera egin ezean, aldebakarreko botere hegemonikoaren sareetan harra-paturik geratuko gara. Hark bere arauak kostatzen ahala kostatzea baino ez du lortu nahi, eta orain bere erasoak Europar Batasunean zentratzen ari da Aldebiko akordioen negoziazioek izandako gorakada globalak eraso horren egiazko tamaina erakusten digu (besteak beste, TTIP inposatzen ari da orain Europako herritarrei, eta haiek gero eta gehiago errefusatzen ari dira).

Eraso hori osatzen ari da indar neoliberalen berrezartze nabarmen batekin, demokrazien aurreko zein giza eskubideen bermeen aurkako konfrontazioan. Latinoamerikan aurrera egiten du ekonomiaren eta, orobat, giza eskubideen aldetik –emakumei dagokienez bereziki– kontserbadoreak eta fundamentalistak diren sektore batzuk buru, hauteskunde manipulatu batzuetan edo kolpe mediatiko edo parlamentario eta/edo juridiko batzuen bidez. Antzera, gizarte-ongizatearen estatuak desegiten ari dira, eta muga-

rik gabeko Europa baten ametsak amesgaiztoa ematen du gehiago. Duela 70 urte menderatua, badirudi basakeria faxista berriz indartzen ari dela eta atzera ere munduan zehar dabilela. Kapitalismoak egunetik egunera uzten du ageriago bere harrapakari-izaera.

Bibliografía

- Action Aid International. “Dividir para reinar: a resposta da UE e dos EUA às alianças dos países em desenvolvimento na OMC”. John Hilaryk antolatua. 2004ko uztaila.
- Barlow, Maude. “El ALCA y la amenaza para los programas sociales, la sostenibilidad del medio ambiente y la justicia social en las Américas” en “El ALCA en debate, una perspectiva desde las mujeres”. Ed. Norma Sanchís; UNIFEM-Editorial Biblos, 2001. Buenos Aires.
- Barlow, M. y Clarke, T. “Atando cabos: Guia popular sobre OMC y ALCA”. Kanadiarren Kontseilua. Mimeo. 2003. www.canadians.org
- IGTNren buletinak. Webgunea: www.generoycomercio.org/boletines.html
- Caliori, A. eta Williams, M. “The capacity of IFIs to support trade liberalization in low-income and vulnerable countries”, in Commonwealth Finance Ministers Reference Report 2004. Erresuma batua. 2004ko iraila..
- CEPAL. “Transformación productiva con equidad”. Txile. 1990.
- Espino, A. y Azar, P: 2. Faszikula “Comercio y Equidad de Género. La economía global: una visión desde las mujeres”, Capítulo Latinoamericano de la Red Internacional de Género y Comercio -UNIFEM, 2002, Montevideo.

Gaien inguruko hurbilketa bat hemen:

- “El Comercio Internacional: ¿Una Oportunidad para la Equidad Social y de Género?”, Alma Espino eta Paola Azar egi-leena. <http://www.igtn.org/EconoLit/ComercioIntr.pdf>

- Mello, Fátima. "A OMC em meio à crise de legitimidade do neoliberalismo". FASE. Novembro 2002. Rio de Janeiro. Brasil.
- REBRIP – Red Brasileira por la Integración de los Pueblos. Cartilla: "MERCOSUL- União Européia, nos passos da ALCA". Julho 2004. Brasil.
- Rodríguez, Graciela. "Estratégias das Mulheres para a OMC". Edição I. Eqüit. Rio de Janeiro - Brasil. 2003.
- Rodríguez, Graciela y Norma Sanchís. "¿La OMC tiene género?", www.generoycomercio.org, 2003.
- Roll, Eric. "Historia de las doctrinas económicas", gaztelaniazko bertsioa, Fondo de Cultura Económica. 1968. Mexiko.
- Williams, Mariama. "Gender Mainstreaming in the multilateral trade system", Commonwealth Secretariat, Londres. 2003. <http://www.igtn.org/Research/MariamaGMbookreview-June04.pdf>

Merkatariza Askerako Ituna Europar Batasunarekin Ekuadorren

PAULINA MUÑOZ SAMANIEGO

Ecuador Decide Gizarteko Elkarteen Sareko sortzailea eta Emakumeen Eskubideen aldeko Ekuadorreko plataforma feminista eta ezkertiarreko aktibista

Munduko krisiaren (ekonomikoa, ingurumenarena, zibilizazioarena) zergatiak frogatu diren arren, finantza-mafien eta multinazional handien politika kapitalista-neoliberalen inposizioa dela eta, betiko leloarekin jarraitzen dugu: “merkataritza askea”, nahiz eta egiaztatu den horrek herritarrengan duen efektua eta makro-ekonomia suspertzeko ezintasuna. Hainbat krisik erakusten dute eredu hori guztiz agortu dela; areago, esango nuke eredu hori bera dela “krisia”.

Merkataritza Askerako Itunen (MAI) estrategia enpresa transnazionalak eza-rrri dute; ordaina eskatzen dute beren iruzurrengatik eta ondasunak metatzeko daukaten diru-gose aseezinarenegatik, eta beren ustezko “zibilizazioaren” halabeharrezko porrota saihesten eta arintzen saiatzen dira.

Testuinguru honetan kokatzen da Europar Batasunaren erasoaldia; hain zuzen, Kapitalaren eta bere enpresen erasoaldia, beren agenda neoliberala inposatzen baitute merkataritza itunak lortzeko negoziazioen bidez. Hasieran, Elkartze Akordio deitzen ziren itunak, eta gero “Alde Anitzeko Akordio”. Helburua Andeetako eremuko herrialdeetako gobernuei Merkataritza Itun handinahi bat inposatzea da, nahiz eta horretarako ez den kontuan hartu Andeetako Nazioen Komunitatea ahuldu izana eta jada hautsitako bere osotasuna arriskuan jarri izana; izan ere, Bloketik Blokera Elkartze Akordio bat negoziatzeko Andeetako Nazioen Komunitatearen parlamentuak berak dituen oinarriak urratzen ditu itunak, eta, halaber, Elkarriketa Politikoen eta Kooperazioaren zutabeak baztertzeko ditu. Horrek agerian uzten du Merkataritza Askerako Itun bat sinatzean Europar Batasunaren benetako helburua, eta Mandelson Komisarioak halaxe berretsi zuen Liman, 2008ko maiatzean, Latinoamerika, Karibe eta Europar Batasuneko Presidenteentzako Goi-Bileran; bertan baieztatu zuen Elkartze Akordioaren zutabe komertziala, funtsean, Merkataritza Askerako Itun bat zela, eta ez zutela marko horretatik kanpoko beste proposamenik onartuko: “proposamen horiekin tematzen dena negoziatioetatik kanpo geratuko da”.

Adierazpen publikoez harago, eta Merkataritza Askerako Itun baten eduki ezberdinak negoziatzeko EBk agertu duen borondateaz eta ustezko aurrerapenez gain, berriz ere, 2008ko maiatzaren 16an, Europako Batzordeak ziurtatzen zuen ez zegoela prest Ekuadorrekin bideratzeko Kolonia eta Perurekin sinatutako itun komertzialak bezalakoak ez zirenak, herrialde horiek sinatutako MAIaren behin-betiko testuan, 239. artikuluan, xedatutakoaren arabera.

Merkataritza Askerako Itun horrek gure konstituzioa urratzen du, besteak beste, honako artikuluetan: Bigarren kapitulua, 417. artikulua, nazioarteko itun eta bitartekoak; 281. artikulua, elikadura-burujabetza; ekoizpen-faktoreak eskuratzeko berdintasuna; 313. artikulua- Estatuak beretzat gordetzen ditu sektore estrategikoak administratzeko, arautzeko, kontrolatzeko eta kudeatzeko eskubideak, ingurumen-iraunkortasun, ardura, prebentzio eta eraginkortasun printzipioen arabera; 400. artikulua- bioaniztasunaren gaineko burujabetza, zeinaren kudeaketa belaunaldien arteko arduraren bidez egingo den. Bioaniztasuna eta bere osagai guztiak kontserbatzea (bereziki, nekazaritzako zein basoko bioaniztasuna eta herrialdearen ondare genetikoa) interes publikokoa da.

421. artikulua- Nazioarteko merkataritza-bitartekoak ezartzeak ez ditu kalte-tuko, ez zuzenean ez zeharka, osasunerako eskubidea, sendagaiak eskuratzeari, input-ak, zerbitzuak, ezta zientzia zein teknologia-aurrerabideak ere.

422. artikulua- Nazioarteko bitarteko edo itunik ezin izango da egin, baldin eta Ekuadorko estatuak jurisdikzio burujabea uzten badu, nazioarteko arbitrajeak hala eskatuta, Estatuaren eta pertsona fisiko zein pertsona juridiko pribatuen artean, kontratuen edo merkataritzaren inguruko eztabaidetan.

402. artikulua- Debekatuta dago eskubideak aitortzea, jabetza intelektualekoak barne, eratorritako edo sintetizatutako produktuen gainean, baldin eta bioaniztasun nazionalari lotutako ezaguera kolektiboaren bidez lortutako produktuak badira.

288. artikulua- Erosketa publikoek eraginkortasun irizpideak beteko dituzte, eta baita gardentasun, kalitate, ingurumen- eta gizarte-erantzukizun irizpideak ere. Halaber, produktu eta zerbitzu nazionalak lehenetsiko dira, bereziki ekonomia solidario eta herrikoietatik datozenak, eta ekoizpen-unitate txiki eta ertainetatik datozenak”, besteak beste.

MERKATARITZA ASKERAKO ITUN HONEN ARRISKUAK ZENBAIT ARLOTAN:

Nekazaritza

Europako produktuak, diruz lagundutakoak eta goi-mailako teknologiarekin egindakoak, abantailaz lehiatuko dira Ekuadorko merkatuan, produktu nazionalen aldean. Hori hala da Europar Batasunak nekazariak diruz laguntzen dituelako urteko 100.000 milioi dolar inguruko kopuruarekin. Ondorioz, EBko produktuak merkeagoak dira nekazari ekuadortarrek ekoizten dituztenak baino. Horrek gure herrialdeko nekazaritza-ekoizleak porrotera eramango lituzke. Gerta daiteke Ekuadorrek Europako produktuak kontsumitzea, bertako ekonomiaren eta komunitateek erabiltzen dituzten milaka urteko produktuen kalterako.

Genetikoki eraldatutako haziak (transgenikoak) sartzearekin batera, teknologia-paketeak dakarren produktu agrokimikoen nahitaezko erabileraren parte bezala, antzinako haziak desagertzea ekarriko du, eta herritarrak Europako produktuen mendeko bihurtuko ditu; horrela, pixkanaka, elikadura-burujabetza eta bioaniztasuna galduko dira, eta eragina izango du ingurunean.

Aipatu beharra dago, ituna indarrean sartu aurretik ere eragina sentitzen hasia zela jada sektore horretan. Izan ere, osasun-eskakizunak eta fitosanitarioak aurretiko prozesuaren parte dira, eta ekoizle txiki eta ertainak ez daude eskakizun horiek betetzeko moduan, kostu altuarengatik eta teknologia eskuratzeko ezintasunarengatik.

Lurra

Ekuadorren eta Europar Batasunaren arteko Merkataritza Akordioaren (MA) helburuetako bat atzerriko inbertsioak sustatzea da. Horretarako, lurraren eta uraren merkatua liberalizatu egiten da; ondorioz, gure ekonomia berriz ere primario izatera itzuliko da, kapital transnazionalaren premien arabera.

Kontuan hartu behar dugu, Ekuadorren, lurraren jabetza esku gutxitan pilatuta dagoela (Estatistika eta Erroldaren Institutu Nazionalaren (INEC) arabera, jabe txikiek 2.481.019 hektarea dituzte eta 712.035 pertsonaren esku daude; kontzentrazio handiena, 3.593.419 hektareakoa, 6.616 jaberren esku dago). Ekoizpen-lur gehiena Elikadura-Burujabetza bermatzen EZ duten

laborantzeta erabiltzen da (bananondoa, olio-palmondoa eta azukre-kanabera), eta lurra eskuratzeko bidegabekeria hori gai nagusia da indigena eta nekazarien mugimenduen borroken agendan. “Nekazaritza Erreforma” ezinezko helburu bihurtzen da Merkataritza Akordioa (MA) Europar Batasunarekin sinatzearekin. Izan ere, Europar Batasuna da atzerriko inbertsioak babesteko neurriak ezartzen dituena; hala nola, Ekuadorko estatuak atzerriko jabetzari gehienezko muga bat ezartzea debekatzea.

Horrek Elikadura Burujabetzari eragingo lioke, nazioarteko kapitalak interesa duelako salgaiak edo esportatzeko produktuak ekoizteko: Ekuadorko estatuak ezingo dituenek lurra eta uraren gaineko neurriak hartu eta politikak ezarri, bere nekazaritza-politikaren burujabetza galtzen du.

Gainera, Merkataritza Akordioak edo Merkataritza Askeko Itunak presioa egiten du, Estatu sinatzaileek inbertsioetarako inguru positibo bat sor dezaten; horretarako, ezarrita dago, merkataritza-trukearen mesedetan, herrialdeetako legeria aldatu behar dela.

Gertakari horiek egiaztatu daitezke, besteak beste, jarraian xehatuko ditudan erreformen bidez:

- Konstituzio-emendakinen multzoak barne hartzen ditu langileen eskubiak murriztera zuzendutako neurriak⁵¹.
- Erreformatutako bigarren mailako legeriaren alderdien artean, honakoak daude: Ekoizpen Kodea, 2,4 eta 8 Mandatu Konstituziogileak; Enpresa Publikoen Lege Organikoa (LOEP), Unibertsitate Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOES), Zerbitzu Publikoaren Lege Organikoa (LOSEP), 1701 eta 225 Dekretu Betearazleak, Uraren Legea, Lurraren Legea, Lan Kodea, Ezagutzaren Ekonomia Sozialaren Legea, Ingurumen Kodea, Zigor Kode Organiko Integrala (COIP), eta 016 Dekretu Betearazlea, zeinak erresistentzia kriminalizatzen duen eta helburu duen antolakundearen kontrola.
- Gobernuak premiazko Lege-proiektu Ekonomikoa aurkeztu du aliantza publiko-pribatuak (APP) sustatzeko; horrek bidegintzan eta bestelako obra publikoetan inbertitzeko bidea ematen du, eta baita Estatuaren aktiboak eskuratu eta kudeatzeko ere, hala nola, portuak, aireportuak, gasolina-zerbitzuguneak eta errentagarri diren beste batzuk. Lege-proiektu horrekin batera aurkeztutako eduki batzuk honako hauek dira:

⁵¹ Sindicalismo público ecuatoriano, servicios públicos y bienes comunes de la humanidad.

Aurrekarietan aipatzen denez, “... sektore pribatua bere baliabideak inbertitzen eroso sentitu dadin, funtsezkoa da baliabide horiek etorkizuneko diru-sarreraren fluxu batez laguntzea; diru-sarrera horien iturria izan daitezke erabiltzaileak (trukatze-justizia irizpideen arabera ordainketa) edo Estatua bera (banaketa-justizia irizpideen arabera ordainketa)”.

Kontuan hartuzkoen barruan, Lurralde Ordenamendua, Autonomia eta Deszentralizazioaren Kode Organikoan aurreikusitako “kudeaketa zuzena” aipatzen da (276. artikulua eta hurrengoak); kudeaketa zuzentzat hartzen da erakundearen kudeaketa zuzena, enpresak sortzearen bidezkoa, kontratu bidezko kudeaketa, ordezkari bidezko kudeaketa, edota ekonomia mistoko enpresen eta ekimen pribatuaren bidezko kudeaketa, besteak beste.

Gobernuak Asanblada Nazionalari bidalitako testuaren arabera, Legearen xedeak... : “... pizgarriak finkatzen ditu elkartze publiko-pribatuaren ereduaren arabera proiektuak gauzatzeko, eta horiek ezartzeko erakundetasunerako”. Halaber, Legearen xedeak dio pizgarri jakinak finkatzen direla finantzaketa etekintsua eta atzerriko inbertsioa sustatzeko.

Eztabaidei dagokienez, Lege-proiektuak dio aldeek (inbertitzaileek) elkarriketa edo bitartekaritza gabe ez balute adostasunik lortuko legean bertan aurreikusitako epean, eta bide administratiboa agortuta, eztabaida konpondu ahaliko dela “arbitraje nazional edo nazioartekoaren bidez, ordezkari bidezko kudeaketa kontratuan hori adostu izan balitz”.

Atzerriko finantzaketa eta inbertsioa sustatzeko pizgarriei dagokienez, lege-proiektuak “neutraltasuna” sustatzen du “ekoizpenen finantzaketaren jatorrian, (...) inbertsioak garatu, handitu edo abiarazteko bidea ematen duten baliabideen jatorria —legezkoa, nazionala edo atzerrikoa— edozein dela ere”.

Erreformen artean beste lege batzuk hartzen dira kontuan, interes jakina dutenak eta onartu egin direnak:

Barneko Zerga Araubidearen Lege Organikoaren erreforma, zeinak arautzen baitu elkartze publiko-pribatuaren garatzen diren proiektu publikoak errenta-zergaz gabetzea. Zergaren gabetze hori 10 urtekoa da, proiektu horiek (APP) garatzeko Ekuadorren sortzen edo egituratzen diren sozietateentzat, APParen objektuaren barruan ezarritako eragiketek diru-sarrerak sortzen dituzten lehenengo zerga-ekitalditik, betiere proiektua Elkartze Publiko-

Pribatuen Batzordeak lehenetsi dituen sektoreetako batean garatzen bada, legezko baldintzen barruan.

Kontratazio Publikoko Sistema Nazionalaren Lege Organikoaren erreformak ahalmena ematen dio sektore publikoari elkartzeko publiko-pribatuko proiektu publikoak gauzatzeko ondasunak onura publikoko ondasun aitortzeko.

Beheko koadroan nabarmentzen dira Merkataritza Askerako Itunek indarrean sartu aurretik eta bitartean abiatutako prozesuen erreformak⁵²:

Ardatza	KOLONBIA	MEXIKO	EKUADOR
Modalitate ezberdinetatik pribatizatutako sektoreak eta arloak	Pribatizatuta: <ul style="list-style-type: none"> · Osasuna · Hezkuntza · ELECTRICARIBE · UNE (Negozio Estrategikoen Unitatea) · Telekomunikazioak 	Pribatizatuta: <ul style="list-style-type: none"> · TELMEX · NAFINSA, finantza-bankua, Sociedad Mexicana de Crédito Industrial · Sosa Texcoco · PEMEX telegrafo mexikarrak · Aireportuak eta zerbitzu osagarriak · Diesel Nacional (DINA) enpresa autobusbileak. · Azukre enpresa · Osasuna (pribatizatze bidean) 	Hirugarrenen esku utzia (pribatizazioaren modalitate estalia) <ul style="list-style-type: none"> · Osasuna, ospitaleratzea, kanpo-kontsulta, laborategia. · Jagoletza · Garbiketa · Ospitaleetako elikadura · Hidrokarburoak Emakida <ul style="list-style-type: none"> · Errepideak eta aireportua Pribatizatze prozesuan <ul style="list-style-type: none"> · Estatuaren gasolina-zerbitzuguneak

52 ISP, Sindicalismo público ecuatoriano, servicios públicos y bienes comunes de la humanidad, Paulina Muñoz Samaniego, Quito, 2015eko urria.

Ardatza	KOLONBIA	MEXIKO	EKUADOR
Kontrol politikorako eta baldintzak sortzeko estrategiak	<ul style="list-style-type: none"> · Garapenerako Plan Nazionala · Alianza Publiko-Pribatua · Buruzagien kooptazioa eta erailketa · Kaleratze masiboak, protestaren kriminalizazioa · Estatuak azpiegituran inbertitzea 	<ul style="list-style-type: none"> · Erreforma legalak · Sindikatuen kontrola · Aliantza Publiko-Pribatua · Buruzagien kooptazioa eta desagerketa · Kaleratze masiboak · Protestaren kriminalizazioa · Estatuak azpiegituran inbertitzea 	<ul style="list-style-type: none"> · Garapenerako Plan Nazionala · Erreforma legalak · Kaleratze masiboak · Buruzagien kooptazioa · Protestaren kriminalizazioa · Estatuak azpiegituran inbertitzea

Tratu Nazionala

Merkataritza Itunaren 113. artikulua esaten du enpresa europarrek “Tratu Nazionala” jasoko dutela, hau da, kapital nazionalak dituen abantaila berdina izango dituztela. Horrek ura enpresa transnazionalen esku geratzea eta gehiago metatzea eragingo du.

Ekueadorren eta Europar Batasunaren arteko MAIak edo Merkataritza Akordioak uraren merkatu librean irekitzen du; horrela, urak irispide osoko Giza Eskubidea izateari uzten dio, eta nekazarietzako salgai eskuraezin bihurtzen da.

Ekueadorren ura eskuratzeko bidegabekeriak lotura zuzena dauka luraren metaketarekin, Estatistika eta Errolda Institutu Nazionalak (INEC) emandako datuen arabera. Ureztatze uraren %37 baino ez zaie helarazten nekazariari, eta %63 nekazaritza-industriaren latifundioei. Itunarekin (MAI), baserriko familia-nekazaritza behin-betiko suntsituko litzateke.

Bestalde, gobernuaren eta enpresariaren argudio nagusietako bat esportazioak handitzeko beharra da, herrialdeko ekonomia berraktibatze eta lan-gabezia ekiditeko.

Europako merkatua helmuga garrantzitsua izan arren petrolioaz gain egiten diren Ekuadorko esportazioentzat, horietako gehienak nekazaritza-produktuak dira (bananondoak, olio-palmondoak, izkirak eta loreak), eta ekoizpen hori kapital handia duten lurjabe handien eskuetan metatzen da, haiek baitira akordioaren onuradun bakarrak”.

Halaber, nekazaritza-industriak hektarea bakoitzeko 0,1 eta 0,7 pertsona ingururi ematen dio lana; horrek esan nahi du, akordioa sinatu gabe ere, ez legokeela lanpostu-galera masiborik, haiek diotenaz bestela.

Aitzitik, Europako produktuen inportazioak mugarik gabe onartzeak ekoizpen nazionala suntsitzen du eta ekoizpen txikiak (hektarea bakoitzeko 1,5 eta 3 pertsona ingururentzako lana ematen duenak) desplazatzen ditu.

Ondorioz, esportazioen hazkuntzaren etekinak esku gutxitan geratuko lirateke eta esportatzeko monolaborantza haziko litzateke, baserrietako nekazaritza-ekoizpena behin-betiko ordezkatzuz.

Garrantzitsua da munduan gertatzen denaz jabetzea inbertitzaileen interesei dagokienez; bereziki, zerbitzuen eta uraren arloan⁵³.

- Lehenik, kontuan izan behar da urak meatzaritza-enpresentzako daukan kostu baxua, bestelako kosturik gabe erauzten erraza den baliabide naturala baita.
- Bestalde, kalkulatzen da gaur egun hegoaldeko pertsona batek eguneko 20 litro ur kontsumitzen dituela batez besteko.
- Estatubatuar edo europar batek 600 litrotik gora kontsumitzen ditu batez besteko.
- Kolonbian egindako ikerketen arabera, kontsumo maila horrekin, datozen 20 urteetan 20 milioi pertsonak ez dute ura eskuratzerik izango.

Horrela ulertzen dugu Munduko Bankuaren teoria; horren arabera, ura lurra-
ren beste produktu bat bezala tratatu behar da, eta kapital pribatuak kudeatu behar du, “optimizatu” dezan. Halaber, teoria horrek dio urak, epe luzean, munduko merkatuan funtzionatuko duela, petrolioak bezala.

53 ISP, Sindicalismo público ecuatoriano, servicios públicos y bienes comunes de la humanidad, Paulina Muñoz Samaniego, Quito, 2015eko urria.

Horrela, ALCA (Ameriketako Merkataritza Askerako Eremua), MAI (Merkataritza Askerako Ituna), TISA (Zerbitzuen Saleroskari buruzko akordioa) edo TBI (Inbertsioen Aldebiko Ituna) itunen inguruko negoziazio guztiek zerbitzuak azpimarratzen dituzte, eta aintzat hartzen dute oinarrizko zerbitzuen liberalizazioa, desarautzea eta pribatizazioa, hori guztia zuzenduz, besteak beste, uraren, energiaren, telekomunikazioen, osasunaren eta hezkuntzaren merkatu globalak ezartzera. Interes horiek ALCA diseinatzen eraman zituen, eta, beranduago, Merkataritza Askerako Itunak diseinatzen.

Jabetza intelektuala

Beste arlo askori eragiten dio: osasuna, nekazaritza, antzinako ezagutza eta bioaniztasuna.

Osasuna

Europar Batasunarekin konprometitutako alderdien artean osasun kontuak daude. Gai kezagarrienetako bat sendagaiak, ondare genetikoa eta bioaniztasuna eskuratzearen kontua da. Beren enpresa farmazeutikoen sendagaientzako babesak (patenteak, froga-datuak, erabilera bikoitzak) adosten dira, merkatuan duten monopolioa hedatzea helburu.

Sendagai batek babesak duenean (patentea), ez dauka lehiakiderik merkatuan patente horrek irauten duen bitartean. Denbora tarte horretan, ezin da ekoizti sendagai generikorik, askoz merkeagoak eta kalitate berekoak badira ere. Erabilera bikoitzak aplikatzearekin batera, adibidez, jada merkatuan dauden sendagai baten prezioa bat-batean igo daiteke, eta bere bertsio generikoak merkatutik bota ditzake. Horrek dakartzan kostuek klase herritarri eragiten diote bereziki.

Inbertsioak

Europar Batasunak bermeak eskatzen dizkie beren enpresen inbertsioei, “zeharkako desjabetzea” bezalako neurriekin; neurri horrek Ekuadorko estatua epaitzen uzten dio Europako inbertitzaileari, estatuak inbertsioei “eragiten” dieten neurriak ezartzen dituenean (ingurumenaren babesak, kontsumitzaile eta komunitateen eskubideen defentsak, zerga-politikaren aldaketak, etab.)

Eskatutako beste neurri batzuk “Gehien Mesedetutako Nazioa” eta “Tratu Nazionala” delakoak dira; lehenaren bidez, Ekuadorko estatuak beste herrialde bati eman diezaiokeen pribilegiarik handiena exijitzen du Europar Batasunak, eta, bigarrena, enpresa europarrek ekoizle nazionalen tratu bera jasotzeko buruzkoa da.

Atzerriko inbertsioak gehiegi babesten direnean eta inbertsio nazionalen tratu bera jasotzen dutenean lehia desleiala gertatzen da; eta, larriena, Ekuadorko estatua diru kopuru handia ordaintzera arriskatzen dela da, blindatze hori mantendu ezean.

Nazioarteko arbitrajea duen erakunde baten irizpena onartzean, Ekuadorrek salaketak galtzeko aukera gehiago ditu, historikoki horrela frogatu baitute erakunde horien erabakiek.

Erosketa Publikoak

Europar Batasunak eskatzen du enpresa nazionalak bezala tratatu behar direla bere enpresak, ura, energia, telekomunikazioak, baliabide natural ez berriztagarriak edota garraioa bezalako sektore estrategikoetan zerbitzuak eskaintzeko lizitazioen partaidetzan.

Ondorioz, Ekuadorko ekoizleek porrot egin dezakete eta sektore estrategikoetako zerbitzuak pribatizatu daitezke.

Eragina emakumeen bizitzetan

Merkatua liberalizatzeak ez ditu aintzat hartzen generoaren alderdi jakin batzuk; hortaz, bidegabekeria eta diskriminazioa sortzen eta areagotzen ditu, lan prekarioaren feminizazioa handitzen du, emakumeen esplotazioa areagotzen du eta beren biziraupen estrategiak galarazten ditu.

Gainera, merkataritza askeak emakumeak lan ez-arautuak burutzera bultzatzen ditu. Emakumeen lana jardunaldi hirukoitzekin areagotzen da, eta beren denbora librea murrizten da; ondorioz, jada kaskarra den emakumeen bizi-kalitateak okerrera egingo du.


Frogatu egin da merkataritza askeak ez duela ondorio positiborik: ekonomia eta burujabetza nazionala suntsitzen ditu, eta herrialdeetan talde txikiak

indartzen ditu. Mexikoko *maquilar*en kasua (muntaketa-industria prekarioa) eredu horrek emakumeengan duen eragin itzelaren adibide biribila da.

Lanaren arloan, Estatistika eta Errolda Institutu Nazionalaren (INEC) arabera, honakoa da lanaren egoera:

2007ko eta 2014ko abenduaren artean, maila nazionalan, emakume eta gizonen arteko enplegu egokiaren tasan arrakala esanguratsua dago.


13. grafikoa. Sexuka, nazioko enplegu tasa egokia, 2007-2014ko abendua (Ehunekoetan)



Iturria: Lanaren, langabezia eta azpienpleguaren Nazio-Inkesta (gazt. ENEMU)

Egilea: INEC

15. grafikoa. Sexuka, nazioko enplegu tasa desegokia, 2007-2014ko abendua (Ehunekoetan)



Iturria: Lanaren, langabezia eta azpienpleguaren Nazio-Inkesta (gazt. ENEMU)

Egilea: INEC

Enplegu desegokiaren tasa 2013 eta 2014ko abenduaren artean 0,6 puntu hazten da emakumeen kasuan; gizonen kasuan 2,4 puntu jaisten da. Aldi guztietan, emakumeen lan desegokiaren tasaren ehuneko esanguratsu bat hauteman daiteke. 2014ko abenduan, emakumeen tasa %55.9 izan zen, eta gizonena %40.5; 15,4 puntuko ezberdintasuna.

Egindako hurbilketen arabera, Merkataritza Askerako Itunak sinatu ondoren Kolonbia eta Mexikon gertatutakoa konparatu eta gero, zifra horiek gora egingo lukete, Ekuadorko emakumeen eskubideak eta bizitza gehiago urratuz.

Kontsultatutako iturriak:

- El Acuerdo Comercial con la Unión Europea: Potenciales impactos sobre la agricultura familiar campesina y otros sectores vulnerables, Ecuador Decide, Centro de Derechos Económicos y Sociales (CDES), Instituto de Estudios Ecuatorianos (IEE), Quito, 2014ko martxoa.
- ISP, Sindicalismo público ecuatoriano, servicios públicos y bienes comunes de la humanidad, Paulina Muñoz Samaniego, Quito, 2015eko urria.
- Encuesta Nacional de Empleo y desempleo, 2007-2014.

MMA eta MAI, NPB-n izan duten eragina eta nekazaritza-sektorean eragin dituzten ondorioak

ANDONI GARCÍA

EHNE Bizkaia

EUROPAKO NEKAZARITZA POLITIKA

Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) jatorria ezagutzeko Stressako Konferentziara (1958) jo behar dugu, II. Mundu Gerrak eragindako hondamena oraindik agerian zegoenean. Horregatik, NPBk, hasiera batean, gerraosteko Europaren premiei erantzuteko eta, ikuspegi historiko handia erakutsiz, Europa elkartu baten eraikuntzan laguntzeko asmoa agertu zuen.

NPB sortzeko funtsezko hiru oinarri ezarri ziren: merkatuaren batasuna, Europako Erkidegoaren lehentasuna eta finantza-elkartasuna, nekazaritza-produktibitatea handitzeko eta hornidura hobetzeko eskaintza nahikoa sortzeko helburuz, bai eta nekazaritza-errentak igotzeko ere, nekazariak bidezko ordainsaria eskura zezaten. Horretarako, merkatu-prezio eta esku-hartze sistema berdinak ezarri ziren Europako Erkidegoaren lurralde osoan, kanpoko lehiakideen aurrean, barne ekoizpenaren defentsa hertsia egin zen mugetan eta aurrekontu komunetik finantza-estaldura bermatu zen. Azken finean, NPBren pisu guztia prezio eta merkatuen gaineko politikaren aldera eramango zuten helburuak. Denbora gutxian, Merkatu Antolakunde Bateratuak (MAB) Europako nekazaritza-ekoizpenaren %85 baino gehiago hartu zuten. Politika honen arrakasta eztaba daezina izan zen, produktibitateak eta nekazaritza-produktuen eskaintzak modu ikusgarrian gora egin baitzuten.

Ekoi zlearen mesederako merkatu-neurriak xedatu zituen politika protekzionista hau nekazaritza-ekoizpena etengabe hazten ari zen une batean ezarri zen, eta horrek, hirurogeita hamarreko hamarkadan, Europako Erkidegoan nekazaritza-produktu nagusien, bereziki kontinentalen, soberakinak sortu zituen. Ondorioz, neurri murriztaileak ezarri behar izan ziren; esate baterako, esne-kuotak.

1992ko NPB-REN ERREFORMA (Egokitzapena, nazioarteko negoziazioetara akoplatzea (GATT-geroko MMA))

Bai barne-egoerak (nekazaritza-soberakinak eta aurrekontu-arazoak) bai kanpoko presioek lagundutako 1992ko NPBren erreformak, GATTaren gaineko

Uruguako Errondako alde anitzeko negoziazioen baitan, aldaketa sakona ekarri zuen. Hala, prezio-murrizketak ezarri ziren Merkatu Antolakunde Bateratu sektorial nagusietan, horiek neurri batean azaleraren edo abelburuen araberrako ordainketa konpentsatzaileen bidez partzialki orekatu zirelarik. Gainera, ekoizteko lurren portzentaje bat nahitaez uzteko edo ustiategiak abelburu-kopuru batera mugatzeko baldintza ezarri zen, ekoizpena kontrolatzeko hainbat mekanismo eraginkorragoekin batera, hala nola oinarritzko azalera edo kuota jakin batzuk mantentzea. Erreformatik hainbat neurri osagarri (nekazaritza eta ingurumenari buruzko neurriak, erretiroa aurretik nekazaritza-lana uztea eta nekazaritzarako lurak basotzea) barne hartu zituen baita ere.

Europako Erkidegoaren eta Estatu Batuen arteko Blair-House Itunaren ostean, 1992ko azaroan, ordainketa konpentsatzaileak "kutxa urdineko" ordainketatzat hartu ziren, Uruguako Errondako Nekazaritza Akordioaren testuinguruan. NPBren neurri osagarriak, bestetik, "kutxa berdeko" ordainketatzat hartu ziren. Horri esker, Uruguako Errondako negoziazioak itxi eta, 1994an, Marrakecheko Akordioa sinatu ahal izan ziren.

1992ko NPBren erreformatik aurrera, erabaki zen ekoizleari ordaindu beharreko prezioen erreferentzia nazioarteko merkatuarena zela. Muga-zergak murrizten hasi ziren, nazioarteko merkatuko ekoizpenen inportazioa errazteko, eta ekoizleari ordaindutako prezioak jaitsi egin ziren, askotan ekoizpen-kostuen azpitik gelditu zirelarik. Horrek elikadura-industriaren interesak ase zituen, barne-merkatuan irabazi gehiago eskuratzea eta prezio baxuetan esportatzea, elikagaien nazioarteko merkatua menperatuz, ahalbidetzen zuen ekoizpen merkea eskaintzen baitzuen.

1992ko erreforma honekin hain zuzen hasi ginen Elikadura Subiranotasunaren eskubidea galtzen, merkatuen eta haien erregulazioaren gainean erabakitzeke eta egungo nekazaritza- eta elikadura-eredua defintzeko ahalmena galduz. Nekazaritza eta elikaduraren negoziaren menpe utzi zen herritar guztiei elikadura osasungarri bat bermatzeko eskubidea. Izan ere, nazioarteko merkatuek, haien eragin handia zela-eta, erabakiko zuten Europako merkatuen jokaera.

1996an, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) Elikadurari buruzko Munduko Goi Bilera zela bide, La Vía Campesina mugimenduak Elikadura Subiranotasunaren planteamendua azaldu zuen GATTaren inguruko negoziazioen aurrean, herriek nekazaritza- eta elikadura-politiken gainean erabakitzeke duten eskubidea aldarrikatzeko eta, hala, baserritar

txiki eta ertainen esku jarritako nekazaritza-eredu iraunkor bat defendatzeko. Elikadura osasungarria oinarritzko eskubidea da biztanleriarentzako, ez da espekulatzeko eta nazioarteko merkatuetan negozioa egiteko erabil daitekeen salgaia. Aldarrikapen hori, gaur egun, globalizazioaren eta politika neoliberalen aurkako munduko planteamendu alternatiboaren ardatza da.

2000 Agenda. 2003ko Tarteko Erreforma. 2008ko Erreforma. Ekoizleei doikuntzak egiten eta globalizaziora moldatzen jarraitzen dugu

NPBren hurrengo erreforma 1999an onartu zen, 2000-2006 aldirako finantza-aurreikuspenen gaineko 2000 Agendaren erabaki bateratuen, Egitura Funtzen erreforma berriaren, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako Herrialdeen (EEEH) atxikimendurako negoziazioen hasieraren eta politika komunen erreformaren, NPB barne, baitan. Prezioak berriro ere jaitsi egin ziren; belarkien laborantzarako laguntza gehienak bateratu egin ziren (ordainketa zuzen izenez ezagutu dira hortik aurrera); abereengatiko primak osatzeko “gutun-azal nazionalak” ezarri ziren; estentsifikazioa indartu egin zen eta lurak borondatez uzteko ekimenarekin jarraitu zen. Era berean, laguntzak ekologiarekiko baldintzatu ziren eta modulazioaren kontzeptua ezarri zen; bi neurri horiek ezartzearen ondorioz kenduko lirатеkeen kopuruak, halakorik balego, NPBren laguntza-neurriak finantzatzeko erabiliko lirатеke.

Erreforma hau, haatik, behar bezalako oinarririk gabe itxi zen, epe ertainera “berrikusteko” aukera zabalik utzita. Hala, 2003ko erreforma, hasiera batean 2000 Agendako erabakiak berrikusteko soilik aurreikusi zena, hain zuzen, NPBk bizi izan duen erreforma sakonena izan zen. Helburua zen MMAren Dohako Errondako negoziazioei aurrera egiten laguntzea, ordainketa baka-rraren oinarria eta ekoizpenerako laguntzen desakoplamendua gehituz, eta EEEHen hedapena erabakitzea, NPBren laguntzak Estatu kide berriei ere eskainiz. Bestetik, kontsumitzaile eta zergadunen interes eta kezak handituz joan zirenez, antza, baldintzapekotasun-sistema indartu egin zen eta modulazioa derrigorrezko bihurtu. Hala ere, ez zen konpondu gaur arte iraun duen laguntzen banaketa desegoki historikoa; izan ere, garai hartan laguntzen %80 jasotzaileen %20k jasotzen zituzten. Halaber, landa-garapenean enfasi gehiago jarri zen, baina ez zitzaion despopulatze azkarraren arazoari heldu.

Ez zitzaion heldu ezta ere nekazari-kopuruaren murrizketari eta horren ondoriozko herri askoren abandonuari, ez eta prezioen beherakadak eta gaizki banatutako laguntza ez eraginkorrek eragindako errenta-galerari ere.

2007ko azaroaren 20an, Europako Batzordeak ofizialki abiatu zuen NPBren Erreformaren azterketaren inguruko eztabaida, COM (2007) 722 Komunikazioa (“NPBren erreformaren azterketarako prestatzen”) aurkeztuz. NPBren erreformaren azterketa, 2003an, NPBren Bitarteko Erreformarekin hasi eta hortik aurrera garatu egin zen prozesu baten hurrengo etapa izan zen: Erreforma Mediterranea (2004 - kotoia, oliba-olioa eta tabakoa), Azukrea (2006), Frutak eta barazkiak (2007), Ardoa (2007) eta Merkatu Antolakunde Bateratu bakarra (2008).

Erreforma-prozesu hau, besteak beste, desakoplamendua, modulazioa, baldintzapekotasuna, desarauketa, liberalizazioa eta finantza-diziplina kontzeptuetan oinarritu zen. Europar nekazaritza krisi-egoeran egon arren, Batzordeak ondorioztatu zuen prozesu arrakastatsua izan zela eta europar nekazaritzaren lehiakortasuna eta munduko nekazaritza-merkataritza hobetzen zituela.

2000 Agendan, 2003ko Erreorman eta ondorengoetan, Europako Batzordeak gizartearen aldarrikapenak edota eztabaidak maila politikoa hainbat kontzeptu sartzeko erabili ditu, hala nola nekazaritzaren multifuntzionaltasuna, modulazioa, baldintzapekotasuna, landa-garapena, eta abar. Alabaina, onartutako baliabide eta neurriak ez zetozen bat ez kontzeptuekin ez helburu teorikoekin.

Eztabaida hau piztu zenean munduko nekazaritza-prezioak indartsu zeudeenez, Batzordeak eskaintza kontrolatzeko mekanismoak (esne-kuotak, nahitaezko uztea) kentzeko erabakia justifikatu ahal izan zuen, beharrezkoak ez zirela argudiatuta.

2008ko NPBren azterketak bidea egin zuen 2013ko azken erreformarako, eta “2020 Helmuga” izenaz ezaguna da.

2013ko Erreforma. 2020 Helmuga

Europako Batzordeak, lehen hausnarketa-analisan, NPBrekiko eta eragingo zituen ondorio kaltegarri askoekiko ikuspegi kritikoa azaldu bazuen ere, ez zuen ezertarako balio izan, gure susmoen arabera, onartutako dokumentuak jada ezagutzen genuen hondamendia areagotu baitzuen.

EBk nekazaritza, elikadura eta enplegua ikuspegi neoliberaletik ikusten ditu

oraindik. Haren aburuz, nekazaritza-negozioaren esferak dira eta, hortaz, merkataritza askeko negoziazioen eta merkatuen espekulazioaren mende daude.

NPB berria ezarri zenetik 2 urte igaro direnean, nekazariak beren gain hartzen dituzten nekazaritza-prezio eta -kostuen "hegakortasuna" handiagoa da, gelditzen ziren merkatu-baliabide urriak kendu direnetik aurrera. Oro har, egoera hori prezioen beherakadan eta ekoizpen-kostuen hazkundean islatzen da.

Esnearen, erremolatxaren edo ardoaren sektorean ekoizpen-kuotak kentzeko, behi ume-hazlearen eskubideak kentzeko eta laguntzak desakoplatzeko erabakiek sektore hauetan ondorio aipagarriak eragin dituzte. Era berean, muga-zergak murrizteak ekarri duen merkatuen irekierak eta EBko ekoizpen-kostuak aintzat hartzen dituzten prezioekin esku hartzeko baliabideen gabeziak, oro har, nazioarteko merkatuen eta merkatuetako espekulazioaren intzidentzia zuzenagoa eragin dute nekazaritza-sektore osoan eta baita elikadura-sektorean ere.

Esne-kuotak kentzeko krisi larria eragin du esnearen sektorean. Abeltzainek beren gain hartzen dituzten prezioen beherakada ikaragarria izan da, eta ekoizpen-kostuen oso azpitik daude Europa osoan. 2015eko apirilaren 1ean Espainiako estatuan kuotak kendu zirenetik, 2.000 ustiategi inguru murriztu dira. Horrez gain, egiaztatu ahal izan dugu EB bera baliabide eraginkorrik gabe gelditu dela prezioen krisiari aurre egiteko. MMan jasotako akordioekin bat eginez, merkatuak arautzeko eta kudeatzeko baliabideak desagerrarazteko erabakiak gobernuak merkatuen gainean eta merkatuetako espekulazioaren gainean erabakitzeko ahalmenik gabe uzten ditu. Neurririk hartu gabe hainbat hilabete igaro ondoren, ekoizpenaren borondatezko murrizketa abian jarri zen. Neurria, ordea, ahula eta kontraesankorra zen, batzuek ekoizpena murrizten zuten bitartean beste batzuek hazten jarraitu zezaketen-eta. Esne-industriak nahi duen tokietan ekoizpena deslokalizatu egiten da.

Izan ere, hau mehatxu larria da esne-ekoizle guztientzat. Sorian, Europako ganadutegi handiena eraiki nahi dute: 20.000 esne-behi. Aldaketa horrek 400 ustiategi, 740 abeltzain inguru hurbileko eskualdetan, baino gehiago desagerraraziko lituzke.

2013ko erreformak mahai gainean utzi duen baliabide bakarra laguntzak dira. Baina laguntza horiek, aldi berean, "pozoitsuak" dira, nekazariei prezio

artifizialki baxuak ordaintzea justifikatzen dutelako eta, bestetik, beharrezkoak direlako. Izan ere, laguntzarik gabe, hondamendia handiago izango litzateke, beste nekazaritza-politika bat lortzen ez dugun bitartean. Gainera, laguntzen mugen kontua ez zen irmotasunez landu eta laguntzak, lehen aldiz, hektareekin lotu egin ziren. Erabaki horrek laguntzak etekin historikoen eta ustiategiaren tamainaren arabera finkatzen lagundu zuen.

NPB honek subsidiarotasun handiagoa ekarri zuen, eta hainbat erabaki garrantzitsu Estatu kideen esku utzi ditu. Hala ere, Espainiako estatuak, dena zegoen bezala uzteko aldaketarik ez egiteko asmoz, NPB aplikatzeko modu korapilatsu bat aukeratu zuen eta baliabide asko erabiltzeari uko egin zion, gutxienez ere, nekazaritza-eredu sozial eta iraunkorrako baten baitan laguntzen banaketa hobea eragin zezaketenak.

Erreforma hauek guztiek NPB nazioarteko itunetara egokitu egin dute: MMA, TLC eta orain CETA, TTIP, MERCOSUR. Baldintzapen-prozesu honetan, Elikadura Subiranotasuna etengabe galtzen joan gara. Alde batetik, herritarren eskakizunak eta nekazarien beharrak asetzen zituen nekazaritza- eta elikadura-politika bat egitea erabakitzeko boterea galdu genuen eta, gainera, birmoldaketa ikaragarri baten ondoren, sektorean milaka enplegu eta nekazaritzako ustiategi galdu egin dira. Erreforma hauek ekoizpenaren intentsifikazioa eta industrializazioa bultzatu dute Europa osoan.

Bestetik, politika hauen helburu teorikoa zen, nekazariari prezio baxuak ordainduz, kontsumitzailearentzako elikagai “merkeak” ekoiztea; baina benetako helburua industria eta banaketarako lehengai merkeak ekoiztea zen. NPBren laguntzak, errenta mantentzeko eskasak ez ezik, ez ziren eta ez dira enplegua mantentzeko eraginkorrak. Nekazaritza-sektorean errenta-galera etengabea da. 2003tik hona, Espainiako estatuan errentak %27ko beherakada izan du.

Enpleguari erreparatuta, adibidez, esne-sektorean Euskal Herrian esne-ustiategiaren %80 galdu dira azken 10 urteetan. Europan, berriz, azken 10 urteetan, eguneko 1.000 ustiategi galdu dira.

Merkatuak globalizazioaren alde desarautu izanak enpresa banatzaile handien eta, hainbatetan, industria multinazionalen boterea indartu egin du. Kontsumitzaileak, politika honek ekarriko lituzkeen onuren ordean, operadoreek ezarritako prezioen gehiegikeria besterik ez du jasotzen. Gainera, gehiegikeria hori nekazariak ere sufritzen du, ezin baititu bere prezioak defendatu

eta kobratzen duenaren eta kontsumitzaileak ordaintzen duenaren arteko alde handiaz (%450 baino gehiago) jakinaren gainean baitago.

Erreformak justifikatzeko arrazoibide anitz erabili izan dira, baina arrazoi horiek ez zetozen bat erreformen atzean zeuden benetako asmoekin.

Ingurumenaren ikuspegitik justifikatutako erreformak egin dira emaitza gutziz kontrakoa izanik: intentsifikazio handiagoa, pestizida gehiago erabil-tzea, zoruen kutsadura...

Kontsumitzaileak elikagaiengatik gutxiago ordaintzeko nekazariaren pre-zioak jaitea justifikatzen zuten erreformak egin dira, baina kontsumitzaileak gutxiago ordaindu baino bitartekariak gehiago irabazten dute.

EBko mugak ireki ziren herrialde pobreenen eta, ondorioz, hegoaldeko base-rritarren garapena lagundu behar genuela argudiatuta, EBk herrialde horietara dumping prezioetan esportatzen zuen bitartean, multinazional europarrek barne-politika eta Europak duela gutxi arte izan dituen esportaziorako laguntzak aprobetxatuta. Baina emaitza gutziz aurkakoa izan da: herrialde horietako baserritarrak haien lurretatik bota dituzte, multinazional handiek lurra hartu dituzte eta ekoizpena Europan kokatu da. Hona hemen ondorioak: herrialde horietan gose diren pertsona gehiagok elikatzeko ahalmena galtzen dute eta Europara heltzen den produktu horrek tokiko nekazariei kalte egiten die baita ere.

Zer egiten dute eta zer ez dute esaten EBk eta erreforma horien alde egiten duten gobernuek?

Ez dute esaten nekazaritza eta elikadura gizakien oinarrizko eskubide bat izateari utziko diotela eta negozio espekulatibo bihurtuko dituztela.

Ez dute esaten nekazaritza txiki eta ertaina suntsitu egingo direla, ekoizpenaren kontzentrazioa laguntzen ari direla eta nekazari gutxiren esku eta ekoizpenean zentratuta dagoen nekazaritza bat bultzatzen ari direla, ingurumen-arazo gehiago sortzen dituen.

Ez dute esaten elikadura-industriari eta -banaketari botere gehiago ematen diotela, eta ekoizlea zein kontsumitzailea babesteko merkatuaren arautegiko baliabideak kendu direla.

Ez dute esaten zer dagoen nazioarteko negoziazioen atzean. Esaten dute negoziazio horiek eskuarki onak direla biztanleriarentzat; haatik, erreforma horiek merkatuak, nekazaritza, elikadura eta ekonomia, oro har, botere ekonomikoen esku jartzen dituzte eta gure oinarrizko eskubideak, elikadura, lan-eskubideak, osasun-eskubideak eta hezkuntza publikoa kaltetu besterik ez dute egiten.

NPBren 2020ko Erreformaren negoziazioa hasi da

Aurrekari hauekin, NPBren 2020ko erreformaren inguruko eztabaida piztu da. Erreforma honen testuingurua korapilatsua da: Brexita, EB beraren etorkizuna, aurrekontua, nazioarteko testuingurua, etab.

Europako Batzordeak inkesta bat zabaldu du biztanle guztien artean eta, uztailen, emaitzak aurkeztuko dituzte. Azaroan, Nekazaritza Komisarioak proposamena (analisisa, helburuak eta esparru politikoa) aurkeztuko du eta, 2018ko lehen sei hilekoan, legegintza-proposamena.

Gaur egun globalizaziora akoplatutako NPB honen ondorioak agerikoak diren arren, eta merkatura bideratutako Komisarioak dioen bezala, ez dirudi Europako nekazari gehienetan oinarritutako nekazaritza-, elikadura-, gizarte- eta ingurumen-eredu iraunkor bat definitzea.

Lehentasuna dugu Elikadura Subiranotasuna berreskuratzea eta, hala, ahalik eta nekazari txiki eta ertain gehienetan oinarritutako nekazaritza-, elikadura-, gizarte- eta ingurumen-eredu iraunkor bat definitzea.

TTIP ETA CETA. Nekazaritza-eredu sozial eta iraunkorraren krisia are gehiago sakondu dezaketen Itunak

EBren eta AEBen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Itun Transatlantikoa (TTIP), egun AEBetako Gobernuaren posizio berriek zalantzan jarri dutena, eta Kanadarekin negoziatu den Merkataritza Askeko Ituna (CETA) orain arte planteatu diren itun garrantzitsuenak dira. Itunok inpaktu globala izango dute, eta merkataritzaren zein enpresa transnazionalen aldeko arau berriak xedatuko dituzte.

Itun hauek erregulazio, arau eta politika publikoei eragiten dieten baliabideak barne hartzen dituzte, besteak beste: Inbertitzaila eta Estatuaren arteko Gatazkak Ebazteko Mekanismoa (ISDS, orain ICS) eta Lankidetzaren Arautzai-

lea. Baliabide horiek enpresa transnazionalen eskura egongo lirateke haien interesak kaltetu litzaketen Estatuaren, eskualdeen edo erkidegoen politika publikoak desaktibatzen. Interes publikoa baztertu egiten da, elite globalek menderatzen dituzten multinazionalen merkataritza-interesen aurrean. Gizarte-ereduan aldaketa handia ekarriko luke horrek.

Itun hauek nekazaritza larriki kaltetzen dute, Elikadura Subiranotasunaren (herrialdeek nekazaritza- eta elikadura-politika propioak ezartzeko duten ahalmena) galera sakontzeko oinarriak ezartzen baitituzte. Muga-zergak ez ezik, oinarritzko araudiak desagerraraziko dira gizarte, ingurumen, osasun, elikadura eta lan arloan eta, gainera, Atlantikoaren bi aldetako herritar guztientzat erabakigarriak diren zerbitzu publikoak pribatizatu egingo dira.

EBren eta Kanadaren arteko merkataritza askeko ituna

Kanadak, AEBek bezala, eskala handiko nekazaritza-ekoizpen eredu bat du: milaka animalia eta hektarea dituzten ustiategi industrial handiak. Kanadak AEBekin merkataritza askeko ituna sinatu zuenetik, baserri txiki eta ertainen ereduak alde batera utzi eta nekazaritza-esportaziora zuzendutako eredu bat ezarri du. Egun, Kanadako nekazaritza- eta industria-ekoizpen ereduak hormonak erabiltzen dira esnea eta haragia ekoizteko, antibiotikoak, transgenikoak, neoinikotinoideak...

Alde handia dago Europako eta Kanadako araudien artean, osasunari, ingurumenari, lanari eta animalien ongizateari dagokiolarik, eta zalantzan jarri da Kanadatik EBrako esportazioek EBren barne-araudiak errespetatuko ote dituzten.

Nekazaritza-sektorean, itun honek EBra 50.000 tona metriko behi-haragi, teorian kalitate onekoak, inportatzea aurreikusten du, muga-zerga %20tik ora murriztuz. Era berean, 75.000 tona metriko txerri-haragi sartuko lirateke. Inportazio hauek ekoizleak kobratuko dituen prezioen beherakada eragingo du, eta horrek ezegonkortasuna eta prezioen hegokortasun handiagoa ekarriko du.

Litekeena da, etorkizunean, itun honek eskaintzen dituen baliabideen bidez (adibidez, egungo eta etorkizuneko araudiak berrikusten dituen Erregulazio Komisioa eta, bestetik, nazioarteko enpresen inbertsioak defendatzen dituzten Auzitegiak) europar araudiak aldatzea. CETAn jasotzen diren baliabide hauek etorkizuneko araudiak baldintza ditzakete; izan ere, esaterako, Elika-

dura Subiranotasunaren printzipioa eta merkatuak arautzeko neurriak jasoko lituzkeen NPBren erreforma bat baldintzatu edo salatu lezakete.

Jatorri-deiturena beste kontu bat da. EBn 1.500 Jatorri-deitura daude, ardoarenak alde batera utzita, eta horietatik 225 bakarrik onartu dira. Espainiako estatuak 223 ditu, eta horietatik 23 onartu dira. Euskal Herrian ez da bat ere onartu; ardoarenak, txakolina barne, 2003ko itunean jasotzen dira. Jatorri-deitura gehienak inolako babesik gabe gelditzen dira Kanadan, eta industria kanadarrak, potentzialki, marka komertzial gisa erabil ditzake.

Otras negociaciones en marcha: Mercosur, Japón etc. Nueva roda OMC.

La UE no cambia su agenda internacional, aunque esté teniendo muchas llamadas de atención por parte de la ciudadanía europea a través de las numerosas formas de respuesta que está recibiendo contra sus políticas neoliberales.

Cada vez más es evidente que la globalización solo beneficia a las elites económicas de los países y no a la mayoría de la población. En el sector agrario se traduce en pérdidas continuas de empleo, perdidas de rentas y despoblación en el medio rural, falta de relevo generacional e incorporación de jóvenes a la agricultura.

Badago itxaropena. Borrokarik bai?

Politikak, testuingurua eta merkatu globalizatzaileen eraginak horiek badira ere, badago beste testuinguru biziago bat, askoz alternatiboagoa, berritzaileagoa dena. Horiei aurre egiteko munduko eta tokian tokiko mugimendu garrantzitsu bat antolatu da. Baserritarrek, nekazariak, arrantzaleak, soroko langileak eta indigenak, politikei aurre egiteko eta horien aurka borrokatzeko, Elikadura Subiranotasunaren alde borroka egiten duten 200 milioi baserritar baino gehiago barne hartzen dituen munduko erakunde handiena sortu dugu, La Vía Campesina. Era berean, kolektibo, gizarte-erakunde, ingurumen-erakunde, GKE, tokian tokiko erakunde eta kontsumitzaileen erakunde askok dute helburu mundu alternatibo bat eraikitzea, La Vía Campesina eta mugimendua osatzen duten erakundeekin Elikadura Subiranotasunaren aldeko Aliantzak eginez. Borroka globala da, baina eraikuntza lekuan lekukoa.

Elikadura Subiranotasuna planteamendu politiko bat da eta, aldi berean, tokian tokiko erakundeek proposatutako hautabideen eraikuntza da.

Nekazari asko, Aliantza sozial hauek oinarri hartuta, aurka egiten ari dira eta prozesu agroekologikoetan, ekoizpen-eredu osasungarri eta iraunkorretan, bai gizarteari bai ingurumenari dagokiolarik, sartu dira, nekazariari eta kontsumitzaileari bidezko prezioak bermatuz. Prozesu hauek hautabide bideragarriak sortzen dituzte merkatu globalenen esparrutik kanpo.

Bestetik, elikagai osasungarrien ekoizpen eta kontsumoarekin lotutako hautabideak sortzeaz gain, prozesu horiek eta, ondorioz, eredu autosufizienteagoak, egonkorragoak eta interesgarriagoak (gazte asko nekazaritzan aritzera bultzatzen dituztenak) laguntzen dituzten politika publikoen aldeko aldarrikapenak indartzen ari dira, kontsumitzaileak elikadura globalizatuak dakarren zabor-janaren ereduaz kontzienteagoak izan daitezen eta elikadura-eredu gero eta osasungarriagoak eskatu ditzaten.

Ekimen hauek lortu dute, bai mundu mailan bai lekuan lekuko mailan, nekazari txiki eta ertainen eta haiek ordezkatzten duten nekazaritza-ereduaren garrantzia aitortzea.

Aitortza hori gero eta sarriago egiten da egun planetak dituen arazo handien gainean (hala nola elikagai osasungarrien beharra, klima-aldaketari aurre egitea, uraren eta baliabide naturalen erabilera, enplegua eta landa-inguru-nearen etorkizuna) eztabaidatzen denean; izan ere, baita FAO bezalako erakunde askok ere ulertzen dute eredu hau dela hautabide onena, erroka horiei hobekien erantzuten diena.

Herrien ituna, Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoaren (TTIP) alternatiba gisa

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta
Multinazionalen Latinoamerikako Behatokiko ikertzailea

Europa eta AEBen arteko Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoak (TTIP) oinarri du eztabaidatu ez den eta ezin den gizarte- eta ekonomia-eredua: kapitalismoa, posible den sistema bakarra eta hobe bezala. Hortik aurrera, ituna sustatzeko argudioak “egia objektibo” bihurtzen dira: TTIParekin hazkunde ekonomikoa, enplegua eta garapena egongo direla segurtatzen dute; enpresa txiki eta ertainek negozio-aukerak areagotuko dituztela diote; eta munduko bloke ekonomiko handien arteko akordioak, gainera, maila globalean hartuko diren estandar eta arauak sortzeko aukera eskainiko du, gainerako herrialdeei mesede eginez.

Merkataritza eta inbertsioak ezin dira berez helburu hutsa izan. Aberastasunaren banaketa, hazkunde ekonomikoa eta adierazle makroekonomikoen zenbaketa, gutxienean, garapen gizatiar eta jasangarriaren printzipioetara egokitu behar da; bestela, errotik ezberdina den beste eredu ekonomiko batera moldatu behar da, eta, hasteko, planetaren muga fisikoak onartu behar ditu⁵⁴.

Dena den, zehatzagoa izanda, nola artikulatu ditzakegu bideragarriak diren benetako alternatibak, ekonomia ulertzeko beste modu bat diseinatzeko balio dezaten? Zentzu horretan aurrera egiteko asmoz, Herrien Itunak⁵⁵ eta merkataritza alternatiboaren aginte berriak⁵⁶ zenbait jarraibide ematen ditu norabide horretan, betiere premisa nagusi batean oinarrituz: “Enpresen interes pribatuen ginetik, giza eskubideak, demokrazia eta gardentasuna lehe-

54 Juan Hernández eta Pedro Ramiro (2015): ¿Hay alternativas al TTIP y los tratados de libre comercio?, La Marea, <http://www.lamarea.com/2015/05/01/hay-alternativas-al-ttip-y-los-tratados-de-libre-comercio/>

55 Juan Hernández, Erika González eta Pedro Ramiro (2014): *Tratado Internacional de los Pueblos para el control de empresas transnacionales. Una apuesta desde los movimientos sociales y la solidaridad internacional*, Cuadernos de Trabajo / Lan-Koadernoak, Hegoa, nº 64, Hegoa, Bilbao. http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/325/Cuadernos_Hegoa_n%C2%BA64.pdf?1418916916

56 Mandato de Comercio alternativo (2014): Por una nueva perspectiva frente al comercio, http://www.alternativetrademandate.org/wp-content/uploads/2014/02/Time_for_a_new_vision-ES-JAN14-PRINT.pdf

netsi behar dira, eta baita kalitatezko zerbitzu publikoak eskuratzeko eskubide unibertsala, babes soziala eta lan- zein ingurumen-arauak ere”.

Testuinguru horretan, gizarte-mugimendu andana existitzen da: adibidez, Korporazioen Boterea Eraisteko Kanpaina⁵⁷ osatzen dutenak, zeintzuek ekonomia kapitalista eta Estatua gainditu nahi dituzten, antolakuntza sozialerako zutabe eztabaidaekin diren heinean, eta, horretarako, elkartasunean, hurbiltasunean eta parte hartzean oinarritutako alternatiba erradikalak bilatu nahi dituzte. Horrela, demokrazia erradikala eta pertsonen beharrak giltzarri dira gizarte-antolakuntza berri baterako, non pertsonen ekonomiaren, zaintza-lanen eta etxeko betebeharren azpitik dauden ekoizpen- eta finantza-alderdiak.

Korporazioen Boterea Eraisteko Kanpainak urteak daramatza salatzen korporazio transnazionalen eskubideak babesten dituen inpunitatearen arkitektura juridikoa; herrien eta herritarren eskubideekin batera egindako legeria neoliberal da, eta, berez, hierarkikoki haien eskubideen gainera dagoena.

Zentzu horretan, eta konpainia horien operazioak benetan kontrolatzeko tresnak sortzeko helburuarekin, askotariko gizarte-mugimendu, jatorrizko herri, sindikalista, legegari, aktibista eta multinazionalen praktiken biktimek, berriki, Enpresa transnazionalak kontrolatzeko Herrien Nazioarteko Ituna (aurrerantzean, Herrien Ituna) sortu dute. Itun hori sortu duen lan kolektibo guztiak azken hamarkadan metatu den esperientzia guztia jasotzea da asmoa. Horretarako, abiapuntu izan dira enpresa transnazionalen aurkako hainbat borroka, eta borroka horiek babesten dituzten estatu-erakundeak zein nazioartekoak. Horren guztiaren helburua da enpresa transnazionalentzako arau lotesleak ezartzeko bidean aurrera egitea, eta, baita ere, giza duintasunarentzat eta planetaren biziraupenarentzat eremu giltzarri diren horietatik sektore pribatua kanporatzeko arauak onartzea.

Herrien Ituna komunitateen borroka- eta erresistentzia-prozesu baten fruitua da; zentzu horretan, erradikala da, alternatiboa, etengabe kontsultatzen dena, proposamen zein alternatibak sortzeko eta birsortzeko prozesua baita. Gainera, herrien eta pertsonen emantzipaziorako tresna da, eta bere sorreraren erdigunean biktimen mina kokatzen du. Enpresa multinazionalen jokabideen inpunitateak eragin oso larriak ditu pertsonengan, herriengan eta naturarengan, eta, bestalde, biktimak ikusezinak eta hutsalak dira, inoiz ez baitira agertzen

57 Korporazioen Boterea Eraisteko Kanpaina <http://www.stopcorporateimpunity.org/?lang=es>

enpresa transnazionalen Korporazioen Gizarte-Erantzukizunaren memorian. Erresistitzen duten herriek eta gizarte-mugimenduek oso ondo erabiltzen dituzte espazioak eta denbora; itunak tartekatu egiten ditu, batetik, epe luzerako printzipioak eta proposamen estrategikoak, eta, bestetik, alderdi taktikoak, premiazkoak, berehalakoak. Itunaren orrialdeak utopia eta berehalakotasunaren artean kulunkatzen dira, betiere konfrontazio eta antolakuntza sozialaren markoan.

Itunaren helburuetako bat da korporazio transnazionalak sakonago kontrolatzea, eta horretarako, botere politiko, ekonomiko eta juridikoa birbanatzeko mekanismoak sustatzen ditu, eta mugimenduen arteko aliantzak sendotzeko alternatibak eta proposamenak elkarbanatzea bultzatzen du.

1976ko Argeleko Herrien Adierazpenaren⁵⁸ lekukoa hartzen du itunak, eta alternatibak proposatzen ditu demokrazian sakontzeko eta espazio publikoa berreskuratzeko. Proposamen horiek herritarren burujabetza berresten dute, eta erabakiak hartzeko enpresen kooptazioa baztertzen dute; merkataritza eta inbertsioak berrinterpretatzen dituzte; finantza-botereari desafio egiten diote; zerbitzu publikoak eta estatu-enpresak berreskuratzen dituzte eta lana zein ekoizpena demokratizatzen dituzte; eta lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko banaketa suntsitzen dute.

Halaber, herrien eta eskubide kolektiboaren burujabetza berreraikitzea proposatzen du itunak, horretarako erabiliz nekazaritza erreforma, agroekologia, elikadura-burujabetza, nekazarien eskubideen defentsa eta ura eskuratzeko giza eskubidearen arautzea. Energia-burujabetza formulatzen du, komunitateen lurraldeak eta eskubideak defendatzen ditu erauzketaren eta ekonomia berdearen aurrean, eta herri indigenen “bizimodu ona” aldarrikatzen du.

Azkenik, barne hartzen ditu ekonomia solidarioa, ekologismoa eta feminismoa.

Ikuspegi juridikotik, itunak zuzenbidearen erabilera alternatiboan sakontzen du, menderakuntza-eredu hegemonikoa interpretatzeko arrakalak bilatuz⁵⁹.

Horrela, tresna legal klasikoak berreskuratu eta birsortu nahi ditu, proposa-

58 197 Herrien Eskubideen Adierazpen Unibertsala <http://www.filosofia.org/cod/c1976pue.htm6>

59 Hernández Zubizarreta, Juan eta Ramiro, Pedro (2015): *Contra la Lex Mercatoria. Propuestas y alternativas para controlar a las transnacionales*, Icaria, Bartzelona

men zehatz eta jakinen bidez; paradigma berri baterantz eboluzionatzen du, herrien eskubide kolektiboen arkitektura berria eraikitze aldera.

Itunaren testuingurua Nazioarteko Zuzenbidearen aurkako borroka luze batean kokatzen da; izan ere, zuzenbide hori goitik eratu da, elite politiko eta ekonomikoetatik. Zuzenbide hori ez da inoiz kezkatu herri- edo gizarte-mugimenduengatik, estatuetatik kanpo kokatu ditu eta, hortaz, subjektu ilegal eta bidegabetzat hartu ditu. Zuzenbide hori korporazio handien eta merkataritza eta inbertsio akordioen zuzenbidea da, eta aurrerabide eta garapenaren armonia liberean mugitzen da⁶⁰.

Itunak bestelako ordena nahi du: behetik sortutako zuzenbidea nahi du, herrietatik eta herrirentzako dena; 1976ko Argeleko gutuna barne hartzen duena; erresistentziaren logikarekin lotutako zuzenbidea nahi du, kapitalaren zerbitzura dagoen diplomaziaren sekretu eta opakutasunetik at garatzen diren nazioarteko arauen eraikuntzaren logikarekin bat datorrena.

Nazioarteko konstituzio demokratiko berri baterantz urratsak eman behar dira, non herriak subjektu konstituziogile izango diren, zuzenbide-aktoreak, eta horrela, estatuak eta kapitala lekua egiten joango dira giza eskubideentzat, eskubide kolektiboentzat eta naturaren eskubideentzat. Itunak berrinterpretatu egiten du arau konstituziogileen koadroa.

Azken batean, etengabeko bilakaeran dagoen prozesua da, eta alternatiba juridiko, ekonomiko eta sozialak elkarlotzen ditu, kapitala eta patriarkatuarekin konfrontazioa duen proiektu politiko batean. Epe laburreko bulkada legalak ditu, paradigma aldaketekin eta epe luzekoekin batera, transnazionalen boterea eraisteko, haren mamia kapitalismoa eta inpunitatearen arkitektura baitira.

Nazioarteko elkartasun itun bat da; hegemoniaren aurkako sareen eraikuntzan sakontzen du, eta erresistentziak artikulatzen ditu eremu lokal, nazional, eskualdeko zein globaletan.

Azkenik, estatuaren eta enpresa transnazionalen praktikek eragindako biktimen ituna da. Egia, justizia eta ordainaren bidez, biktima horien mina ordaintzea, birgaitzea eta kalte-ordainak eskaintzea da asmoa. Halaber, asmoa da eskumen berezi bat ezartzea kaltetuak defendatzen dituzten horientzat;

60 Balakrishana, Rajagopal (2005): *El Derecho Internacional desde abajo*, ILSA, Instituto Latinoamericano de servicios legales alternativos, Bogotá.

izan ere, mehatxuak eta indarkeriazko estrategia pertsonalak, familiakoak eta legalak pairatzen dituzte..

Euskal Herria

Euskal Herrian, antolakunde sozial, politiko eta sindikal andanak TTIP-Ari Ez-No al TTIP kanpaina⁶¹ sortu du. Horrela, tartekatu egin dituzte, batetik, TTIParen salaketa eta kontzientziazio lana, eta, bestetik, Korporazioen Bote-rea Eraisteko Kanpainaren barruan kokatutako proposamen alternatiboak. Zentzu horretan, Euskal Herrian Eskubide Sozialen Kartaren eta Alternatiben Herriaren testuinguruan garrantzi handia hartzen du sindikatu eta gizarte-mugimenduek egindako adierazpenak:

Herrien arteko bestelako harreman-eredu bat beharrezkoa da, eta hemendik egi bihurtu dadin lagundu nahi dugu. Gure konpromisoaren bidez laguntzen dugu, borroka eta mobilizaziorako oinarrizko printzipioekin, hala jasotzen baitu Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak.

Euskal Herriari, beste edozein herriri bezala, bere eredu ekonomiko, politiko eta instituzionala erabakitzea dagokio, euskal jendarteak demokratikoki adierazten duen borondatea muga bakarra izanik. Eta bere erakundeak Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten pertsona guztientzako oinarrizko eskubide sozial horiek bermatu behar dituzte.

Ekintza politiko, ekonomiko eta instituzionalaren lehentasunak aldatu behar dira: pertsonak eta haien interesak gailendu behar dira merkatuaren interesen gainetik, eta lan produktibo eta erreproduktiborako eskubidea kapitalaren interesen gainetik.

Edozein jarduera ekonomikoren azken arrazoia ezin da izan txirotze orokorraren kontura aberastea. Horretarako, ekonomia-politikaren eraginkortasun soziala bermatu behar da: oinarrizko eskubide sozialak gobernu orearen ekintzarako lehentasun izan beharko lirateke.

Zerbitzu publikoak behartuta daude guztien ongia defendatzera. Izan ere, helburu dute bermatzea euskaldunen eskubide sozialak berdintasunez, eraginkortasunez eta modu eskuragarri zein deszentralizatuan erabiltzen direla, bitarteko propioen bidez.

⁶¹ TTIP-Ari Ez-No al TTIP kanpaina <http://www.ttipez.es/>

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan jasotzen diren oinarritzko jokabide-printzipioak ukatu egiten dituzte gobernatzen gaituzten erakunde neoliberalak, eta mehatxu berriek ere printzipio horiek betetzea ezinezko egin nahi dute.

Boteretsuak, nazioarteko itunen bidez, beren nagusitasun egoera mantentzen saiatzen dira; itun horiek, TTIPak bezala, beharrezko berme juridikoak ematen dizkiete finantza-kapitalari eta multinazionaleri, beren mesederako kontrolatu ditzaten ekonomia, ekosistema, eskubideak eta pertsonen gaitasunak zein bizitza bera. Demokrazia kapitalaren diktadurak ordezkutzen du, eta pertsona oro zordun bihurtzen da, errentadunek eta espekulatzaileek agintzen duten sistema batean. Merkataritza Askerako Itunak inposatu nahi dizkigute, lizentzia izan dezaten eraisteko bai burujabetzak (elikadurarena, energetikoa, politikoa, demokratikoa) eta baita eskubideak ere (lanarena, sozialak, osasunarenak, ingurumenarenak).

Horregatik, irmo diogu nazioarteko itunen gorakadaren aurka gaudela, suntsipena, lapurreta, desorekak, txirotasuna... dakartelako. Euskal Herritik, bestelako mundu bat posible dela aldarrikatzen dugu, ezinbestekoa dela nazioarteko harremanen beste eredu bat, elkartasunezkoa, bidezkoa, kooperatiboa eta herriek beren etorkizunaz erabakitzeke duten burujabetzan oinarritzen dena.

Abiapuntu hartuta premisa horiek eta herrien autodeterminazio askerako aitortza osoa, Korporazioen Boterea Eraisteko Kanpainaren parte sentitzen dugu gure burua, Korporazio Transnazionalen eskubide urraketa eta boterearen inpunitatea ezabatzeko.

Horregatik, geureganatu egiten ditugu honako proposamenak: finantza-botereari desafio egiten diotenak, zerbitzu publikoak berreskuratzeko direnak, lana eta ekoizpena demokratizatzeraz bideratutakoak, elikadura-burujabetzara eta nekazarien eskubideen defentsara zuzendutakoak, ura eskuratzeko giza eskubideak arautzekoak, erauzketaren aurrean energia-burujabetza bermatu nahi dutenak, eta herri indigenen bizimodu ona defendatzeko proposamenak.

Arau, hitzarmen eta itunen sare hori desagertu dadila exijitzen dugu, enpresa transnazionalen boterea babesten baitu. Halaber, exijitzen dugu eskubide sozialen arkitektura berria eratu dadila, enpresa transnazionalen giza eskubideen urraketak geldiarazteko; eta, era berean, eskatzen dugu elkartrukerako markoak sor daitezen, eta komunitate, gizarte-mugimendu eta sindikatuen artean aliantzak jaio daitezen.

Horregatik guztiarengatik, TTIParen gisako itunen aurrean, enpresa transnazionalak kontrolatzeko Herrien Nazioarteko Itunarekin bat egiten dugu, juridikoki loteslea den nazioarteko tresna delako, honakoa ezartzen duena:

- Xehatzen du Enpresa transnazionalak giza eskubide guztiak errespetatzeko betebeharra; hala nola, eta bereziki, bizitzeko eskubidea, elkaritzeko askatasuna, iritzi eta adierazpen askatasuna, baztertua ez izateko eskubidea, lanerako eskubidea, elikadura eskubidea, ura eskuratzekoa, etxebizitza eskubidea, osasunerako eskubidea, autodeterminazio eskubidea eta ingurumen osasungarri bat izatekoa.
- Arautu egiten du enpresa transnazionalen erantzukizun solidarioa, beren eskumendeko enpresek—egitezkoak edo legezkoak— eta beren hornitzaileek—azpikontratatzailak edo lizentzia-hartzaileak— urratutako giza eskubideengatik.
- Adierazi egiten du erakunde publikoek giza eskubideak babesteko betebeharra, enpresa transnazionalen bortxaketen aurka, horretarako hartu beharreko neurri zehatzak xehatuz.
- Berretsi egiten du giza eskubideen nagusitasuna merkataritza eta inbertsio itunen gainean.
- Ezarri egiten du enpresen eta beren zuzendarien erantzukizun zibila eta penala.
- Barne hartzen ditu nazioarteko ekonomia- eta finantza-erakundeentzako betebeharrak.
- Ezarri egiten ditu nazioarteko krimen ekonomiko eta ingurumenaren aurkakoak hautemateko ereduak.
- Onartu egiten ditu Ituna betearazteko nazioarteko mekanismoak; hala nola, transnazionalen eta giza eskubideei buruzko Nazioarteko Auzitegi bat eratzea.

Finantza-kapitalaren eta multinazionalen aurrean, haien heriotza-itunen aurrean, urratu dezagun beste bide bat: bizitzaren bidea eta herrien arteko elkartasunarena.

Multinazionalen aldeko Europa baten aurrean, eraiki dezagun Europa soziala, herrien Europa.

